

ARNASGUNEAK. EZAUGARRIAK.
ZENBAIT ARNASGUNEREN EGOERAREN BEHAKETA.

Hizkuntza plangintza ikastaroa.(Hiznet)
2004-05 ikasturtea
Sakontze egitasmoa (2011-12)
Egilea: Xabier Bengoetxea Muxika
Tutorea: Mikel Zalbide Elustondo

Aurkibidea

Excusatio:.....	3
Sarrera:.....	3
Lana bideratzeko egindakoen zehaztasun batzuk.....	5
Lehen atala	
- Zer dira arnasguneak?.....	6
Bigarren atala	
- Arnasgune zehatz batzuen behaketa.....	12
o Herriz herriko datuak.....	13
o Herriz herriko datuak grafikoetara ekarriak.....	19
- Datuen irakurketa egiten.....	34
- Hizkuntza-erabilera.1991etik 2006ra arteko bilakaera.....	41
- 2006.urte arteko bilakaera eta 2011ko V. inkesta soziolinguistikoaren datuak	43
- Aztergai ditugun lau herrietako datuak.....	47
- Lau herri horietako hainbat gela-argazki.....	50
- Kultura kontsumoa.....	69
- Herriko beste ataletan. Datu jasotzea eta behaketa.....	84
- Arnasgune horietako paisaia linguistikoa.....	92
Ondorio orokorrak.....	99
Zer egin arnasguneetan? Erronkak.....	108
Eranskinak.....	113
Bibliografia.....	165

Bainan gure hizkuntza jo du erroraino
gaitz bat txarragokoak gaitz guziak baino;
ez da gure etxean sartua oraino,
bainan hedatua da kasik oneraino.

(Nigarra begian. *Odolaren mintzoa*)
Xalbador

Excusatio:

Aspaldi egina behar zuen lantxo honek. HIZNET ikastaroa egin eta amaitzeko ikerketa lantxo egin behar genuela esan zitzaigun. Hasieran, berehala egitekotan nintzen, baina une batean ikastaroa kudeatzen zuen idazkariari entzun nion, horrela ulertu nion behintzat, ez zegoela eperik. Horrek, noski, asko lasaitu ninduen. Gehiegi. Gaur arte. Beti izan ditut gogoan Axularren hitzak:

Egun batez, konpainia on batean, euskaldunik baizen etzen lekhuan nengoela, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko utzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak.

Pedro Axular (*Gero*) Jakin

Behin baino gehiagotan oihartzun egiten zuten hitz horiek nire baitan, baina nik biharko eta biharko jarraitu izan dut. Beraz, bego gaur hemen nire excusatioa, inork eskatu gabea, nire nagiaren salagarri.

Sarrera:

Hautatutako gaiari dagokionez, nire eguneroko lanarekin lotura izatea eta nire lanaren garapenerako baliagarria izatea bilatu dut ezer baino gehiago. Ez da ahaztu behar, bestalde, lan hori osatzeko erraztasun handienak, iturri eta material osatuenak hor aurkitu ditudalako ere badela.

Ulibarri programaren baitan, mintegietako bat Tolosaldeko eskola txikiekin burutzen dudana da. Azken urteetan, hainbat hausnarketa egin ditugu, herri horietan ematen, sumatzen ziren aldaketak zirela eta. Bai euskararen ezagutzari dagokionez, bai bere erabilerari, hala nola, jarreretan ikus daitezkeen aldaketei dagokienez, hausnarketa horiek izan dira, beraz, ikerketatxo honen abiapuntu. Eskola horietako HNATekin batera burututako hausnarketak zenbait galdera mahaigaineratzera eramán gintuen. Gertatzen ari ziren aldaketa horiek interpretatu nahian han eta hemen bilatu genuen argi izpiren bat. Eskura genituen artíkulu, txosten etab. arakatzén hasi ginen. Horren harira esan behar, Mikel Zalbideren lan mardulari esker arnasguneen teorizazioa eta hainbat adibide ezagutzeko aukera paregabea izan dugula. Haren artíkuluak, adibideak etab. funtsezkoak dira intuizioaz suma zitezkeenei sostengu teoriko-zientifikoa emateko. Berak definitu ditu arnasguneen izaera eta ezaugarriak, hala nola horietan gertatzen ari diren- eta gerta daitezkeen- aldaketak zergatik gertatzen diren etab. Mikel Zalbidek eraikitako sare teoriko hori izango dut, beraz, etengabeko erreferentzia lan honetan.

Horretan oinarriturik, eta horren argitan, irakurri ahal izango ditut jasotako datuak, horren argitan interpretatu ahal izango ditut ikasleei egindako galdeketak etab. Mikel Zalbideren lana izango dut, beraz, oinarri eta erreferentzia. Horretan oinarriturik, eta horren argitan, lau herritako egoera aztertzen ahaleginduko naiz, hainbat datu konparatuz eta horien interpretazioa eginez eta hipotesiak botaz. Nire lantxo honen xedea xumea da: arnasgune diren lau herritako behaketa egitea. Herri horietan zer nolako aldaketak gertatzen ari diren, aldaketarik gertatzen ari bada behintzat, ikustea eta aldaketa horien nondik norakoen zergatiak argitzen saiatzea, beti ere, lehen esan bezala, arnasguneen teorizazioaren argitan.

Lanak, beraz, bi zati nagusi izango ditu. Lehenik, arnasguneen izaera, beraien ezaugarriak eta horietan aldaketak zergatik eta nola gerta daitezkeen ikusiko dugu. Esan bezala, Mikel Zalbidek arnasguneei buruz idatzitako artikulu baten laburpen xume bat hona ekartzea izango da funtsean. Oso labur eta eskematikoki ekarria bestalde, gerora ikusiko eta aztertuko ditugun datuak interpretatzeko argigarri izango zaizkigun neurrian. Arnasguneei buruzko dokumentazio zehatzagoa lantzeko Mikel Zalbideren artikulu eta lanetara joatea besterik ez dago.

Bigarrenean, Tolosaldeko arnasgune batzuen azterketatxo bat egingo dut. Hasieran orokorra egingo badut ere, gerora, horietako lau herri hartu eta horiek sakonago aztertzen saiatuko naiz. Zein egoeratan dauden, nolatan islatzen diren herri horietan aurrez ikusitako ezaugarriak (teorikoak), herri horietan eta aldaketarik gertatzen ari ote den, norantz ote doazen aldaketa horiek. Horretarako, EUSTATEko datuez gain, ikastetxeetan egindako gela-argazkiak, kultura kontsumoari buruzko galdeketak eta herriko beste hainbat ataletako datuak aztertuko ditugu.

Lantxo honen bidez, honako hipotesiok frogatu nahi ditut:

- Arnasguneak direla eta, Mikel Zalbidek horiek definitzean aipatzen dituen aldagaiak, ezaugarriak, aldaketak eta horien zergatiak, nahiko ondo egokitu, islatu, daitezkeela aztertu ditudan arnasguneetan.

- Arnasgune horietan gertatzen ari diren aldaketak sakonak direla, nahiz eta lehen gainbegiradan aldakortasun hori ez den begi-bistako egiten.

- Kultura-kontsumoak argi adierazten duela aldaketa horien norabidea. Halaber, kultura-kontsumo horren azterketak, gertatzen ari den beste zenbait aldaketaren interpretaziorako elementuak eman diezazkigukeela.

Lana bideratzeko egindako urratsen zehaztasun batzuk

Lehen ataleko datu demolinguistikoak eta soziolinguistikoak EUSTATetik hartu ditut. Datu horietan oinarrituta atera dira portzentajeak eta horiek dira grafikoetara eraman direnak. Lehenik 12 herri txiki /arnasguneren datuak aztertu dira. Bigarrenik, bi herri gehiagoren datuak ekarri ditugu, aurrekoen osagarri eta gero aztertuko diren lau herrietako bi horiek tartean direlako.

Aztergai hartutako lau herri horietako eskoletan, erabakitako maila jakin batzuetan, gela-argazkiak egin dira. Lehen Hezkuntzako hiru eskolatan (Asteasu, Berastegi eta Amezketa) 4., 5.eta 6. mailetan egin dira gela-argazkiak. Guztira, 10 gelatan. Horrez gain, DBHko ikastetxe batean (Aralar DBH. Alegia) DBHko 2. eta 4. mailetan egin da gela-argazkia. Guztira, 4 gelatan. Maila bakoitzeko 2 gelatan. Orotara, beraz, 14 gelatan egin da gela-argazkia. Hiru herritan 4., 5.eta 6. mailetan eta arnasgune bateko institutuko 2. eta 4. mailako ikasleei. Horrela, herri diferenteak hartuta batetik, eta adin ezberdineko ikasleak bestetik, erkaketarako eta azterketarako bide eman nahi dugu.

Hautatutako ikasle horien kultura-kontsumoa ezagutzeko galdeketa pasatu da. (ikus 2. eranskina). Aurreko atalean aipatu ditugun 14 geletan ikasle guztiei pasa zaie galdeketa. Hots, Lehen Hezkuntzako 124 ikasleri eta DBHko 70 ikasleri. Guztira 194 ikasleri pasatu zaie beraien kultura-kontsumoari buruzko galdeketa. Galdeketa hori 2011ko maiatzean pasatu zitzairen.

Eskoletako datuez gain, herriko beste hainbat ataletako datuak jasotzeko fitxa (ikus 3. eranskina). Fitxa horren bidez lau herri horietako datuak jaso dira, herri horietako irakasle batzuen laguntzaz.

LEHEN ATALA.

ZER DIRA ARNASGUNEAK?

Han eta hemen, azken boladan, sarri erabiltzen den hitza da. Sarriegi agian eta horrek nahasketara eman lezake ondo zedarritzen ez bada. Zedarritze-lan hori inork baino hobeto egina du Mikel Zalbidek. Beraz, hura izango dugu bide erakusle eta gidari.

Arnasguneak zer diren azaldu baino lehen komeni da, horiek non kokatzen diren esatea, zergatik ematen zaien horrelako garrantzia etab. Zertxobait testuinguratzea, zuzenean bere definizioan sartu aurretik.

Arnasguneei garrantzia ematen ari bagatzaizkie, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko duten garrantziaz jabetzen garelako da. Geurea, euskara, ahuldutako hizkuntza da. Ahuldade hori, begi-bistakoa da, ez da lurralde guztian modu berean eta intentsitate berarekin gertatzen. Leku batzuetan, oso ahul dago, beste batzuetan osasuntsuago eta hainbatetan (arnasgunetan), lehen begiradan behintzat, aski osasun onean dagoela esan genezake. Hori bai, gorputz-atal guztiak elkarlotuta eta elkarreraginean dauden bezala, han-hemengo hiztun-taldeak euskararen hiztun-elkartea osatzen duela esan genezake, horiek ere elkarlotuta eta elkarreraginean. Eta zati baten osasun-ahuldadeak, baduela zerikusia gorputz-elkarte osoaren osasun-ahuldadean. Gogoratu, bestela, Mikel Laboak abesten zuen kanta hura: *Batek gosez diraueino ez gara gu asetuko; bat inon loturik deino ez gara libre izango...*

Ahuldutako hizkuntza duen gizarteaz ari gara, beraz (Zalbide,2002). Beste zenbait hizkuntzarekin ukipen-egoeran dagoenez, horren eraginez dago ahulduta. Ahuldade horren sintomak dira interferentziak, kode-alternantziak, hiztun gutxi izatea, harreman-sare ahulduak, ez oso trinkoak, jardun-esparru eta egoera hainbatetan oso leku txikia izatea, orain arte nahiko sendo agertzen ziren situazio informal intimoetan ere ahultzen joatea, konpartimentazio soziofuntzioanal egonkorrik gabe geratzeko bidean joatea, etab.

Esan bezala, *Albo-erdarekin ukipen-egoeran* dago euskara, eta *diglosiarik gabe gelditzen* ari da ia. Hizkuntza- ukipenaren ondorioak hiru planotan ikus ditzakegu: linguistikoan, norbanakoan eta gizartean.

M. Zalbideren txostenetik harturik, hona hiru planoak bere horretan hona ekarriak:

- ▶ **Plano linguistikoan:** *hiztunek (batez ere hizkuntza kontestualki ahuleko hiztun elebidunek) darabilten hizkeran eta idazkeran interferentziak agertzen dira (hots-ebakeraz, morfosintaxiz, hitz-altxorrean eta semantika aldetik). Baita kode-alternantzia eta hibridazioa ere.*
- **Norbanakoaren planoan,** berriz, *elebitasuna agertzen da (normalean An edo Bn, ez bietan; eta ez, normalean, bietan maila berean): L1n eta L2n hizkuntza-gaitasun diferentziala* dute hiztun elebidun horiek eta, horren ondorioz, *era askotako nagusitasun-moldaerak* (dominance configuration) agertzen dira: *euskal / erdal elebidunak, besteak beste.*
- **Gizarte mailan,** *hizkuntza biak erabiltzen dira. Horren ondorioz, maila makrosoziolinguistikoan mintzaerari eustea gerta liteke (language maintenance), edota mintzaldatzea (language shift). Baita Hizkuntza-hedapena (language spread) edota, atzera eraginez, ahuldutako hizkuntza indarberritzea ere (HINBE edo reversing language shift) (Zalbide,2008)*

Ahultzen doan hizkuntza duen gizartean mintzaldaketaren eragina ikus genezake. Baina zer da mintzaldaketa? Jo dezagun berriro M.Zalbideren artikulura:

Oso fenomeno ezaguna deskribatzen du mintzaldaketak: ahuldutako A hizkuntzatik bere hiztunak (hiztun batzuk, asko, guztiak) kontestualki nagusi den B hizkuntzara mintzaldatzea eta, hainbatetan, hortik aurrerako galbidea. Mintzaldaketa aski gauza ezaguna da mundu zabalean. Ez da bat-bateko pausoa, txuri-eta-beltz arteko tartea markatzen duena, urratsez urratsekoa edo graduala baizik. Honako sekuentzia eman izan da inoiz, continuum horren beheranzko norabidean, egoera xuabeenetik hasi eta larrienera joaz: language attrition, shift, endangerment, contraction, obsolescence, loss, disappearance eta death¹⁸. Prozesu horien arabera (sarrienik, horien ondoriozko) hizkuntzei ere izen jakinak eman ohi zaizkie: declining, endangered, threatened, obsolescent, moribund, extinct eta dead languages.

Mintzaldaketa hori espazio soziofuntzional jakinean definitzen da printzipioz: gizaki guztiok

ezin itzurizkoa dugun eguneroko jarduera arruntean. Hots, batez ere etxean, kalean, lagunartean,... garatzen den jardueran. Hitzeko mintzajardunean mamitzen da gainera, nagusiki. Hitzeko agerbidean eta situazio informal edo espontaneo (zenbaitetan intimo) jakinetan. Mintzaldaketa ez da, azkenik, espazio fisiko-territorial osoan batera gertatzen¹⁹. Mintzaldaketa ez da hiztun batek edo bizpahiru hiztunek une, leku eta xede jakinak hartaraturik A hizkuntzatik B hizkuntzara pasatzearekin nahastu behar²⁰. Bi gauza dira horiek. Gertaera makrosoziologikoa da mintzaldaketa, normalean belaunaldi bi edo gehiago irauten duena, ez hiztun jakin batzuen unealdi jakineko doikuntza-prozesu mikrosoziologikoa.

Mintzaldaketa espazio soziofuntzional osora hedatzen denean, hil-urrien da hiztun-elkarte hori:

bere azken hiztun “mohikanoa” hiltzen denean amaitu egiten da ordura arteko hiztun-elkarte bizia. Belaunez belauneko transmisiorik gabe, hiztun-stock bizirik gabe gelditzen da hiztun-elkarte hori. Language community edo hiztun-elkarte horrek okupatzen zuen espazio fisiko-territoriala, garai batean muga ezagunak²¹ zituen hiztun-herria, translinguifikatu egiten da osoro. (Zalbide,2008)

Gerora ikusiko ditugu mintzaldaketaren zergatiak. Zergatik, hiztun-elkarte batek bere hizkuntza utzi eta beste bat bereganatzen duen. Motibo sozial jakinak ditu, besteak beste, mintzaldaketak. Hala ere, horiek gerora ikusiko ditugu, arnasguneetan aldaketak zergatik ematen diren aztertzean.

Gizarte batek, hizkuntza bi edo gehiago ukipenean dituenean, lehen ikusi dugun bezala, norabide bat baino gehiago har dezake. Guri dagokigunean, eta laburtuz, mintzaldaketaren prozesu baten bidez hizkuntza ordezkapeneko bidean abiatu edota **ahuldutako hizkuntza** indarberritzea. (HINBE edo reversing language shift). Ez gara hemen luzatuko, hizkuntza indarberritzeaz, mantentzeaz, biziberritzeaz etab. horien artean dauden zehetasunez. Horren interesa duenak jo beza M. Zalbideren artikuluetara. Bakarrik esan “hizkuntza erabiltzen jarraitzen deneko kasuetan hitz egiten dela hizkuntza indarberritzeaz: jardun-gune berriak erantsiz egiten da hori, instituzionalizazio indar babesa barne delarik sarri”. Indarberritzearen helburua honakoa da: “bizirik dagoen lekuetan (espazio fisiko eta soziofuntzionaletan) hizkuntzari bizirik eustea, lehenik eta behin, belaunez belauneko perspektiban; bizirik eustea eta, hortik abiatuta, hizkuntzaren erabilera (ez ezagutza, erabilera baizik) hedatzea: hiztun eta jardun-esparru gehiagotara zabaltzea”. (Zalbide,2008)

Ikusi dugu, oso oso gainetik eta labur bada ere, ukipen egoerak eragindako ondorietako batzuk. Hau da, ahuldutako hizkuntza, mintzaldaketa eta horrelako fenomenoak. Ikusi dugu, halaber, zer den hizkuntza indarberritzea. Horrela bada, ahuldutako hizkuntzaren gizartea indarberritzeko tenore horretan du erabateko garrantzia arnasguneak zaintzeak eta indartzeak.

Baina zer dira arnasguneak? Zein ezaugarri dituzte?.

Jo dezagun berriro M. Zalbiderengana. Ekar dezagun hitzez hitz berak dioena:

Zer da arnasgunea? Fishman-ek physical breathing space esaten duena. Hots, demographically concentrated space where Xish (gurean euskara) can be on its own turf, predominant and unharassed (1991: 58). Euskaraz nolabait esateko, demografia aldetik euskara “bere kabian” sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe “etxeko jaun” sentitzen den eremua. Hori da, funtsaren funtsean, Fishman-en physical breathing space edo arnasgunea.

Kontzeptu fisikoa da arnasgunea, lehenik eta behin. Bizimoduaren antolamendu fisikoa (non bizi zaren, zertatik, inguru horretako klima eta landaretza,...) bere kokaera demografikoa eta osaera soziokulturala (baserri-giroa edo kalea, euskal giro jatorra edo erdal giroa nagusi duen) ondorio kultural handikoak dira. Ondorio nabarmenak ditu bizimodu horrek: language-in-culture alorreko ondorioak, bere osoan. Dislokazio fisikoak eta demografikoak kulturaren (eta, beraz, language-in-culture delako horren) dislokazioa ekarri ohi dute sarri berekin: hori dakarte berez edota, gutxienez, horretara bultzatzen dute.

Hizkuntza ahula indarberritu edo biziberritu nahi duenak oso gogoan izan behar du oinarri fisiko eta demografiko hori. “Gure kultura jatorra” aldarrikatu eta aurrera atera nahi izateak ez du ezer askotarako balio, helduleku fisiko eta demografikorik ez badago edo, han-hemen egonik ere, aintzakotzat hartzen ez bada. Berriro gurera etorritz, galdera hauetatik abiatu behar da lekuan lekuko dislokazio fisiko-demografikoaren zabala eta sakona neurtzeko:

...

Euskaldunak euskaldunekin euskal giro sendoan bizi diren lekuetan, gurasoen hizkuntza belaunez belaun eskuratzen den lekuetan, hizkuntza-plangintzarik eta inolako interbentzio berezi (zenbaitentzat “xelebre”)-rik gabe diharduten ingurumenetan, horietan dago euskara bizien. Hor du euskarak osasunik hoberena. Hori da euskal arnasgune petoa, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa bere betean (beste leku gehienetan baino askoz nabarmenago) segurtatzen duena.

Aparteko antolamendurik gabe ikasten dute horietan haur txikiak bertako hizkuntzan. Hala ikasten dute hitz egiten. Lehenik hitz egiten eta gero, eskola eta abar lagun, irakurtzen, idazten eta bertan ahoz aho dabilen hizkuntza horren errejistro eta aldaera jaso, landu, formalizatuagoak erabiltzean. Hori da osasun oneko hizkuntzen belaunez belauneko jarraipen-bide normala, prototipikoa. Hori izan da euskararen mendez mendeko transmisio-bide nagusia ere, lehen zatia (etxeko eta auzoko hizkera bizia eskuratzeko bideari) dagokionez. Bigarrenean (errejistro formaleko, bereziki idatzizko lanketan eta garapenean) arras eskas eta ibili gara, ongi ezaguna denez.

Lehentasuna dute, horregatik, hizkuntzari bizirik eutsi nahi bazaio eta indarberritu egin nahi bada. Horiek dira, Fishman-en eta beste zenbaiten ustean, hizkuntza indarberritzeko saioaren abiaburu natural eta baliagarrienak. Hori gabeko normalkuntza ez da normalkuntza. Ingurumen horien zaintza-ardura bigarren edo hirugarren lehentasun-mailara daramana ere ez. (Zalbide,2008:7-9)

Honaino arnasguneen definizioa eta ezaugarrien laburbilduma. Sakonago aztertzeko jo M. Zalbideren lanetara.

Lehen esan dugu mintzaldaketa ez dela zoriz ematen, baizik eta motibo sozial jakinak dituela. Hori horrela da arnasguneetan ere. Ikus ditzagun, beraz, zeintzuk diren mintzaldaketa bultzatzen duten motibo horiek, laburki bederen. Honakoak dira M. Zalbidek aipatzen dituenak:

- ▶ **1.- Hizkuntza ahula erabiltzeko (are, defendatzeko) debekua**
- ▶ **2.- Hizkuntza ahula fisikoki eten-urratzea (dislokazio fisikoa)**
- ▶ **3.- Dislokazio demografikoa**
- ▶ **4.- Urbanizazioa, lurralde-antolamendua eta dislokazio soziokulturala**
- ▶ **5.- Dislokazio soziala: giza arteko eten-urratzea**
- ▶ **6.- Dislokazio kulturala**

1.- Hizkuntza ahula erabiltzeko (are, defendatzeko) debekua

Demagun, eskola-munduari dagokionez, XVIII. eta XIX. mendeetako eraztun-metodo zigorbidezkoa, edota 1902-03ko arauzko debeku zorrotzak. Debeku-kontua ez da eskola-munduan bakarrik aplikatu izan: beste zenbait jardun-esparrutan ere bada debeku-politikaren adibide mingarrik.

2.- Hizkuntza ahula fisikoki eten-urratzea (dislokazio fisikoa)

Gosetea, katastrofe naturalak eta norbaitek (beste herri batek edo beste pertsona batzuk) eragindako txikizioak (gerrak eta gerraondokoak, genozidioa, “scorched earth” edo “tierra quemada”-ko inbasio-politikak, mehatze- eta oihan-esplotazio neurrigabea eta, berrikitanago, airea, ura, lurra, fruitu-landareak, animaliak eta are gizakiak berak pozointzea,..

3.- Dislokazio demografikoa

A hiztun-elkartea (edo bertako A_i hiztun-taldea) dentsitatez eta kontzentrazioz nabarmen ahultzea. Hiztun horien kontzentrazioa nabarmen ahultzea eta, horren ondorioz, A hizkuntzako hiztunek A hizkuntzako beste hiztunekin eguneroko jardunean beren A hizkuntza horretan egiteko aukera edota beharra nabarmen gutxitzea. Hiru prozedura nagusik eragin ohi du gogorrenik dislokazio demografikoan: emigrazioak, immigrazioak eta jaiotze-kopuruen gainbeherak.

Motibo nagusiak horiek izanik ere, dislokazio demografikoa ez da berez hiru prozedura horietara (emigraziora, immigraziora, haur gutxi sortzera) mugatzen. Prozedura horiezaz gainera bada laugarren dislokazio-iturri bat ere, oso kontuan hartzekoa: urbanizazioa¹. Ondorio demografiko sakonak izan ohi ditu, askotan, urbanizazioak. Ordura arte baserri-giroan bizi izandako populazioa (baserritar-jendea) urbanizatzen denean (bizi izatera “kalera jaisten” denean), bizilekuz aldatze horrek ondorio nabarmenak izan ohi ditu bere bizimoduan. Bera ez bezalako jendearekin bizi behar izaten du handik aurrera: askotan beste hizkuntza batean egiten duen (eta hartan egitera behartzen duen) jendearekin. Eten eta urratu egiten dira, hainbatean, ordura

arteko bere ohiturak: egunero-egunero “bere hizkuntzan” egiteko ohitura, besteak beste.

4.- Urbanizazioa, lurralde-antolamendua eta dislokazio soziokulturala

Ez da hori, jakina, urbanizazioak berekin ekarri ohi duen eten-urratze bakarra. Dislokazio soziokultural sakona ekarri ohi du sarri, dislokazio demografikoaz gainera, bizi izatera baserritik kalera jaiste horrek. Dislokazio soziokultural hori bizimodu arruntaren alor gehienetan gertatzen da gutxi-asko: lanbidean, eguna eta astea partitzeko moduan, jan-edanean, janzteko moduan, astialdiko jolas-bideetan, hainbat uste-sinesmenetan, jakite kontuan eta, oro har, mundu-ikuskera osoan. Mundu-ikuskera osoan eta, askotan, eguneroko berbetan, eguneroko hizkeran. Beretzat ordura arte arrotzak ziren jende-moduekin tratatu behar izaten du aurrerantzean, batean ez bada bestean, kalera aldatu den baserritarrak: bere auzo berrian, lanean, eskolan, erosketak egiterakoan, garraio-bideetan, entretenimendu berrietan eta zeremonia publikoetan. Horrekin batera, lehen baino komunikazio trinkoagoa, ugariagoa izango du (baserrian jende gutxiago zuen hitz egiteko, ia beti solaskide berdina, eta zertaz hitz egin ere mugatuagoa zuen). Horrek guztiak, azken buruan, ondorio jakina dakar: herri-jakintzaren baitako, eta bere ordura arteko hizkuntzan sortutako, mezuen etengabeko gutxitzea eta ahultzea.

5.- Dislokazio soziala: giza arteko eten-urratzea

Gizarte (berri)aren ordainsari-sisteman hiztun-talde horretako kideak gero eta beste hizkuntzaren beharrago gertatzea. A hizkuntzako hiztunak, gizartean aurrera egingo badu, B hizkuntza ondo menderatu beharra eta, hainbat jardun-esparru eta hainbat harreman-saretan, ezinbestean B hizkuntzan jardun beharra.

6.- Dislokazio kulturala

Gizarte molde berriak eragindako lehen ez bezalako bizimoduak eta, oro har, modernizazioak berekin dakartzan berrikuntzak B hizkuntzaren indargarri eta A hizkuntzaren galgarri gertatzea. (Zalbide,2008:2-5)

Ikus ditzagun azkenik, arnasguneen oraingo egoeran M. Zalbidek aipatzen dituen zenbait ezaugarri.

- *Gazte euskaldunen emigrazioa*
- *Immigrazioaren goraldi berria*
- *Bilakaera ekonoteknikoa*
- *Bilakaera soziokulturala*
- *Familiak eta ingurumen hurbilak lehen baino babes-indar ahulagoa.*
- *Lurralde-antolamenduaren bilakaera*
- *Bide-sare berritua*
- *Hiriak gainezka egin du eta kanpora irten da.*
- *Industriaren kokaera berria*
- *Harreman-sare berriak (Zalbide,2008:17-21)*

Honaino arnasguneen kokapena eta ezaugarriei buruzko aipamen laburra. Atal bakoitza zehatzago eta sakonago landu beharko litzateke, baina biderik motzena eta zuzenena Mikel Zalbideren artikuluko horiek (biografian aipatzen ditudanak) irakurtzea da. Hemen horren laburpen xume bat besterik ez dut egin, gerora aztertuko ditugun

aldagaien argigarri. Edozein modutan, hemen aipagai izan dugun elementu asko adibide zehatz horiek aztertzerakoan ere azalduko zaizkigu.

Bukatzeko, laburbilduz, arnasguneen ezaugarri behinenak aipa ditzagun. Zer dute euskal arnasguneek nabarmen?

- a) Espazioa, lekua da, non euskaldunen kontzentrazio demografikoa, euskaldunen dentsitatea, handia den. Espazio, herri, eskualde edo dena delako espazio horretan, euskaldunak gehiengoa dira eta elkarren ondoan bizi dira, eta harreman-sare euskaldunak eratzen dituzte.
- b) Bertako biztanleen hizkuntza arrunta, eguneroko jarduera gehienen oinarri eta adierazbidea, euskara da.
- c) Euskara eta berari datxekion etnokulturaren transmisioa indarrean dago, naturaltasunez, ezer berezirik egin gabe, belaunez belaun transmititzen da.
- d) Hizkuntza-komunitate trinkoa da arnasgunea. Etxean ikasitako hizkuntza horren indargarri dira, arnasguneetan, kalea, lagunartea, auzoa...Herri-giro osoa da euskararen erabilerarako pizgarri.
- e) Arnasgunea ez da kontzeptu estatiko bat. Dinamikoa da. Etengabe aldatzen doan errealitatea da. Bertako bizi-moldean eragiten duten faktore batzuk indargarri izan daitezkeen bezala, beste hainbatek arnasgune horietako hizkuntza-bizitasuna ahultzea edota galbidean jartzea ekar dezakete. “Hizkuntza-bizitasuna” diogunean honako hau dugu gogoan: espazio fisiko jakin batean bizirik dagoela hizkuntza, eguneroko adieraz behar nagusietan; batez ere, ahozko jardueran, espazio fisiko horretako hitzunen artean. Norabide bakoitzean eragiten duten faktoreak sakonki aztertzea funtsezkoa da, horietan eragin nahi bada.

BIGARREN ATALA.

ARNASGUNE ZEHATZ BATZUEN BEHAKETA.

Zertan dira gure arnasguneak? Lehen atalean aipatutako aldagaietatik zeintzuk nabarmentzen dira gure arnasgune horietan? Noraino betetzen ari dira aztergai izan ditugun dislokazioak? Mikel Zalbidek egungo egoeran ikusten dituen arnasguneetako ezaugarriak noraino islatzen dira herriotan?

Horiek eta antzeko galderak dira lau herri (arnasgune) aztertu ondoren erantzuten saiatuko garenak, eta ondorioak ateratzeko baliatuko ditugunak.

Lehenik, eta eskola txikietako gunean abiatutako hausnarketan oinarrituz, Tolosaldeko hamabi herri euskaldunen datuak aztertuko ditugu hizkuntzari dagokionez. Datu horiek EUSTATetik hartuak dira. Datu horiek 2006.urte artekoak dira, handik aurrerako daturik ez dagoelako hizkuntzaren aldagaiei dagokienez EUSTATEko datu-basean. Edozein modutan, joerak ikusteko baliagarri direla deritzot. Azken urteetan joera hori areagotu egin den susmoa daukat. Horrez gain, aipatu hizkuntza-datuak 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren datuak direla. Hor egon daiteke alderatze txiki bat, baina joeretan ez du eragin nabarmenik eta, kasu honetan, joerak gehiago interesatzen zaizkigu, datuen pilaketa zehatza baino.

Gerora lau herri konkretu sakonago aztertzen saiatuko bagara ere, egoki iruditu zait ikuspegi orokorrago bat ere hartzea. Are gehiago, lehendik, eskola txikiek in egindako hausnarketa dela eta, datu-bilketa hori eta ondorio batzuk atereak genituela aprobetxatuz.

Herri horietako eskola txikiak genituen aztergai, baina eskola horiek herrietan kokatuak daude. Herri txiki eta euskaldunetan. Arnasguneak dira, edo izan dira orain arte behinik behin, bere gorabehera guztiekin. Hala ere, geroago, ondorioetan, zehatzago ikusiko dugu, aztergai ditugun herri horietatik zein diren arnasguneak bete-betean, zein dauden muga-mugan eta zein diren azken urteetan muga hori jada zeharkatzen ari direnak. Ondorioz, eskolak kokatuak zeudeneko herriak aztertu genituen. Izan ere, genioenez, herriko bilakaerak eragina du eskolan eta eskolak ere eragin dezake, neurri batean behintzat, herriaren bilakaeran.

Tolosaldeko gunean biltzen garen arren Goierriko bi herri ere agertzen zaizkigu, bileretan Tolosaldekoekin batera biltzen direnak.

Azter ditzagun, beraz, hamabi herri horietako datuak, hizkuntzarekin zerikusia duten esparruetan. Ekar ditzagun datuen koadroak eta datuetatik ateratako grafikoak: luze samar joko badigu ere hainbeste daturen dantzak, interesgarria deritzot ikuspegi orokor hori barneratzeko.

Beraz, ikus ditzagun Tolosaldeko eta Goierriko hainbat arnasguneren datu estatistiko batzuk

Herriz herriko datuak. Biztanleriaren datu gordinak eta beste datuak portzentajetan emanak. (Eustat-etik hartuak)

Udal informazioa						
	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Aduna						
___ Biztanleria guztira	364	333	311	296	351	333
___ Euskaldunak	80,22	85,29	89,71	96,28	91,17	86,19
___ Ia euskaldunak	11,54	8,41	5,14	2,36	3,42	7,21
___ Erdaldunak	5,77	0,60	3,54	1,35	2,56	3,60
___ Ama-hizkuntza euskara	78,57	90,39	91	96,28	91,45	-
___ Ama-hizkuntza gaztelania	18,41	7,81	8,36	2,36	7,12	-
___ Ama-hizkuntza biak	2,75	1,80	0,64	1,35	1,42	-
___ Ama-hizkuntza beste bat	0,27	0	0	0	0	-
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	59,62	82,88	83,60	95,61	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	19,51	7,51	7,40	2,03	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	20,05	9,61	9	2,36	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0,82	0	0	0	-	-

Udal informazioa						
	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Albztur						
___ Biztanleria guztira	290	287	296	303	316	324
___ Euskaldunak	85,86	94,43	96,28	97,69	97,78	96,91
___ Ia euskaldunak	5,86	3,48	1,01	1,65	0	0
___ Erdaldunak	4,48	0,35	0	0	0	0
___ Ama-hizkuntza euskara	86,55	94,08	98,99	99,67	100	-
___ Ama-hizkuntza gaztelania	10,34	4,88	0,68	0	0	-
___ Ama-hizkuntza biak	2,07	0	0	0	0	-
___ Ama-hizkuntza beste bat	1,03	1,05	0,34	0,33	0	-
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	66,55	91,29	97,64	99,01	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	11,38	3,48	1,69	0,99	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	22,07	4,88	0,68	0	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0	0,35	0	0	-	-

Udal informazioa						
	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Alkiza						
___ Biztanleria guztira	319	264	260	264	266	272
___ Euskaldunak	80,25	89,02	94,23	92,80	93,98	93,75
___ Ia euskaldunak	8,15	4,55	3,08	3,41	2,63	1,10
___ Erdaldunak	4,70	3,03	1,54	1,14	1,50	3,31
___ Ama-hizkuntza euskara	79	88,26	93,85	93,56	92,48	-
___ Ama-hizkuntza gaztelania	15,67	7,95	3,46	4,17	6,39	-
___ Ama-hizkuntza biak	3,13	2,27	2,31	2,27	1,13	-
___ Ama-hizkuntza beste bat	2,19	1,52	0,38	0	0	-
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	62,38	83,71	91,54	92,05	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	18,81	9,47	5,77	2,27	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	18,50	6,82	2,69	5,68	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0,31	0	0	0	-	-

Udal informazioa						
	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Asteasu						
___ Biztanleria guztira	1.438	1.290	1.192	1.205	1.284	1.320
___ Euskaldunak	75,59	81,24	84,82	82,99	83,33	82,12
___ Ia euskaldunak	12,10	9,53	7,05	5,48	5,84	2,27
___ Erdaldunak	7,37	5,35	5,96	9,54	9,19	12,95
___ Ama-hizkuntza euskara	71,42	77,83	82,89	81,83	83,26	-
___ Ama-hizkuntza gaztelania	22,88	17,98	15,86	16,27	13,08	-
___ Ama-hizkuntza biak	4,45	3,10	0,84	0,50	2,80	-
___ Ama-hizkuntza beste bat	1,25	1,09	0,42	1,41	0,86	-
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	54,31	70,70	79,36	77,68	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	26,15	18,99	15,94	19,25	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	19,12	10,08	4,19	2,74	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0,42	0,23	0,50	0,33	-	-

Udal informazioa						
	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Berastegi						
___ Biztanleria guztira	981	973	932	969	958	942
___ Euskaldunak	85,42	90,75	94,21	93,29	94,36	94,37
___ Ia euskaldunak	7,65	4,42	2,25	2,99	2,61	2,34
___ Erdaldunak	3,16	1,64	1,18	1,34	0,63	0,42
___ Ama-hizkuntza euskara	86,14	91,68	95,06	94,84	96,35	-
___ Ama-hizkuntza gaztelania	8,97	4,01	3,11	3,72	2,19	-
___ Ama-hizkuntza biak	3,47	2,16	0,86	1,24	0,94	-
___ Ama-hizkuntza beste bat	1,43	2,16	0,97	0,21	0,52	-
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	65,34	87,05	93,24	92,36	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	13,35	5,14	4,61	4,75	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	21,00	5,65	1,50	2,89	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0,31	2,16	0,64	0	-	-

Udal informazioa						
	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Berrobi						
___ Biztanleria guztira	576	566	565	603	594	612
___ Euskaldunak	76,22	78,62	79,29	79,60	79,46	71,24
___ Ia euskaldunak	9,03	7,60	9,20	1,16	2,53	5,88
___ Erdaldunak	10,94	10,95	8,85	16,75	16,67	20,59
___ Ama-hizkuntza euskara	69,10	72,08	74,51	76,62	77,27	-
___ Ama-hizkuntza gaztelania	26,04	22,97	21,24	20,33	20,37	-
___ Ama-hizkuntza biak	3,47	2,65	3,72	3,15	1,68	-
___ Ama-hizkuntza beste bat	1,39	2,30	0,53	0	0,67	-
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	51,04	61,31	68,32	72,47	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	29,69	23,50	20,71	19,24	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	19,10	13,96	10,97	8,29	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0,17	1,24	0	0	-	-

Udal informazioa						
	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Bidegoian						
___ Biztanleria guztira	471	427	421	441	498	532
___ Euskaldunak	84,08	92,51	92,40	92,97	94,98	95,30
___ Ia euskaldunak	7,43	3,98	4,04	2,27	1,61	3,20
___ Erdaldunak	4,46	0,70	1,66	2,95	1,61	3,20
___ Ama-hizkuntza euskara	83,23	92,27	93,59	92,97	95,38	-
___ Ama-hizkuntza gaztelania	14,01	5,62	4,99	5,90	3,01	-
___ Ama-hizkuntza biak	2,12	2,11	0,71	0,23	0,80	-
___ Ama-hizkuntza beste bat	0,64	0	0,71	0,91	0,80	-
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	66,88	90,87	91,92	89,34	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	16,99	6,09	4,28	8,39	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	15,71	2,81	2,85	1,36	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0,42	0,23	0,95	0,91	-	-

Udal informazioa						
	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Errezil						
___ Biztanleria guztira	619	615	639	677	746	762
___ Euskaldunak	88,53	95,28	96,09	96,31	95,17	94,23
___ Ia euskaldunak	5,65	1,30	1,25	1,92	0,67	3,28
___ Erdaldunak	2,58	0,16	0,63	0	1,21	0,52
___ Ama-hizkuntza euskara	89,18	97,89	98,44	98,28	99,20	-
___ Ama-hizkuntza gaztelania	7,59	1,46	0,63	1,18	0,80	-
___ Ama-hizkuntza biak	1,94	0,16	0,16	0,30	-	-
___ Ama-hizkuntza beste bat	1,29	0,49	0,78	0,15	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	67,21	94,15	96,09	97,34	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	10,66	3,25	3,29	1,33	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	21,97	2,60	0,63	1,18	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0,16	0	0		0,15	-

Udal informazioa						
	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Gabiria						
___ Biztanleria guztira	425	422	428	432	463	492
___ Euskaldunak	86,35	92,18	92,06	95,60	96,11	93,09
___ Ia euskaldunak	7,53	4,74	3,27	1,85	0,43	2,44
___ Erdaldunak	2,59	0,47	2,10	0,23	1,08	2,44
___ Ama-hizkuntza euskara	89,88	95,26	93,69	97,92	95,25	-
___ Ama-hizkuntza gaztelania	7,06	4,74	4,67	2,08	3,89	-
___ Ama-hizkuntza biak	1,41	0	1,64	0	0,43	-
___ Ama-hizkuntza beste bat	1,65	0	0	0	0,43	-
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	67,06	88,39	90,89	95,37	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	9,41	3,55	3,74	2,55	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	23,53	8,06	5,37	2,08	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0	0	0	0	-	-

Udal informazioa						
	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Ikaztegieta						
___ Biztanleria guztira	443	377	380	370	377	412
___ Euskaldunak	79,01	85,68	87,37	88,92	89,39	84,22
___ Ia euskaldunak	6,55	5,31	2,11	4,32	2,39	6,07
___ Erdaldunak	8,80	7,69	8,95	5,68	5,57	6,80
___ Ama-hizkuntza euskara	72,01	83,55	85,26	89,46	87,80	-
___ Ama-hizkuntza gaztelania	24,15	15,65	12,63	9,46	7,96	-
___ Ama-hizkuntza biak	3,16	0,80	1,84	1,08	4,24	-
___ Ama-hizkuntza beste bat	0,68	0	0,26	0	0	-
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	52,14	76,92	79,74	83,51	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	27,54	17,77	12,63	7,57	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	19,86	5,31	7,63	8,92	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0,45	0	0	0	-	-


Udal informazioa						
	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Lizartza						
___ Biztanleria guztira	604	581	644	697	732	809
___ Euskaldunak	84,11	90,53	95,81	96,84	96,45	94,68
___ Ia euskaldunak	9,27	4,65	2,02	1,29	1,50	1,24
___ Erdaldunak	4,30	2,07	0,78	0,86	1,09	2,10
___ Ama-hizkuntza euskara	79,80	89,67	96,43	95,70	96,17	-
___ Ama-hizkuntza gaztelania	13,25	6,71	2,64	3,16	2,60	-
___ Ama-hizkuntza biak	4,30	2,41	0,78	1,00	1,09	-
___ Ama-hizkuntza beste bat	2,65	1,20	0,16	0,14	0,14	-
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	62,75	86,57	92,39	92,25	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	16,89	7,06	2,80	3,30	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	19,21	5,68	4,81	4,45	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	1,16	0,69	0	0	-	-

Udal informazioa						
	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Zerain						
___ Biztanleria guztira	245	254	233	227	233	241
___ Euskaldunak	87,76	92,13	95,28	94,71	96,14	88,80
___ Ia euskaldunak	7,35	4,72	2,58	1,32	0,43	7,47
___ Erdaldunak	2,04	1,18	1,29	0,88	0,43	7,47
___ Ama-hizkuntza euskara	88,16	91,73	96,14	97,80	98,71	-
___ Ama-hizkuntza gaztelania	9,39	7,09	3,86	1,32	1,29	-
___ Ama-hizkuntza biak	1,63	0,39	0	0	0	-
___ Ama-hizkuntza beste bat	0,82	0,79	0	0,88	0	-
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	68,57	86,22	94,42	94,27	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	11,84	7,09	4,29	2,20	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	19,18	5,12	1,29	3,52	-	-
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0,41	1,57	0	0	-	-


Herriz herriko datuak grafikoetara ekarriak. (Datuak Eustat-etik hartuak)

ADUNA

		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Ama-hizkuntza.Euskara	96,28	91	90,39	78,57	
2	Ama-hizkuntza.Gaztelania	2,36	8,36	7,81	18,41	
3	Ama-hizkuntza.Biak	1,35	0,64	1,8	2,75	
4	Ama-hizkuntza.Beste bat	0	0	0	0,27	
5						
6						




		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Euskara	95,61	83,6	82,88	59,62	
2	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Gaztelania	2,03	7,4	7,51	19,51	
3	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Biak	2,36	9	9,61	20,05	
4	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Besteren bat	0	0	0	0,82	
5						




ALBIZTUR

		1991	1996	2001	2006	
1	 Ama-hizkuntza.euskara	99,67	98,99	94,08	86,55	
2	 Ama-hizkuntza.Gaztelania	0	0,63	4,88	10,34	
3	 Ama-hizkuntza.Biak	0	0	0	2,07	
4	 Ama-hizkuntza.Beste bat	0,33	0,34	1,05	1,03	
5						




		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	 Etxean erabiltzen den hizkuntza.Euskara	99,01	97,64	91,29	66,55	
2	 Etxean erabiltzen den hizkuntza.Gaztelania	0,99	1,69	3,48	11,38	
3	 Etxean erabiltzen den hizkuntza.Biak	0	0,68	4,88	22,07	
4	 Etxean erabiltzen den hizkuntza.Besteren bat	0	0	0,35	0	
5						




ALKIZA

		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Ama-hizkuntza.Euskara	93,56	93,85	88,26	79	
2	Ama-hizkuntza.Gaztelania	4,17	3,46	7,95	15,67	
3	Ama-hizkuntza.Biak	2,27	2,31	2,27	3,13	
4	Ama-hizkuntza.Beste bat	0	0,38	1,52	2,19	
5						




		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Euskara.	92,05	91,54	83,71	62,38	
2	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Gaztelania	2,27	5,77	9,47	18,81	
3	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Biak	5,68	2,69	6,82	18,5	
4	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Besteren bat	0	0	0	0,31	
5						




ASTEASU

		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Ama-hizkuntza.Euskara	81,83	82,89	77,83	71,42	
2	Ama-hizkuntza.Gaztelania	16,27	15,86	17,98	22,88	
3	Ama-hizkuntza.Biak	0,5	0,84	3,1	4,45	
4	Ama-hizkuntza.Beste bat	1,41	0,42	1,09	1,25	
5						




		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Euskara	77,68	79,36	70,7	54,31	
2	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Gaztelania	19,25	15,94	18,99	26,15	
3	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Biak	2,74	4,19	10,08	19,12	
4	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Besteren bat	0,33	0,5	0,23	0,42	
5						




BERASTEGI

		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Ama hizkuntza.Euskara	94,84	95,06	91,68	86,14	
2	Ama hizkuntza.Gaztelania	3,72	3,11	4,01	8,97	
3	Ama hizkuntza.Biak	1,24	0,86	2,16	3,47	
4	Ama hizkuntza.Beste bat	0,21	0,97	2,16	1,43	
5						




		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Euskara	92,36	93,24	87,05	65,34	
2	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Gaztelania	4,75	4,61	5,14	13,35	
3	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Biak	2,89	1,5	5,65	21	
4	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Besteren bat	0	0,64	2,16	0,31	
5						




BERROBI

		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Ama hizkuntza. Euskara	76,62	74,51	72,08	69,1	
2	Ama hizkuntza. Gaztelania	20,23	21,24	22,97	26,04	
3	Ama hizkuntza. Biak	3,15	3,72	2,65	3,47	
4	Ama hizkuntza. Besteren bat	0	0,53	2,3	1,39	
5						




		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Euskara	72,47	68,32	61,31	51,04	
2	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Gaztelania	19,24	20,71	23,5	29,69	
3	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Biak	8,29	10,97	13,96	19,1	
4	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Besteren bat	0	0	1,24	0,17	
5						




BIDEGOIAN

		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Ama-hizkuntza. Euskara	92,97	93,59	92,27	83,23	
2	Ama-hizkuntza. Gaztelania	5,9	4,99	5,62	14,01	
3	Ama-hizkuntza. Biak	0,23	0,71	2,11	2,12	
4	Ama-hizkuntza. Beste bat	0,91	0,71	0	0,64	
5						




		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Etxean erabiltzen den hizkuntza. Euskara	89,34	91,92	90,87	66,88	
2	Etxean erabiltzen den hizkuntza. Gaztelania	8,39	4,28	6,09	16,99	
3	Etxean erabiltzen den hizkuntza. Biak	1,36	2,85	2,81	15,71	
4	Etxean erabiltzen den hizkuntza. Besterenn bat	0,91	0,95	0,23	0,42	
5						




ERREZIL

		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Ama-hizkuntza. Euskara	98,38	98,44	97,89	89,18	
2	Ama-hizkuntza. Gaztelania	1,18	0,63	1,46	7,59	
3	Ama-hizkuntza. Biak	0,3	0,16	0,16	1,94	
4	Ama-hizkuntza. Beste bat	0,15	0,78	0,49	1,29	
5						




		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Euskara	97,34	96,09	94,15	67,21	
2	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Gaztelania	1,33	3,29	3,25	10,66	
3	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Biak	1,18	0,63	2,6	21,97	
4	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Besteren bat	0,15	0	0	0,16	
5						




GABIRIA

		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Ama-hizkuntza. Euskara	97,92	93,69	95,26	89,88	
2	Ama-hizkuntza. Gaztelania	2,08	4,67	4,74	7,06	
3	Ama-hizkuntza. Biak	0	1,64	0	1,41	
4	Ama-hizkuntza. Beste bat	0	0	0	1,65	
5						




		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Etxean erabiltzen den hizkuntza. Euskara	95,37	90,89	88,39	67,06	
2	Etxean erabiltzen den hizkuntza. Gaztelania	2,55	3,74	3,55	9,41	
3	Etxean erabiltzen den hizkuntza. Biak	2,08	5,37	8,06	23,53	
4	Etxean erabiltzen den hizkuntza. Besteren bat	0	0	0	0	
5						




IKAZTEGIETA

		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Ama-hizkuntza.Euskara	89,46	85,26	83,55	72,01	
2	Ama-hizkuntza.Gaztelania	9,46	12,63	15,65	24,15	
3	Ama-hizkuntza.Biak	1,08	1,84	0,8	3,16	
4	Ama-hizkuntza.Beste bat	0	0,26	0	0,68	
5						




		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Euskara	83,51	79,74	76,92	52,14	
2	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Gaztelania	7,57	12,63	17,77	27,54	
3	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Biak	8,92	7,63	5,31	19,86	
4	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Besteren bat	0	0	0	0,45	
5						




LIZARTZA

		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Ama-hizkuntza.Euskara	95,7	96,43	89,67	79,8	
2	Ama-hizkuntza.Gaztelania	3,16	2,64	6,71	13,25	
3	Ama-hizkuntza.Biak	1	0,78	2,41	4,3	
4	Ama-hizkuntza.Besteren bat	0,14	0,16	1,2	2,65	
5						




		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Euskara	92,25	92,39	86,57	62,75	
2	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Gaztelania	3,3	2,8	7,06	16,89	
3	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Biak	4,45	4,81	5,68	19,21	
4	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Besteren bat	0	0	0,69	1,16	
5						




ZERAIN

		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Ama-hizkuntza.Euskara	97,8	96,14	91,73	88,16	
2	Ama-hizkuntza.Gaztelania	1,32	3,86	7,09	9,39	
3	Ama-hizkuntza.Biak	0	0	0,39	1,63	
4	Ama-hizkuntza.Beste bat	0,88	0	0,79	0,82	
5						




		A	B	C	D	E
		1991	1996	2001	2006	
1	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Euskara	94,27	94,42	86,22	68,57	
2	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Gaztelania	2,2	4,29	7,09	11,84	
3	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Biak	3,52	1,29	5,12	19,18	
4	Etxean erabiltzen den hizkuntza.Besteren bat	0	0	1,57	0,41	
5						




ESKOLA TXIKIAK. 12 HERRITAKO DATUAK. Batez bestekoak


(Datuak Eustat-etik hartuak)




Eskola Txikiak. Herrietako datuak.Batez bestekoak			
	1991	2001	2006
Euskaldunak	92,33	88,97	82,78
1a euskaldunak	2,50	5,22	8,17
Erdaldunak	3,39	2,84	5,09




ESKOLA TXIKIAK. 12 HERRITAKO DATUAK. Batez bestekoak



Eskola Txikiak.12 herrietako datuak.Batez bestekoak			
	1991	2001	2006
Ama-hizkuntza.Euskara	92,91	88,72	81,08
Ama-hizkuntza.Gaztelania	5,82	8,90	14,81
Ama-hizkuntza.Biak	0,92	1,48	2,82
Ama-hizkuntza.Besteren bat	0,33	0,88	1,27



ESKOLA TXIKIAK. 12 HERRITAKO DATUAK. Batez bestekoak



	1991	2001	2006
Etxean-Euskaraz	90,11	83,34	61,99
Etxean-Gaztelaniaz	6,16	9,41	17,69
Etxean-Biak	3,62	6,72	19,94
Etxean-Besteren bat			0,39

DATUEN IRAKURKETA EGITEN

1.- Zer ezaugarri dituzte herri /eskola txikiek? Zer ezaugarri linguistiko dituzte, eta nolakoa da horien bilakaera ?

Eskola txikiei erreparatu aurretik, lehenago esaten genuen bezala, eta horien egitekoaz hausnartu aurretik, komeni da kokatuta daudeneko herri horien ezaugarriei, egoerari, arazoei eta garrantziari begiratzea. Izan ere, herriko bilakaerak eragina du eskolan eta eskolak ere eragin dezake herriko bizitzan.

Goazen bada, aztergai izan genituen herri horietako datuetan oinarriturik, arnasgune horien ezaugarri zenbait aipatzen hastera.

1.1. Biztanleria:

Aurreko tauletan 2006. urtera arteko datuak agertzen dira. Hain zuzen, datu demolinguistikorik ez delako agertzen urte horretatik aurrera. Horregatik, biztanleriaren datuak eguneratuagoak ditugunez, aurreko 12 herriko datuez gain, gerora aztergai izango ditugun Alegiako eta Amezketako datuak ere ekarri ditugu taula bateratu honetara. Biztanleriaren azterketa egiteko bego beraz taula hau:

Udal informazioa							
	2009	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Biztanleria guztira							
Aduna	425	364	333	311	296	351	333
Albiztur	291	290	287	296	303	316	324
Alegia	1.731	1.664	1.583	1.662	1.680	1.677	1.746
Alkiza	339	319	264	260	264	266	272
Amezketak	980	942	980	1.005	1.040	1.110	1.138
Asteasu	1.455	1.438	1.290	1.192	1.205	1.284	1.320
Berastegi	1.032	981	973	932	969	958	942
Berrobi	573	576	566	565	603	594	612
Bidegoian	521	471	427	421	441	498	532
Errezil	617	619	615	639	677	746	762
Gabiria	487	425	422	428	432	463	492
Ikaztegieta	461	443	377	380	370	377	412
Lizartza	656	604	581	644	697	732	809
Zerain	246	245	254	233	227	233	241

Biztanleei dagokienez nahiko herri txikiak dira: 300 eta 1500 biztanle artekoak. Gehienak 500 ingurukoak. Aztergai ditugun herri gehienek antzeko bilakaera izan dute. Biztanle kopurua gorabehera, Gaussen kanpai irudikatuko luke hobekien.

Erdialdean eroriago, bi ertzetan gorago. Hori bai, aski parabola laua du kanpai irauli horrek. Hau da, herri horietako gehienetan, 1981etik aurrera, kasu askotan lehendik zetorren bideari jarraituz, biztanleak beheraka joan dira, biztanleak galtzen joan dira, apal eta ozta-ozta bada ere. Beheranzko joera ikus daiteke kasu gehienetan, edota egonkor samarra gutxienik. Jaiotze-tasaren jaitsierak eta gazteen emigrazioak zerikusia izan du, besteak beste. Hogeitaz urtez, oro har, herri horiek txikitzen joan dira, biztanleak galtzen. Norabide hori 2001ean, eta bereziki, 2006an hasi da aldatzen. Hau da, biztanle berriak irabazten hasi dira, biztanle kopurua gora joan da kasu gehienetan edota egonkortzera egin du. Igoera hori ez da kasu guztietan modu berean gertatu. Kasu bakanetan, hazkunde nahiko azkarra eta handia izan da, beste batzuetan, oso apala eta txikia. Hazkunde horren aldagaiak begiratzerakoan, kontuan hartzekoak dira, batik bat, migrazio-saldoak eta urbanizazioa. Hau da, azken urteetan inmigrazioak, apal bada ere, gora egin du. Horretan, zerikusia izan du hainbat herritan eraiki diren etxeak, urbanizazioak. Ez da kasualitatea biztanleen gorakada izan duten herrietan, urte horietan, etxe berriak eraiki izana. Urtez urteko migrazio saldoak ikusi besterik ez dago, azken urteetan eman den gorakada ikusteko. Bestalde, jaiolekuaren arabera datuak ikusiz, beste probintziak eta atzerria dagokion ataletan, azken urteetan nabarmen igo da biztanleria. Horrez gain, Gipuzkoa barruko inmigrazioa ere izan da kasu batzuetan, hirietatik herri txiki horietara joan ohi dena. Kasu guztiak ez dira berdinak. Badira herriak gorakada nabarmena 1960ko hamarkadan izan zutenak, kanpotik etorritako jendeari esker, eta gero ez dutenak aldaketa handirik izan. Hots, egonkor xamar daudenak, Berrobi kasu.

Biztanlerian izan diren aldaketa horiek ez dira kopuru absolutuz oso handiak, kasu gehienetan nahiko herri txikiak baitira. Hala ere, portzentualki esanguratsuak dira eta eragina dute ordura arteko bizi-giroan. Gero ikusiko dugun bezala, eragina dute herri horietako ezaugarri soziolinguistikoetan.

1.2. Ezaugarri demolinguistikoen eta soziolinguistikoen bilakaera. (Ikus aurreko taulak eta grafikoak)

- Euskaldunen dentsitatea nahiko handia da: 2006ko datuen arabera % 83ren bueltan dabil. Edozein modutan azpimarratzeko da duela 15 urte (1991) % 92,5ekoa zela. Beraz, 15 urtetan % 10 egin du behera euskaldunen dentsitatea. Noski, herrien artean aldeak daude. Batzuetan portzentaje hori txikiagoa da, besteetan handiagoa. Hori bai, joera beheranzkoa da denetan. Oso adierazgarria da euskaldunen dentsitatea biztanleen datuekin erkatuz ikus genezakeena. Neurri batean, Gausse kanpaia ispilu gisa ateratzen zaigu. Hau da, pareko baina alderantziz. Biztanleak beheraka joan diren garaietan (1981etik 2001era, oro har ari gara ez zehatz-mehatz), euskaldunen dentsitatea mantendu egin da eta, kasu askotan, lehen urteetan gorakada txikia izan du. Aldiz, 1996tik aurrera, eta bereziki 2001etik aurrera, biztanleriak gora egin duenean, euskaldunen dentsitatea beherantz hasi da. Beherakada hori are nabarmenagoa izan da 2001etik 2006rako tartean. Lehen esan bezala, batzuetan beste % 10 jaisten da dentsitatea hori. Bost urtetan, alajaina, jaisten da euskaldunen dentsitatea, ordu arte urtetan, urte askotxotan, egonkor egon den dentsitatea. 1996an hasten den beherantzko joera hori asko azkartzen da 2001etik aurrera. Azken datuak 2006ak ditugu, eta ez dakigu beheranzko joera horrek jarraituko ote duen eta zein abiadan. Dentsitate jaiste horrek, horietako herri batzuk jada, arnasgune izaera galtzeko bidean jarri ditu, eta horietako batek edo bestek ez ditu jada arnasgune batek bete beharko lituzkeen baldintzak betetzen. Hau da, "*demographically concentrated*" delakoa galtzen ari da horrelakoetan. Izan ere, *demographically concentrated* horren muga % 80an jarriko bagenu, nahiz eta

jakin muga hori jartzea hipotesizko erabaki operatiboa besterik ez dela, Berrobik, adibidez, aspaldi xamar galdua luke arnasgune izaera hori. Hala ere, kontuz hartu behar da banatze-lerro hori. Ezin du izan, besterik gabe mugarri zurruna. Erreferentzia moduko bat hartzeko tresna bezala har genezake. Izan ere, herri barruko euskaldun-erdaldun distribuzio espaziala, interakzioen nolakotasuna, maiztasuna eta antzeko aldagaiak ere kontuan hartu beharko baitira arnasgune baten izaera aztertzeko. Ez dago, beraz, muga zurrunik, etengabeko *continuum* batean arnasguneak ahulduz, gesalduz joan daitezke edota indartuz. Arnasguneen izaera bizia da, dinamikoa. Dinamismo horren norabidea da kontuan hartu behar dena: ea arnasgune horiek indartuz doazen edota ahultzen ari diren. Hori kontuan hartuz, eta hipotesizko erabaki operatibo soila dela jakinik ere, har dezagun analisirako % 80ko mugarri hori. 2006ko datuen arabera eta neurtutako azken 5 urtetako beherakada kontuan, beste hiru herriek galduko lukete izaera hori (Asteasu, Ikaztegieta eta Alegia). Beste guztiak, oraingoz bederen, *demographically concentrated* hori, euskaldunen dentsitate maila, autodeklaratua dena den, % 80tik gora dute, beti ere beheranzko joeran. Batzuk oraindik nahiko sendo, beste batzuk muga-mugan.

- Erdaldunen dentsitatea, aldiz, oraindik nahiko txikia bada ere, goraka doa etengabe: % 3,39 (1991) eta % 5,09 (2006). Aldeak alde, denetan joera goranzkoa da. Noski, herrien artean aldeak daude. Hemen ere aipagarria da azken 5 urtetako jauzia. 2001 arte erdaldunen dentsitatea oso txikia izan da, kasu batzuetan hutsa. 2001ean hasi eta bost urtetan sekulako gorakada egiten du, portzentualki behintzat. Beraz, hemengo datuak ere korrelazio estuan azter daitezke biztanleen datuekin eta euskaldunen dentsitatearen datuekin.

- Ia euskaldunen kopuruak ere goranzko joera du: % 2,50 (1991), % 8,17 (2006). Kasu guztietan gertatzen da, gainera, hazkunde hori. Hemen ere, aztergai ditugun azken bost urteak esanguratsuak dira, hor gertatzen baitira jauzi handienak.

- Ama-hizkuntzari bagagozkio:

- Ama-hizkuntza euskara dutenen portzentajea beherantz doa: % 92,91 (1991ean) eta % 81,08 (2006an). Aldeak dauden arren, herri guztietako joera beheranzkoa da. Joera hori ez da gaurkoa. Azken 20-25 urteetan beheranzko joera ikus daiteke oro har. Gertatzen dena da, 2001eko urtera arte beheraka hori oso apala dela, ozta-ozta doala. 2001etik 2006ra, aldiz, beheraka hori oso nabarmena izan da. Jauzi bat dago. Kasu batzuetan % 10 inguruko beheraka. Bada zerbait, bost urtetan emateko.

- Ama-hizkuntza gaztelania dutenena: % 5,82 (1991ean) eta % 14,81 (2006an). Hemen ere, joera bera gertatzen da, aldeak alde, herri guztietan. Hau da, goranzkoa. Hemen ere, azken bost urtetan gertatzen da jauzi handiena. Goranzko joera aspalditik baldin badator ere, 2001era arteko joera piskanakakoa zen. Urtez urte goraka joan da herri horietan ama-hizkuntza gaztelania dutenen portzentajea, baina joera hori asko azkartu da azken bost urtetan. Jauzia eman da.

- Ama-hizkuntza biak dituztenena goraka doa era berean: % 0,92 (1991ean) eta % 2,82 (2006an). Joera bertsua herri guztietan. Hemen ere, jauzi handiena azken bost urteei dagokie.

- Ama-hizkuntza besteren bat dutenak agertzen hasi dira: % 0,33 (1991ean) eta % 1,27 (2006an). Oraindik oso portzentaje txikia da. Datozen urtetan eta immigrazioaren eraginez, portzentaje horiek nabarmen goraka joango direla pentsa genezake.

- Etxean egiten den hizkuntzari erreparatuz:

- Euskaraz egiten dutenak beheraka doaz, nabarmen, azken 5 urteotan: % 90,11 (1991ean) eta % 61,99 (2006an). Azken bost urteotan % 83,34 tik % 61,99ra pasa da. Azpimarratzekoa da beheranzko joera hori garbi ikusten dela 1996tik aurrera, baina oso nabarmen ageri dela, berriro ere, 2001etik 2006ko tarte horretan. Bost urte horietan sekulako beherakada ikusten da, beldurtzeko modukoa.

- Gaztelaniaz egiten dutenak nabarmen doaz goraka: % 6,16 (1991ean) eta % 17,69 (2006an). Azken bost urteetan, berriro ere, eta aurreko datu guztien ildotik, gertatu da jauzirik handiena: % 9,41etik % 17,69ra. Kasu guztietan ageri da gainera: herri guztietan, salbuespenik gabe. Batzuetan jauzi handiagoa besteetan baino. Hala ere, esan bezala, azken bost urtetan jauzi nabarmena guztietan.

Zein izan daitezke arnasguneetako gaztelaniazko jardunaren iturriak? Hauek izan daitezke horietako batzuk:

a) Bertako (EAEko edo Euskal Herriko, maiz probintzia bereko eta, agian, eskualde bereko) herriburu erdaldunduagoetako bikote gazteen naturara bueltatzeko joera.

b) Herriko seme-alaben elearteko nahas-ezkontzak.

c) Bikotekide bat erdal-elebiduna izatea.

d) Euskalki bitako bikoteak.

- Biak (euskaraz eta gaztelaniaz) egitea : % 3,62 (1991ean) eta % 19,94 (2006an) Batez ere hemen dago sekulako aldaketa. Nabarmena da azken bost urteetako jauzia: % 6,72tik % 19,94ra. Aurrekoaren ildo beretik kasu guztietan gertatzen da jauzi hori, gorakada hori. Pentsa genezake gorakada hori lehen euskaraz egiten zutenen bizkarretik eman dela. Lehen euskaraz egiten zen etxe batzuetan, goraka doan portzentajea, gaztelaniaz ere egiten hasi direla, lekua hartzen doala, habia egiten hasia dela. Nekez pentsa baikenezake lehen gaztelaniaz egiten zen etxeetan euskarari ere sarbidea eman zaionik, kasuak egon egon daitezkeen arren.

Bi hizkuntzen erabileraren gorakada hori (hamabost urtetan % 16,5 igo da batez beste) deskonpartimentazioaren adierazle nabarmena da. Deskonpartimentazioaren gertakari hori funtsezkoa da zer gertatzen ari zaigun interpretatzeko. Deskonpartimentazioa mintzaldaketaren atariko posible eta, sarri, probablea da. Bi hizkuntzen konpartimentazioa, diglosia egonkorra, apurtuz doa. Horren ordez, diglosiarik gabeko elebitasuna hedatuz doa. Hori, sarritan, mintzaldaketaren lehen urratsa izan ohi da.

- Etxean beste hizkuntzaren bat darabiltenena oraindik ia hutsa da: % 0,39 (2006an), immigrazio alofonoa (kasu honetan, euskara edo gaztelania ez den beste edozein erdara) txikia da arnasguneetan.

2.- Ondorioak:

2.1.- Arnasgune al dira, arnasgune izaten jarraitzen al dute, aztertutako 12 herri horiek eta gerora ikusi eta beraien datuak emango ditugun Alegia eta Amezketa, orain arte ikusitako datu demolinguistikoen argitara ?

Arnasguneak definitzean bi ezaugarri nabarmendu dira: *demographically concentrated and intergenerationally continuous space*. Ikus dezagun zer esan nahi den horietako bakoitzarekin. Mikel Zalbideren artikulu batera joko dugu berriro, bi kontzeptu horien ezaugarriez jabetzeko.

Bigarrena (intergenerationally continuous space) badakigu zer den: aitona-amonen hizkuntza bera ikasten dutela ilobek etxean, eta hizkuntza horretan jolas egiten dutela kalean, auzoan eta herrian beren kideko neska-mutilekin. Hor ere “nagusiki “ erantsi beharko genioke esaldi osoari, halako indeterminazio-puntu bat erantsiz. Baina, bere indeterminazio-puntua eta guzti, kontzeptua argia da erabat: Errezilen garantizatua dago, gaur-gaurkoz, intergenerational continuity hori;Algortan, aldiz, ez.

Lehenengoa (demographically concentrated space), berriz, nola definitu eta, batez ere, nola operatibizatu? Demagun, lehen hurbilketa moduan, udalerrika jardungo dugula eta, zentsoko (eta antzeko aztersaio demolinguistikoetako) datuetatik abiatuz,%80an jartzen dugula “ pasa/ez pasa “ arteko langa. Hots, demagun udalerri bateko euskaltasun –maila autodeklaratua % 80koa edo hortik gorakoa baldin bada arnasgunearen lehen baldintza ondo betetzat ematen dugula, eta hartara iristen ez bada arnasgune posibleen sailetik kanpora uzten dugula udalerri hori. (Zalbide,2008)

Bi irizpide horien arabera, eta oraingoz lehen irizpidea hartuta (*demographically concentrated*) % 80ko langa hori ez dute 4 herrik pasatzen eta bada muga-mugan dagoen baten bat ere. Lehen esan dugu muga-lerro hori hipotesiazko erabaki operatibo bezala hartu behar dela., ez modu zurrunean. *Continuum* bat dela jakinik ere, har dezagun lanerako muga hori. Hori horrela, adierazgarria da Berrobi izan ezik (horrek aspaldi xamar utzi zion arnasgune izateari lehen irizpide hori kontuan izanik) beste guztiek irizpide hori betetzen zutela 2001eko datuetan. 2006ko datuen arabera, aldiz, beste hiru herri kendu beharko genituzke zerrenda horretatik (Asteasu, Ikaztegieta eta Alegi). 2001etik 2006rako bost urtetan gertatu da jaitsiera hori. Asteasuk % 81,24ko euskaltasun–maila autodeklaratua zuen 2001ean. Bost urte beranduago, 2006an, % 75,59koa. Ikaztegietak % 85,68koa, 2001ean eta % 79,01koa, 2006an. Alegiak %82,75koa, 2001ean eta % 77,88koa 2006an. Beheraka azken 10 eta zehazkiago azken 5 urteetan azeleratu da gehien. Orokorra da bestalde, herri guztietan doa beheraka. Beheraka orokor horrek, gainera, zenbait herri mugan utzi ditu. Datu berriak ateratzean, ateratzen badira, zenbat herri gehiago izango ote ditugu hipotesiazko muga-lerro hori beheraka pasako dutenak? Hautagairik ez da falta zoritxarrez.

Gure lantxo honen helburua joerak aztertzea da. Beraz, Asteasu eta Alegi, lehen irizpide horren arabera, zehatzak izanda, ezin baditugu ere sartu arnasgune bezala, baliagarriak izango zaizkigu joera horien dinamikak eta bilakaerak aztertzeko. Horregatik, mantendu egingo ditugu arnasguneei buruzko hausnarketa honetan.

2.2.- Herri euskaldunak dira oro har aztertutakoak. Euskara bizirik dago eta bertako gehienek, euskaraz egiten jakiteaz gainera, egin egiten dute euskaraz. Hala ere, joera batzuk oso begi-bistakoak dira. Joera horiek gainera ia kasu guztietan gertatzen dira, batzuetan indar handiagoz, besteetan baino. Hala ere, guztietan norabide bera dute. Aztergai izan ditugun herrietako datu demografikoen eta soziolinguistikoen garapena eta norabidea oso dira antzekoak. Ez hori bakarrik: Tolosaldeko beste herri txikietako (Altzo, Baliarrain, Beizama, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Irura; Larraul, Leaburu, Orendain, Oresa...) datu demografikoen eta soziolinguistikoen azterketa eginez gero, esandakoa indartu egiten da. Kasu horietan ere, duten norabidea, aztergai izan ditugun herrietako bera da. Esandakoa indartu eta konfirmatu egiten dute. Norabide eta joera berak erakusten dituzte, modu nabarmenagoan kasu batzuetan besteetan baino, baina guztietan fenomeno bertsuak ikus daitezke

2.3.- Euskaldun aktiboen dentsitatea, etxetik euskaldun direnena eta etxean euskaraz egiten dutenena, beheraka doa. Nabarmenki azken 5 urteetan.

Euskaldunen dentsitate horrek, azken 5 urteetan izan du beheranzko jauzi handiena. Azken 10 urte aldera arte oso sendoak agertzen ziren herri horietako euskaldunen dentsitate-tasak, sekulako abiadan etorri dira behera azken 10 urtean eta, batik bat, azken 5 urtean. 1986an euskaldunen dentsitatea % 95 inguru zuten herri batzuk % 80 ingurura etorri dira 20 urte geroago (2006ko datuetan). Gauza bera esan genezake ama-hizkuntza euskara dutenen portzentajeari dagokionez, eta baita etxean euskaraz egiten dutenen portzentajeaz ere. Hiru aldagai horiek kontuan hartuta eta korrelazioa eginez, garbi samar ateratzen zaigu arnasguneen norabidea eta bilakaera nondik norakoa den. Arrazoiak arrazoi eta zergatiak zergati, begi-bistakoa da arnasguneetan gertatzen ari den galera, atzerakada, euskararen bizi-indarrari lotzen bagatzaizkio.

2.4.- Erdaldunen dentsitatea, ama-hizkuntza gaztelania dutenena eta etxean gaztelaniaz edo bietara egiten dutenena, goraka doaz. Nabarmenki azken 5 urteetan. Azpimarratzekoa da, duen garrantziagatik (kontuan izan hizkuntza baten egoera eta gizarte-moldaera erabilerak markatzen duela, ez hainbeste ezagutzak) etxean gaztelaniaz edo bietara egiten dutenak batuz % 37,63an kokatuko ginatkeela. Horrek, sekulako eragina du luzarora, hizkuntzen ukipenezko egoera horretan.

2.5.- Euskara hutsezko jarduna galduz doa etxe-giroan, eta elebikoa zabaltzen ari da bere ordainean. Ez da, gainera, datu horietan bakarrik ikusten hori. EGAko azterketa egitera joaten diren ikasleei egindako galdeketetan, etxeko erabilerak dela eta, joera hori bera nabarmentzen da. (Ikus Mikel Zalbideren “*Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. (Zalbide, 2010: 139-143). Joera hori ez da berria gainera.

Fenomeno horrek sekulako garrantzia du, alde askotatik begiratuta. Hizkuntza transmisioa litzateke lehena. Hizkuntza baten biziraupenak etxeko transmisio horretan du indar behinena. Are gehiago hizkuntza minorizatua denean. Transmisio horren sendotasuna ez ote du zalantzan jartzen joera berri horrek? Ukipenean dauden hizkuntzak erabiltzeko nahaste-borraste horrek zer nolako ondorioak izan ditzake transmisio horren zabalean eta sakonean? Joera horrek zein hizkuntza indartzen du, gizartean nagusi dena edo egoera minorizatuan dagoena? Zer esan hizkuntza bakoitzaren prestigioan izan dezakeen eraginaz, kideen eredu-izaeraz? Ez al dugu bada sarritan ikusi hainbat etxetako bilakaera. Kide berriren bat etorri, inkorporatu familia girora, euskararen ezagutzarik gabe eta urte gutxian etxeko giro horretan gertatzen den

bilakaera zein izan den? Bego oraingoz honetan, baina gertakari horren garrantzia begi-bistakoa da eta bilakaera horri jarraipena egin eta aztertzea beharrezkoa litzateke, ondorioak ateratzeko.

Bada atal honetan funtsezko garrantzia duen gertakari bat. Deskonpartimentazioaren fenomeno da hori. Bi hizkuntzen arteko deskonpartimentazioa, hain zuzen. Lehen esan bezala, mintzaldaketaren atariko izan daitekeen lehen urratsa. Deskonpartimentazio horren eragina izugarria da, aztergai izan ditugun arnasgune horietan. Kasu askotan % 20aren inguru hazi da azken hamabost urteetan. Gertaera horri ez diogu ematen behar adinako garrantzirik. Arnasgune horiek elebitasun zabal eta oinarritzko diglosia eredutik diglosiarik gabeko elebitasunera ari dira pasatzen. Hortik mintzaldaketara tarte txikiagoa dago.

Etxean erabiltzen diren hizkuntzak direla eta, sintesi modura, aztertutako herri guztietako bilakaera grafikoki adierazten duen taula batera ekarri ditugu, gorago herriz herri ikusitako datuak. Ikus ditzagun bada datu kezkagarri horiek.

Hizkuntza-erabilera. 1991etik 2006ra arteko bilakaera. (15 urte) EUSTATEko datuak oinarri.

Herria	Etxean egiten den hizkuntza euskara	Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	Etxean egiten den hizkuntza biak
Aduna	- % 35.99	+ % 17.48	+ % 17.69
Albiztur	- % 32.46	+ % 10.39	+ % 22.07
Alkiza	- % 30	+ % 16.54	+ % 12.82
Asteasu	- % 23.37	+ % 6.9	+ % 16.38
Berastegi	- % 27.02	+ % 8,6	+ % 18,11
Berrobi	- % 21.43	+ % 10.45	+ % 10.81
Bidegoian	- % 22.5	+ % 8.5	+ % 14.5
Errezil	- % 30.13	+ % 9.33	+ % 20.79
Gabiria	- % 28.31	+ % 6.86	+ % 21.45
Ikaztegieta	- % 31.37	+ % 19.97	+ % 10.94
Lizartza	- % 29.5	+ % 13.59	+ % 14.76
Zerain	- % 25.5	+ % 9.5	+ % 15.5
Alegia	- % 19.56	+ % 5.19	+ % 14
Amezketza	- % 22.38	+ % 5.46	+ % 16.79
Batez beste	- % 27.11	+ % 10.63	+ % 16.19

Ez dakit datu horietan errore tarte handia edo txikia dagoen. Badakigu datu horiek datu aitortuak direla. Hala izanik ere, joera oso garbi ikus daiteke. Herri guztietan ematen da gainera joera bera, eta portzentaje bertsuetan. Biztanle gutxi dituzte herri horiek, eta biztanle gutxi batzuk protzentaje horietan eragin handi samarra izan dezakete. Hori horrela izanda ere, datu horiek kontuan izanik, joera horren argitara, sekulako lurrikara gertatzen ari dela esan genezake. Gainbehera dator, konpartimentazio sozio-funtzionala. M. Zalbidek sarritan esaten duen bezala diglosiarik gabe ari gara geratzen. Datu horietan, garbi agertzen da deskonpartimentazioak duen bilakaera. Partez elebiko deskonpartimentazioa eta partez mintzaldaketa ari da gertatzen. Hau da, datu

guztietatik lazgarriena. Funtsezkoa da fenomeno horri aurre egitea, euskararen bizindarra mantendu eta bizkortu nahi badugu.

2.6.- Oso apal bada ere, euskaraz edo gaztelaniaz aparteko hizkuntzak agertzen hasi dira arnasguneetan, ama-hizkuntzan edo etxean egiten den hizkuntzari dagokionez. Datu hori, bat dator biztanleen jaiolekuarekin: hots, jaioleku hori atzerrian dutenen datuekin. Korrelazio bat ikus daiteke.

2.7.- Familiak eta ingurumen hurbilak lehen baino babes-indar ahulagoa du euskara hutsezko bizimoldeari eusteko. Iragazgaiztasun handiagoa du kanpoko aldagaiekin, gerora aztertuko ditugun arrazoiengatik.

2.8.- Azken hamarkadetan (eskola euskaraz izanagatik) izandako aldaketek (ikus datuak) ez dute indartu arnasgune izaera hori. Aitzitik, trinkotasun hori ahultzea ekarri dute (ikus goiko datu demolinguistikoak eta sozio-funtzionalak).

2006.URTE ARTEKO BILAKAERA ETA 2011KO V. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAREN DATUAK.

Orain arte ikusi ditugun datuak 2006.urte artekoak izan dira. Zer gertatzen da hortik aurrera? Zertan da, gaur egun, hainbestetan hizpide izan dugun beheranzko joera hori? Lan hau bukatu samarra geneukanean argitaratu ziren V. Inkesta soziolinguistikoko emaitzak eta ondorioak. Bestalde, emaitza horiek orokorrak dira, ez herriz herrikoak. Hala ere, emaitza horiek aztertu ditugu bilakaeraren norabidea ikusten lagunduko digutelakoan. 2011ko datuek joera hori berretsi egiten al dute ala azken bost urtetan noranzko horretan aldaketarik sumatzen al da?

Galdera horiei erantzuteko aztergai izan ditugun herri horietako datuak beharko genituzke. EUSTATEko datuak, konparazioa zehatzagoa izateko. Baina datu horiek ez dauzkagu oraindik eskura. Dauzkagunak, V. inkesta soziolinguistikoarenak dira. 2011n egindako inkesta da. Ondorioz, nahiko eguneratuak eta baliagarriak izan daitezkeenak, neurri batean behinik behin. Inkesta soziolinguistikoko horrek 4 gune soziolinguistikotan banatzen ditu EAEko herriak, euskaldunen portzentajearen arabera. Guri dagokigunez, 4. gune soziolinguistikoko datuak interesatzen zaizkigu. Hain zuzen, euskaldunen portzentajea %80tik gorakoa duten herriena. Hor kokatzen baitira aztergai izan ditugun herri gehienak. Beraz, datu orokorrak, gune soziolinguistikoaren arabera, baditugu eta emaitzen ondorioak ere bai, baina ez herriz herriko datuak. Horiek beranduago izango ditugu. Hala ere, kontuan izanik, aztergai izan ditugun herriak 4. gune soziolinguistikokoan sartzen diren herriak direla eta V. Inkesta soziolinguistikoko 4. guneako datuak baditugula, nolabaiteko konparaketa egin daiteke, nahiz eta ondorioak ateratzerakoan oso kontuz ibili beharko dugun. Izan ere, zenbait aldagai, oso kontuan hartzekoak baitira. Adibidez:

- a) Guk aztergai izan ditugun herriak 4. gune soziolinguistikoko herri euskaldunenetakoak dira.
- b) V. Inkesta soziolinguistikoak EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleak ditu aztergai. Guk EUSTATEko datuetatik 2 urtetik gorako biztanleak hartu ditugu.
- c) EUSTATEk datuak emateko erabiltzen dituen sailkapen kategoriak ez datoz guztiz bat V. Inkesta soziolinguistikoko datuetan ditugun sailkapen kategoriekin.

Aldagai horiek oso kontuan hartuz, beraz, egin beharko dugu datuen arteko konparazioa.

2006. urte arteko bilakaera aztertu dugu orain arte. Konpara ditzagun, orain, gorago aipatutako aldagaiak kontuan izanik, eta horrek eskatzen duen tentu guztiarekin, 2006eko eta 2011ko datuak. Datu esanguratsuenak taula batera ekarri ditugu, argigarriago izan dadin.

2006-2011 konparazioa egiteko taula

Herria	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak	Ama-hizkuntza euskara	Ama-hizkuntza gaztelania	Ama-hizkuntza biak	Etxean egiten den hizkuntza euskara	Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	Etxean egiten den hizkuntza biak
2006ko datuak. Datuak %tan adieraziak									
Alegia	77.88	12.32	6.31	70.13	23.62	5.11	52.94	26.14	20.55
Amezketak	90.02	4.35	1.80	89.60	6.48	3.50	71.95	7.96	19.96
Asteasu	75.59	12.10	7.35	71.42	22.88	4.45	54.31	26.15	19.12
Berastegi	85.42	7.65	3.16	86.14	8.97	3.47	65.34	13.35	21
Batez beste lau herritan	82.78	9.11	4.66	79.32	15.49	4.13	61.14	18.40	20.16
Eskola txikiak batez beste	82.78	8.17	5.09	81.08	14.81	2.82	61.99	17.69	19.94
2011ko datuak. Datuak %tan adieraziak									
V.inkesta soziolinguistikoa 2011ko datuak 4. gune soziolinguistikoa	Euskal elebidunak (53,2) + elbidun orekatuak (23,1)	Erdal elebidunak (7.7) + elebidun hartzaileak (8)	Erdaldunak	Lehen hizkuntza euskara (EAE)	Lehen hizkuntza gaztelania	Lehen hizkuntza biak	Beti euskaraz	Beti erdaraz	Euskaraz gehiago (9) + euskaraz erdaraz beste (8)+erdaraz gehiago (8)
	76.30	15.7	8	69.1	21	9.9	58	17	25

Lehen begiratu batean, badirudi erdarazko jarduerak aurrera egin duela eta euskarazkoak atzera. Horrezaz gainera indartuz doa, antza, deskonpartimentazioa eta horren bidelagun den elebiko jarduera. 2011ko datu konparagarriak eskuratzen ditugunean ikusi beharko da, nolanahi ere, joera hori benetakoa den, edota, aitzitik, nabarmenak diruditen alde horiek laginaren bestelakotasunak eragindakoak diren.

Laburbilduz esan, konparatutako datuen arabera, esandako aldagaiak kontuan hartuta ere, badirudiela beranzko joera mantendu egiten dela. Ildo horretatik, beratik, ulertu behar dira V. Inkesta soziolinguistikoko ondorio nagusietako batzuk: *“Euskararen erabilerak gora egin du apurk-apurka EAEko hiru lurraldeetan eta lehenengo, bigarren eta hirugarren gunen soziolinguistikoetan. **Laugarrenean, aldiz, behera egin du euskara erabiltzen dutenen portzentajeak. Beherakada horren atzean azken urteotan hirigune erdaldunaqotik gune euskaldunetara bizitzera joan direnen hizkuntza-ezaugarriak daude**”* (azpimarra nirea). (Eusko Jaurlaritza, 2012:5)

Bestalde, lan honi zuzenketak egiten ari ginenean eman ziren argitara hizkuntzen kale-erabileraren VI. Neurketaren (2011) emaitzak. Emaizta horiek ere, orokorregiak dira gure arnagune horietako datuekin konparatzeko eta ondorioak ateratzeko. 4. gune soziolinguistikoaz ari denean, honako erreferentzia egiten du ondorioetan: *“Azkenik, biztanle gehienek (% 75 eta % 100 artean) euskaraz dakiten zonaldeetan, entzundako hitzunen % 66 inguru euskaraz ari ziren. Hiru puntuko igoera izan du erabilerak 1993tik hona”* (Kale-erabileraren VI. Neurketa. 2012)

Erabilera indize horiek zehatzago aztertu eta parekatu beharko genituzke. Gertuagoko informazioa, herri-molde horietako datuak, beharko genituzke kontraste lana egiteko. Edozein modutan, erreferentzia horiek ere ez dute aipatu dugun joera hori ezezten. Aldiz, badirudi berretsi egiten dutela.

AZTERGAI DITUGUN LAU HERRI HORIETAKO DATUAK

12 herritako datuak ikusi ditugu honainokoan, zeharka beste bi herritako erreferentziak erantsi baditugu ere. Orain arteko datu demolinguistikoek nahiko argi iradokitzen dute herri horietako joera eta bilakaera zein den. Arnasgune horiek ez dira indartzen ari. Aitzitik, beren arnasgune izaera hori ahulduz doala ondoriozta liteke, ikusitakoak ikusita. Horien osagarri beste hainbat datu biltzea eta aztertzea komeni da, ahal den neurrian. Eskura izan ditzakegun tresnak eta baliabideak aprobetxatuz, beste ertz batzuetatik begiratzea. Horretarako, lau herri zehatz hartuko ditugu hemendik aurrera aztergai. Lau herri horietan, datu demolinguistikoez gain, ikasleen, gaztetxoek, beste hainbat alderdiri begiratuko diogu. Hautatutako lau herri horien artean, aurreko multzo horretakoak dira bi (Asteasu eta Berastegi) eta beste bi hor agertzen ez direnak, baina beraien ezaugarriengatik, eta egin nahi dugun lanerako adierazgarriak izan litezkeelako (Amezketeta eta Alegia). Bi herri, ikusitako datuen eta erabilitako irizpideen arabera, arnasgune sendoak, edo sendoagoak behinik behin, ditugu (Amezketeta eta Berastegi). Beste biak (Asteasu eta Alegia) oraintsu arte arnasguneen zerrendan sartuko genituzkeenak eta gaur egun zerrenda horretatik kanpora utzi beharko genituzkeenak, aipatutako datuak eta irizpideak aplikatuko bagenitu. Lehen esan dugun bezala, mugari zurrin hori aplikatzea ez da batere egokia, baina hipotesiekin lan egiteko hartzen dugun zedarri bat da. Arnasgune batek ez dio uzten arnasgune izateari muga-lerro baten gorabehera. Hori baino askozaz konplexuagoa da kontua. *Continuum* bat da. Esan nahi duguna da, lehen begiradan behintzat, aztergai ditugun bi herri arnasgune izaera sendoagoa dutela beste biak baino, euskaldunen datu demolinguistikoen aldagai hori kontuan hartuz gero. Hala ere, gure xederako, gure hipotesietarako komeni zaigu bai biztanlez, bai bilakaeraz, bai euskaldunen dentsitatez etab. ezberdinak diren herriak hautatzea, norabideak eta joerak pareka daitezkeen aztertzeko.

Lau herri horietako ikasle multzo batzuk izango ditugu gerora aztergai.

Aurreko multzoan ikusi ditugu Asteasuko eta Berastegi datuak. Orain beste bi herrietako hainbat datu ekarriko dugu hona, azterketa horretara pasa aurretik. Aipamen soilean geratuko gara. Izan ere, joerak berdinak dira horietan ere.

Alegiko eta Amezketa datuak. Biztanleriaren datu gordinak eta beste datuak portzentajetan emanak. (Eustat-etik hartuak)

	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Alegi						
___ Biztanleria guztira.	1.664	1.583	1.662	1.680	1.677	1.746
___ Euskaldunak	77,88	82,75	83,45	81,67	82,77	76,69
___ Ia euskaldunak	12,32	9,41	8,36	9,58	7,69	11,68
___ Erdaldunak	6,31	5,18	6,32	6,73	7,63	9,05

	2006	2001	1996	1991
Alegi				
___ Ama-hizkuntza euskara	70,13	75,17	75,93	75,95
___ Ama-hizkuntza gaztelania	23,62	19,65	18,71	20,95
___ Ama-hizkuntza biak	5,11	4,86	5,11	2,92
___ Ama-hizkuntza beste bat	1,14	0,32	0,24	0,18

	2006	2001	1996	1991
Alegi				
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	52,94	71,13	70,40	72,50
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	26,14	20,21	17,45	20,95
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	20,55	8,59	11,43	6,55
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0,36	0,06	0,72	0

	2006	2001	1996	1991	1986	1981
Amezketak						
___ Biztanleria guztira.	942	980	1.005	1.040	1.110	1.138
___ Euskaldunak	90,02	93,37	91,64	96,44	95,23	95,25
___ Ia euskaldunak	4,35	3,06	4,68	2,69	1,44	2,28
___ Erdaldunak	1,80	1,12	1,39	0	0,63	0,53

	2006	2001	1996	1991
Amezketak				
___ Ama-hizkuntza euskara	89,60	92,55	95,82	96,63
___ Ama-hizkuntza gaztelania	6,48	5,20	3,18	2,12
___ Ama-hizkuntza biak	3,50	1,94	0,90	1,25
___ Ama-hizkuntza beste bat	0,42	0,31	0,10	0

	2006	2001	1996	1991
Amezketak				
___ Etxean egiten den hizkuntza euskara	71,95	90,20	90,85	94,33
___ Etxean egiten den hizkuntza gaztelania	7,96	4,69	4,98	2,50
___ Etxean egiten den hizkuntza biak	19,96	5,10	4,18	3,17
___ Etxean egiten den hizkuntza besteren bat	0,11	0	0	0

Beude aipamen soilean bi herri horietako datuak. Aurrean aipatu ditugun ondorio bertsuak aterako genituzkeelako horien azterketatik. Joera bera ikus daiteke. Gorago aztergai izan ditugun 12-14 herrietako fenomeno bertsuak agertzen dira bi horietan ere.

NAGUSITASUN-MOLDAERA LAU HERRI HORIETAKO IKASLEEN ARTEA. GELA-ARGAZKIAK

“Eskola euskaraz izanagatik” aipatu dugu aurreko lerroetan. Begirada bota diezaiogun beraz, datu demolinguistikoen osagarri, azterketarekin jarraituz, ikasleen hizkuntza erabilerari. Atera diezaiogun argazkia ikasle horien mintza-jardunari. Zenbat eta non erabiltzen duten euskara. Belaunaldi berriak dira, arnasgune horietan sortuak, bertan bizi direnak, euskarazko ereduetan hezten ari direnak. Arnasgune horien etorkizuneko zutabeak.

Argazki hori egiteko erabiliko dugun tresna gela-argazkia deritzona da. Aplikazioa bihurtuta dago eta Ulibarri programan dauden ikastetxe guztiak eskura dute, nahi dutenean erabilgarri. Ikus dezagun bada zein ezaugarri dituen gela-argazkia deritzon tresna horrek. Besterik gabe, Ulibarri programak sarean dituen argibideak eta azalpenak, bere horretan, hona ekarriko ditugu.

Zer da gela-argazkia?

Izenak berak aditzera ematen duen moduan, ikasgelaren argazki moduko bat egiteko tresna da gela-argazkia. Ikasleen mintzajarduna zer-nolakoa den azaldu nahi du. Mintzajardun nagusiaren argazkia egin nahi du, labur eta zehatz.

Argazki horrek **oinarri teoriko** jakinak ditu: mintzajardunaren aldakuntza-iturrien arabera azterbidea batetik (ikus, esate baterako, Fishman-en *Language Loyalty in the United States*, 1966, 437. or.), eta Colin Baker-en ele biko nagusitasun-moldaera bestetik (ikus, bereziki, bere 1993ko *Foundations of Bilingual Education and Bilingualism*, 19-23. or.). Oinarri horietatik eta beste zenbaitetatik abiatuz prestatu zuen Mikel Zalbidek, 2004an, esku artean duzun aztermoldea.

Mintzajardunaren **aldakuntza-iturrien azterketa** hori hizkuntza-soziologiaren oinarrietako bat da. Gizabanakook jarduera modu bat edo beste agertu ohi dugu ele biko ingurumenetan, zer adierazpidez ari garen, zer hedabidez, zer situaziotan eta zer jardun-gunetan. **Adierazpideak** hiru dira nagusiki: hitz egitea, irakurtzea eta idaztea. Hedabideen sailean berariaz aztertzen dira, bestalde, barne-gogoeta, besteren azalpenak jasotzea eta besteri, hitzez edo idatziz, zerbait azaltzea. Situazioei dagokienez berariaz tratatzekoak dira, hurrenik hurren, **situazio formalak** (hizkera jaso, landua, jendaurreko hizkera edo idazkera zaindua), **informalak** (kolokialak) eta **intimoak** (lagun minekikoak). Jardun-guneek (eta bertako rol-harreman adierazgarrienek) konfiguratu dute, azkenik, aldakuntza-iturri nagusia: hitz egiterakoan, irakurtzerakoan edo idazterakoan ez dugu berdin jokatzeko, ezinbestean, etxean eta kalean, eskolan eta astialdian. Ikasleen mintzajarduna ere aldakuntza-arau jeneral horien ildora biltzen da sarri. Bidezkoa da, hortaz, ikasleen mintza jarduna goiko patroia jeneral horren arabera aztertzea.

2004ko **Eskola Hiztun Bila** jardunaldian aurkeztu zen, esan bezala, eredu konkretu hau. Han landutako kontzeptuak eta prozedurak hainbat ikasgelatan aplikatu ziren, eta aski emaitza argigarriak eskuratu. Euskara Zerbitzuan landu zen horretarako aplikazio-tresna. Aplikazio horri gela-argazkia esan diogu, harrez gero.

Zer egiten du gela-argazkiak?

Gelako ikasleek beren jardun-gune nagusietan, batez ere euskaraz, batez ere erdaraz edo bietara egiten duten azaltzen du gela-argazkiak. Ikasleen mintza jardunaren azterketa egiten du, aldakuntza-iturri nagusien eta kasuan kasuko rol-harreman esanguratsuenen arabera.

Ikasgelaz kanpoko jardun-guneetan ikasleek eta beren han-hemengo salaskideek euskaraz ala gaztelaniaz diharduten erakusten digu gela-argazkiak, aski era grafikoan. Gela barruan irakasteredu berbera izanik ere, oso argazki diferentea izan dezakete ikastetxe bateko edo besteko ikasleek. Modu grafikoan, kolore bidez, alegia, aditzera ematen du gela-argazkiak kasuan kasuko egoera konkretua. (Eusko Jaurlaritza.Ulibarri.info)

Gela-argazkia zer den argitu ondoren, ikus ditzagun lau herri horietako gela batzuetan egindako argitze-lanak. Lehenago esana dugun bezala Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxetan (4., 5. eta 6. mailetan) eta DBHko ikastetxe bateko 4 gelatan (2. eta 4. mailetan) egin dira gela-argazkiak. Guztira 14 gelatan egin da gela-argazkia.

Ikus ditzagun bada, ikasle horien, gela horietako ikasleen, mintzajardunaren ezaugarriak, hitzez eta idatziz, nolakoa den beren jardun-gune nagusietan. Hots, nagusitasun-moldaera azter dezagun. Zein hizkuntza nagusitzen da beren ohiko mintzajardun horietan ?

Sei jardun-gune aukeratu dira eta horietaz galdetu zaie. Jardun-gune bakoitzean, noski, hainbat rol-harreman joka ditzakete eta horietako bakoitzaren nagusitan-moldaerazko taula azter daiteke. Hori da hain zuzen lau herrietako hamalau ikasgeletan egin dena. Hona hemen, gela argazkietan agertuko zaizkigun jarduera-guneak eta rol-harremanak, bakoitza bere kodearekin.

Oharra: ez gara hemen luzatuko jarduera-guneak, rol-harremanak etab. zer diren gehiago zehazten. Gela-argazkia zer den azaltzean, neurri batean aipatuak daudelako. Kontzeptu horiei buruz zehaztasun gehiago nahi lukeenak jo beza M. Zalbideren bibliografiara.

Jardun-gunea	Rol-harremanak
1. Familia	1.1. ikasleak beren gurasoekin; 1.2. anai-arrebak beren artean; 1.3. gurasoak beraien artean
2. Auzoa eta kalea	2.1.ikasleak kaleko lagunekin; 2.2.ikasleka auzoko ezagunekin; 2.3.ikasleak auzoko ezezagunekin
3. Eskola	3.1.ikasle/ikasle gelan; 3.2.ikasle/irakasle gelan; 3.3. ikasle-lagunekin jolaslekuan; 3.4.ikasle/irakasle gelatik kanpora
4. Komunikazio alorra	4.1. telefonoz; 4.2.interneten; 4.3. irrati-musika entzunez; 4.4.TB,bideoa,zinea,prentsa
5.Kirola	5.1. kirolean
6. Eliza	6.1. Elizan

Gela-argazkiaren emaitza, nagusitasun-moldaerazko taula deskriptiboak dira. Une jakin bateko nagusitasun-moldaera. Une jakin batean, kasu honetan 2011ko maiatzean, gela horietako ikasleen artean zein hizkuntza nagusitzen zen jardun-gune bakoitzean adierazten du. Dagokigun gaia kontuan izanik, sekulako garrantzia du nagusitasun horren bilakaera aztertzeak. Hau da, duela 5 urte edo duela 10 urte maila

horietan zein zen nagusitasun-moldaera aztertzea eta gaurkoekin konparatzea, egon diren aldaketak eta hizkuntzen arteko nagusitasun-moldaerak izan duen bilakaera ikusteko. Aurrera begira, etor daitezkeen ikerketetarako kontuan hartu beharrekoa. Bi kasutan baditugu duela sei urteko datuak, maila horietan jasoak.

Nagusitasun-moldaerazko taula errazago ulertzeko, zenbaki baten bidez adierazten da bataren ala bestearen nagusitasuna. Orik 5era puntuatuta daude nagusitasun-baloreak: 0 zenbakiak gaztelaniaren erabateko nagusitasuna adierazten du. 5ak, aldiz, euskararen erabateko nagusitasuna. Horrezaz gain, aski modu grafikoan ikus daitezke nagusitan horiek. Gelaxka bakoitza bere nagusitasunaren arabera koloreztatu da. Berdeak euskararen nagusitasuna adierazten du: zenbat eta berde ilunago, orduan eta euskararen nagusitasun argiagoa. Urdinak, gaztelaniaren nagusitasuna adierazten du: zenbat eta urdin ilunago, orduan eta gaztelaniaren nagusitasuna argiagoa.

Taulatxo batera ekarrita koloreen baloreak:

Koloreak

Gaztelaniaz, nagusitasun argiz		Aita-amak, beren artean gaztelaniaz nagusitasun argiz	
Gaztelaniaz, nagusitasun ahulez		Aita-amak, beren artean gaztelaniaz nagusitasun ahulez	
Euskaraz, nagusitasun ahulez		Aita-amak, beren artean euskaraz nagusitasun ahulez	
Euskaraz, nagusitasun argiz		Aita-amak, beren artean euskaraz nagusitasun argiz	

Azter ditzagun bada lehenik, 14 geletan egindako gela-argazkiak. Ez dugu bakoitza zehatz mehatz aztertuko. Horretarako elementuak begi-bistan geratzen dira. 14ak ikusi eta aztertu eta gero, ondorio orokorrak aterako ditugu, seguruenik beste arnasguneetan ere ematen direnak. Hori da gure gaurko xedea, eta horretara mugatuko gara. Garbi dago, herri batetik bestera eta gela batetik bestera aldetxoak badaudela nagusitasun baloreetan. Baina horien gainetik, joera batzuk nahiko orokorrak direla uste dut eta horietan geratuko gara. Edozein modutan, gela-argaki horiek, bakoitzak, nahiko informazio badakarkigu, horrela nahi izanez gero, ondorioak ateratzeko. Eta are gehiago, hemendik urte batzuetara maila horietan egin daitezkeen gela-argazkiekin konparatu eta bilakaera aztertzeke.

HR3 herriko gela-argazkiak

LH4-A (LH4 A) ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH4-A (LH4 A)

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEA + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENAK	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	3.50	4.18	-	3.92	4.00	2.77	4.15	4.85	3.77	4.92	2.85	2.45	-	-	3.33	5.00
	Jasotzea	3.62	4.00	2.38	4.08	4.15	2.23	4.08	4.85	4.00	4.85	2.85	2.45	2.67	2.11	3.33	5.00
IRAKURTzea	Egitea							D				2.45					
	Jasotzea							D				2.45		2.62			5.00
IDAZTEA	Egitea							D				2.45					
	Jasotzea							D				2.45					

LH4-B (LH4 B) ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH4-B (LH4 B)

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEA + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENAK	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.33	4.82	-	4.36	4.00	3.08	4.55	4.33	4.45	4.75	3.67	2.00	-	-	5.00	5.00
	Jasotzea	4.58	5.00	3.25	4.25	4.00	3.08	4.33	4.42	4.45	4.73	3.67	2.00	3.36	2.89	5.00	5.00
IRAKURTzea	Egitea							D				2.00					
	Jasotzea							D				2.00		3.10			5.00
IDAZTEA	Egitea							D				2.00					
	Jasotzea							D				2.00					

LH5-A (LH5) ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH5-A (LH5)

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEA + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENAK	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.29	4.65	-	4.71	4.33	3.86	5.00	4.95	4.95	5.00	3.67	2.33	-	-	4.43	4.71
	Jasotzea	4.29	4.63	3.52	4.81	4.33	3.76	4.90	4.90	4.86	4.95	3.67	2.33	3.14	2.56	4.43	4.71
IRAKURTzea	Egitea							D				2.33					
	Jasotzea							D				2.33		2.95			4.71
IDAZTEA	Egitea							D				2.33					
	Jasotzea							D				2.33					

LH6-A (LH 6) ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH6-A (LH 6)

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	3.58	4.47	-	4.38	3.87	3.75	4.56	4.81	4.50	4.88	3.69	4.12	-	-	4.25	4.56
	Jasotzea	3.64	4.47	3.12	4.44	3.73	3.62	4.38	4.88	4.31	4.94	3.69	4.12	3.31	2.40	4.25	4.56
IRAKURTzea	Egitea							D				4.12					
	Jasotzea							D				4.12		3.12			4.56
IDAZTEA	Egitea							D				4.12					
	Jasotzea							D				4.12					

HR4 herriko gela-argazkiak

LH4--- ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH4---

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.32	4.60	-	4.82	4.64	4.27	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	3.33	-	-	5.00	5.00
	Jasotzea	4.27	4.60	3.64	4.73	4.73	4.18	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	3.33	4.13	3.69	5.00	5.00
IRAKURTzea	Egitea								D				3.33				
	Jasotzea								D				3.33		4.25		5.00
IDAZTEA	Egitea								D				3.33				
	Jasotzea								D				3.33				

LH5--- ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH5---

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.32	4.71	-	4.60	4.73	3.53	5.00	4.87	4.67	5.00	3.93	2.73	-	-	4.53	4.47
	Jasotzea	4.32	4.93	3.40	4.60	4.67	3.00	4.73	4.87	4.73	4.73	3.93	2.73	3.70	3.29	4.53	4.47
IRAKURTzea	Egitea								D				2.73				
	Jasotzea								D				2.73		3.93		4.47
IDAZTEA	Egitea								D				2.73				
	Jasotzea								D				2.73				

LH6--- ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH6---

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	5.00	5.00	-	5.00	5.00	4.60	4.80	4.80	5.00	5.00	5.00	4.00	-	-	5.00	4.60
	Jasotzea	5.00	5.00	4.80	5.00	5.00	4.20	4.80	4.60	5.00	5.00	5.00	4.00	3.90	3.53	5.00	4.60
IRAKURTzea	Egitea								D				4.00				
	Jasotzea								D				4.00		3.80		4.60
IDAZTEA	Egitea								D				4.00				
	Jasotzea								D				4.00				

HR2 herriko gela-argazkiak

LH4--- ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH4---
Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.22	4.57	-	4.31	4.50	3.73	4.62	4.75	4.69	4.81	4.00	2.56	-	-	4.79	4.85
	Jasotzea	4.06	4.71	3.56	4.50	4.86	3.40	4.73	4.75	4.69	4.80	4.00	2.56	2.77	2.54	4.79	4.85
IRAKURTZEA	Egitea							D					2.56				
	Jasotzea							D					2.56		2.92		4.85
IDAZTEA	Egitea							D					2.56				
	Jasotzea							D					2.56				

LH5--- (LH 5-6) ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH5--- (LH 5-6)
Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	5.00	5.00	-	5.00	4.83	4.17	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	1.60	-	-	4.67	4.60
	Jasotzea	4.92	5.00	3.50	5.00	4.67	3.33	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	1.60	2.83	2.00	4.67	4.60
IRAKURTZEA	Egitea							D					1.60				
	Jasotzea							D					1.60		1.50		4.60
IDAZTEA	Egitea							D					1.60				
	Jasotzea							D					1.60				

LH6--- (LH 5-6) ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH6--- (LH 5-6)
Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.80	5.00	-	4.50	4.88	2.50	5.00	5.00	5.00	5.00	4.25	2.57	-	-	4.25	5.00
	Jasotzea	4.75	5.00	4.12	4.62	4.75	3.25	5.00	5.00	4.88	5.00	4.25	2.57	2.93	2.36	4.25	5.00
IRAKURTZEA	Egitea							D					2.57				
	Jasotzea							D					2.57		2.83		5.00
IDAZTEA	Egitea							D					2.57				
	Jasotzea							D					2.57				

HR1 herriko gela-argazkiak

DBH2-A ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: DBH2-A

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.25	4.67	-	4.83	4.50	3.94	4.78	4.06	4.89	4.72	4.22	3.17	-	-	4.50	4.80
	Jasotzea	4.25	4.61	3.94	4.44	4.33	3.61	4.83	4.28	4.89	4.61	4.22	3.17	3.67	2.85	4.50	4.80
IRAKURTzea	Egitea							D					3.17				
	Jasotzea							D					3.17		3.67		4.80
IDAZTEA	Egitea							D					3.17				
	Jasotzea							D					3.17				

DBH2-B ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: DBH2-B

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	3.89	4.15	-	4.55	4.36	4.00	4.59	4.05	4.68	4.82	3.82	3.05	-	-	4.23	4.60
	Jasotzea	3.86	4.21	3.45	4.45	4.24	3.36	4.00	4.05	4.36	4.71	3.82	3.05	2.73	2.33	4.23	4.60
IRAKURTzea	Egitea							D					3.05				
	Jasotzea							D					3.05		2.57		4.60
IDAZTEA	Egitea							D					3.05				
	Jasotzea							D					3.05				

DBH4-A ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: DBH4-A

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.23	4.53	-	4.73	4.73	4.00	5.00	5.00	5.00	5.00	4.20	4.20	-	-	4.62	4.64
	Jasotzea	4.20	4.40	4.07	4.73	4.60	3.47	4.93	4.93	5.00	4.93	4.20	4.20	3.26	2.73	4.62	4.64
IRAKURTzea	Egitea							D					4.20				
	Jasotzea							D					4.20		3.40		4.64
IDAZTEA	Egitea							D					4.20				
	Jasotzea							D					4.20				

DBH4-B ikasgelaren gela-argazkia
Ikasgela: DBH4-B

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.57	4.73	-	4.87	4.73	4.40	4.93	4.60	5.00	4.93	4.33	2.87	-	-	4.60	4.55
	Jasotzea	4.57	4.60	4.47	4.80	4.73	4.27	5.00	4.33	5.00	4.73	4.33	2.87	3.71	2.60	4.60	4.55
IRAKURTzea	Egitea							D				2.87					
	Jasotzea							D				2.87		3.07			4.55
IDAZTEA	Egitea							D				2.87					
	Jasotzea							D				2.87					

Gela-argazkietako ondorioak:

1.- Aldeak badaude herri batetik bestera eta gela batetik bestera. Horretan badu zerikusia herriaren datu soziolinguistikoak eta gelaren konposizioak. Izan ere, euskaldunen portzentajea, eta ama-hizkuntza euskara dutenena altuagoa denean, gela-argazkiko baloreak (euskarazko jardunari dagozkionak) altuagoak dira, oro har. Batik bat, portzentaje horretan puntu aldearen tarte handi xamarra denean. Adin bertsukoak diren gelen arteko gela-argazkiak ikusiz nabarmendu daiteke hori. Baina ez da hori alde horietan eragiten duen aldagai bakarra. Gelaren konposizioa da bestea. Izan ere, gela-argazki horietan badaude ikasle guztiak familia euskaldunekoak direnak. Beste batzuetan, aldiz, gelan bizpahiru ikasle badaude beren gurasoekin gaztelaniaz dihardutenak ezinbestean, haiek euskaraz ez dakitelako. Azkenik esan, adinak ere izango duela, seguruenik, zerikusiren bat nagusitasun balore horietan.

2.- Lehen begiradan, nahiko berde agertzen zaizkigu gelaxka gehienak, komunikazio alorra izan ezik. Eta nahiko modu orekatuan gainera. Puntuazio aldeak ez dira jauzi handikoak jardun-gune nagusietan; hau da, familia, auzoa eta kalea eta eskola. Zehaztu beharreko aldeak badauden arren, lehen begirada horretan oreka puntu bat badagoela esan daiteke jardun-gune horietan. 4 eta 5 arteko puntuazioak daude oro har. Horrek, noski, arnagune horien bizitasun maila nahiko ona dela adierazi nahiko luke. Familia eta auzo-kaleak funtsezko jardun-guneak dira, hizkuntzaren transmisioan funtsezkoak. Horiek maila altuan mantentzen ditugun heinean, arnagune horien osasun-maila ere mantenduz joango gara. Indargune horri, eskolaren eragina eta alfabetizazioa gehitzen badizkiogu, areagotu egingo da eragin ahalmen hori. Ez da ahaztu behar herri horietako eskolak euskaraz irakasten duela azken 30 bat urtean. Oro har behintzat, eta lehen begirada horretan, oraindik euskaraz dihardute herri horietako ikasleek beraien etxeetan, auzoan eta eskolan. Euskaraz dihardute, halaber, kirolean eta elizan ere. Esparru horietan, gainera, aurrez aurreko jarduna izaten da, elizan gutxiago. Aurrez aurreko jardun horrek dituen osagaiak (lau osagai aipatzen ditu M. Zalbidek aurrez aurreko jardunaz ari denean: 1.- **Solaskideak elkarren ondoan**, elkarren presentzian, aurrez aurre daude; 2.- **interakzio betea** : solaskide **guztiak** dira mezu-**jasotzaile** eta, potentzialki bederen, mezu-**igorle**); 3.- **egokitasun kontestuala**: aurrera daramaten hizketa kontestu jakin horri dagokion modukoa da (situazioak berez eskatzen duen modukoa), eta 4.- **elkar-ulergarria**: solaskide guztiek konpartitzen dute, nork bere aldaera-sortatik, besteek darabilten aldaera bera edo, gutxienez, solaskideen aldaera-sorta osotik abiatuz ulergarria den hizkera-moldea); bestalde eragin zuzena du

erabileraren erreprodukzio sisteman. Aurrez aurreko jardun horrek, indartu egiten du erabilera bera erabiliaren erabiliaz.

Komunikazio-alorra da sarri, argi ikusten denez, gaztelaniaren nagusitasun nabarmenekoa. Gerora, ikasle horien kultura kontsumoa aztetzerakoan, zehatzago analizatuko dugu jardun-gune hori. Oraingoz, esan dezagun, jardun-gune hori dela gaztelaniara gehien, eta garbien, lerratzen den esparrua. Horko gelaxkak, kasu guztietan ez baina bai gehienetan, urdinez agertzen zaizkigu. Gaztelania eroso dabil komunikazio esparru horretan.

Lehen irakurketa hori egin ostean, azter ditzagun atalez atal eta zehatzago gela-argazki horietako beste alderdi batzuk, horietan suma baitaitezke arnasgune horietan egon daitezkeen arrakalen lehen zantzuak.

3.- Eskola da, gaur egun, gaztetxoek jardun-gunerik euskaldunena. Hor ematen dira puntuaziorik altuenak, oro har. Esparru akademikoa izanik, eta bere jarduera euskaraz burutzen duenez, eskolaren jarduna indargarri da hizkuntzaren erabilerari dagokionez.

4.- Familiaren puntuazioei dagokionez, balore nahiko altuetan mantentzen dira. Hala ere ez kasu guztietan. Hor ere korrelazio bat ikus daiteke herri horretako euskadunen dentsitatearen eta gela-argazkiko puntuazioen artean. Balore baxuenak, hain zuzen, euskadunen dentsitate txikiena duen herrian ematen dira. Bada, familiaren esparru horretan, ondo bereiztu eta aztertu beharreko fenomeno bat. Hau da, ikasle horiek gurasoekin ari direnean eta anaia-arreben artean, puntuazio hori altuagoa da, gurasoak beraiekin artean ari direnean baino. Puntuazio-aldea esanguratsua da kasu gehienetan. Alde hori 14 gela-argazkietan ematen da gainera, salbuespenik gabe. Joera hori orokorra da. Oso berde ahulez edo, kasuren batean urdinez, agertzen zaigu gurasoen arteko gelaxka hori. Adi aztertzeke gertakizuna da hori. Intuizioz askotan aipatu izan den fenomeno da; hau da, helduak umeei euskaraz hitz egitearena, baina beraiekin artean gaztelaniara lerratzearena. Behin eta berriz, eta azken urteetan areago, irakasleek aipatzen duten fenomeno da. Hau da, gurasoak eta guraso taldeak beraiekin artean gaztelelaniaz aritzearena, beraiekin seme-alaben zain dauden bitartean ikastetxeko atarietan eta patioetan. Datu horiek egoera nabar hori berretsi besterik ez dute egiten. Jokabide horrek sekulako eragina du hizkuntzaren transmisioaren auzi horretan, ematen den irudia dela, iradokitzen den hizkuntzaren prestigioa dela, hizkuntza baliabide eta erregistroen aberastasun / pobrezia dela... Ez zaio duen garrantzirik ematen jokabide horri. Lehenago aztertu ditugun datuekin bat dator, bestalde, fenomeno hori. Zerikusirik izango du, seguruenik, etxean hitz egiten den hizkuntzaren kontuarekin. Bai euskararen beharadarekin eta bai “biak” deitu diogunaren gorakadarekin. Arnasguneetan suma daitezkeen arrakaletako bat ez ote da fenomeno hori, hain zuzen ?

5.- Auzoa eta kalea euskalduna dute ikasle horiek. Nagusitasun argiz euskaraz dihardute, beraiekin lagunekin, auzoko ezagunekin eta neurri batean ezezagunekin ere, ezezagunekin puntuazioa zertxobait jaisten bada ere, muga mugaraino kasu batzuetan. Hor ere korrelazioa dago euskadunen dentsitatearen datuen eta gelaxka horietako baloreen artean. Zenbat eta arnasgunea sendoagoa datu demolinguistikoetan, orduan eta puntuazio altuagoak agertzen dira gela-argazkietako gelaxka horietan. Konkordantzia horrek koherentzia eta bateratasuna ematen die datuen balioei.

6.- Komunikazio alorra da arnasguneotan, askoagatik, jardun-gunerik erdaldunena. Kolore urdina hedatuz doa esparru horretan. Ez hainbeste telefonoz ari

direnean. Hor, kontuan hartuz lagunekin, etxekoekin edo ezagunekin arituko direla batik bat, puntuazioak bat datoz, oro har, etxeko eta auzoko puntuazioekin. Korrelazio nabaria dago eta hori espero izatekoa zen. Bestelakoa da, Internet, musika, bideo, prentsa etab. dagokionez. Hor, euskarak jada leku txikia du. Kolore urdina ikusten da. Kasu batzutan urdin argi samarra oraindik (gaztelania nagusitasun ahulez); beste batzuetan jada urdin ilunagoa (gaztelania nagusitasun argiz). Hala ere, badago kasuren bat edo beste esparru horietan ere kolore berdea (euskararen nagusitasuna) ikusten denekoa.

Komunikazio-esparru hori lasaiago eta zehatzago aztertuko dugu hurrengo atalean, ikasleen kultura kontsumoa aztertzean. Esan, hala ere, gaur egun esparru horrek duen garrantzia ukaezina dela. Lehen etxeak zuen sozializazio-indar berezia. Gaur, eta adin batetik aurrera, komunikazioaren gizartean, sozializazio horretan lehen baino eragin ahalmen handiagoa du esparru horrek. Hori ere kontuan hartu beharreko aldagaia izango da hizkuntzaren eta etnokultura oso baten transmisioan egon daitezkeen edo sor daitezkeen hutsuneak eta etenak aztertzeako garaian. “*Zer jan hura izan*” dio esaldiak eta gure ikasleen elikagai kulturala nondik nora doan eta zer bilakaera duen jakitea eta aztertzea ezinbestekoa izango da, euskara bizi deneko “*humus*” hori elikatzea nahi baldin badugu.

Norbaitek esan dezake, euskarazko eskaintza kulturalaren nolakotasunak, pobrezia edo dena delakoak zerikusirik izango duela horretan. Partez bai, noski. Askoz ugariago eta anitzago da beste hizkuntzetan eskaintzen dena. Begibistakoa da hori. Hala ere, ez dirudi euskarazko eskaintza hori erdarazkoetan eskaintzen dena bezain duina ez denik. Bere laburrean, atal askotan, beste hizkuntzetan eskaintzen den bezain ona edo hobea da. Horixe da hainbat kazetarik eta ikertzailek dioena.

7.- Kirolean ere aski nagusitasun-moldaera ona ageri du euskarak. Batetik, herri horietan eskolaz kanpoko jarduerak, kirol eskaintza etab. euskaraz moldatzen dira. Begiraleak, entrenatzaileak etab. euskaldunak dira, ia kasu guztietan. Horrek, nolabait, goreneko puntuazioa ziurtatu beharko liguke, jakinik ikasleek euskara badakitela eta aurrez aurre dituzten horiek ere badakitela. Hala ere, ez dira puntuazio goren horiek ematen. Alde txiki bat badago, gela batetik bestera. Berriro ere, itxuraz, korrelazioan doa herriko euskaldunen dentsitatearekin eta gelako euskaldunen dentsitatearekin.

8.- Eliza ere euskararen esparrua da. Herri horietan elizkizunak eta elizaren jarduerak euskaraz bideratzen dira ia osoki.

Ondorioz, beraz, zera esan genezake: aztertutako herri horietako ikasleak euskaraz bizi dira, oro har. Euskarak badu leku inportante bat beraien bizitzan. Hizkuntza bizia jaso dute etxean eta hizkuntza hori nagusitzen da beraien jardun-gune gehienetan: familian, auzoan, eskolan, kirolean eta elizan. Ez hainbeste komunikazioaren, komunikabideen, alorrean. Hor, sarbide eroso du gaztelaniak. Horko nagusitasun-moldaera gaztelaniara ari da makurtzen. Bestalde, ikasle horiengan euskararen nagusitasuna handiago da helduengan (hots: beraien gurasoengan) baino.

Gela-argazki horiek une jakin bateko egoera deskribatzen digute. Herri horietan, eskola horietan eta maila horietan egindako argazkiak dira. Une horretako nagusitasun-moldaera adierazten digute. Zer esanik ez dago, bilakaera aztertzeak sekulako garrantzia izango duela aurrera begira.

Gure kasuan, bi ikastetxetako bilakaera aztertzeako aukera badaukagu. Izan ere, 2004-2005 ikasturtean hainbat ikastetxetan gela-argazkiak egin ziren, galdeketa bera erabilia. Maila guztietan konparatzeko aukerarik ez badugu ere, bilakera hori aztertzeako

aukera dugunetan, horixe egingo dugu. Sei urteko aldearekin egin dira, ikasmaila berean, gela-argazkiak. Sei urte horietako bilakaera ikusi ahal izango dugu beraz, 2004-2005 ikasturtean eta 2010-2011 ikasturtean egindako gela-argazkiak parekatuz.

Has gaitezen HR2 herriko eskolakoekin. Mailaz maila joango gara konparazio hori egiten.

Herri bereko eta ikastetxe bereko 4. mailako ikasgelen arteko konparazioa

2004-2005eko gela-argazkia. 4. maila

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.60	4.56	-	5.00	4.80	5.00	5.00	5.00	5.00	5.00	4.40	5.00	-	-	4.60	5.00
	Jasotzea	4.60	4.56	4.68	5.00	4.50	3.10	5.00	5.00	5.00	5.00	4.40	5.00	4.12	3.33	4.60	5.00
IRAKURTzea	Egitea							D				5.00					
	Jasotzea							D				5.00			3.60		5.00
IDAZTEA	Egitea							D				5.00					
	Jasotzea							D				5.00					

2010-2011ko gela-argazkia. 4. maila

LH4--- ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH4---
Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.22	4.57	-	4.31	4.50	3.73	4.62	4.75	4.69	4.81	4.00	2.56	-	-	4.79	4.85
	Jasotzea	4.06	4.71	2.56	4.50	4.86	3.40	4.73	4.75	4.69	4.80	4.00	2.56	2.77	2.54	4.79	4.85
IRAKURTzea	Egitea							D				2.56					
	Jasotzea							D				2.56			2.92		4.85
IDAZTEA	Egitea							D				2.56					
	Jasotzea							D				2.56					

Zer nolako bilakaera egon da azken 6 urteetan, 4. mailako gela-argazkiak konparatzen baditugu? Noranzko joera da ikusten dena?

Lehen gainbegiradan berehala ikusten da duela 6 urte dena berdez agertzen zenak, orain urdin guneak badituela. Komunikazio-alorrean, hain zuzen. Hor, argi eta garbi, lehen, duela sei urte, euskararen aldeko nagusitasun-moldaera ematen zen lekuan, orain gaztelania da leku horretako nagusitan-moldaera bereganatzen ari dena. Hor bakarrik eman al da aldaketa? Zer gertatzen da beste jardun-guneetan?

Lehen begiradan badirudi ez dagoela aldaketa nabarmenik, jauzi handirik, komunikazio alorrean eman den adinakorik. Hori horrela izanik ere, goazen ikustera jardun-gune bakoitzean zer gertatzen den.

Familiaren barnean, anai-arrebak beraien artean ari direnean ez dago aldaketarik ia, edo zertxobait gora egiten du erabilerak. Gurasoak tartean direnean, aldiz, beheraka

doa puntuazioa. Are nabarmenagoa da joera hori gurasoak beraien artean ari direnean. Hor jaitciera puntu batekoa da.

Auzoan ere galera gertatzen da, ezezagunak ikasleei zuzentzen zaizkienean izan ezik.

Eskola gotorleku sendo agertzen zen duela sei urte. Oraindik ere horrela da, baina puntuazioan beheraka hasi da.

Komunikazio-alorra da aldaketa handiena jasan duena. Gaztelaniak hartu du gelaxka gehienetan nagusitasuna.

Kirolean zertxobait igo egiten da puntuazioa.

Elizari dagokionez, ez dago aldaketa esanguratsurik. Puntuazioak beheraka egiten du, baina ez modu aipagarrian.

Herri bereko eta ikastetxe bereko 5. mailako ikasgelen arteko konparazioa

Ikus dezagun zer gertatzen den 5. mailako ikasgeletan.

2004-2005eko gela-argazkia. 5. maila

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.67	5.00	-	5.00	5.00	5.00	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	5.00	-	-	5.00	4.75
	Jasotzea	4.67	5.00	4.08	5.00	5.00	3.08	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	5.00	3.33	2.42	5.00	4.75
IRAKURTzea	Egitea							D				5.00					
	Jasotzea							D				5.00			2.67		4.75
IDAZTEA	Egitea							D				5.00					
	Jasotzea							D				5.00					

2010-2011ko gela-argazkia. 5. maila

LH5--- (LH 5-6) ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH5--- (LH 5-6)

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	5.00	5.00	-	5.00	4.83	4.17	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	1.60	-	-	4.67	4.60
	Jasotzea	4.92	5.00	3.50	5.00	4.67	3.33	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	1.60	2.83	2.00	4.67	4.60
IRAKURTzea	Egitea							D				1.60					
	Jasotzea							D				1.60			1.50		4.60
IDAZTEA	Egitea							D				1.60					
	Jasotzea							D				1.60					

Oro har, 4. mailakoez esan dugunaren antzekoa litzateke hemen esan beharrekoa. Joera nagusiek antz handia dute eta norabide bertsua adierazten dute. Ikus dezagun, hala ere, atalez atal:

Familian puntuazioak paretsu dabilta edo zertxobait gora egiten du gurasoek seme-alabekin dihardutenean, euskaraz ia beti. Baina gurasoek, beraien artean ari direnean, duela 6 urte baino gutxiago egiten dute euskaraz. Ez ez dakitelako, seguruenik, seme-alabekin ari direnean euskaraz ari baitira nabarmen. Beste fenomeno bat ari da hor gertatzen, gela-argazki guztietan ematen dena eta, gainera, bilakaeran beherantz doana.

Auzoan, ez modu adierazgarrian, puntuazioa zertxobait jaitsi egiten da.

Komunikazio-alorra, berriro ere, beherantz doa nabarmen. Gaztelania ari da jardun-gune horretan nagusitzen.

Kirolaren eta Elizaren jardun-guneetan ere, euskararen nagusitasunak zertxobait behera egiten du.

Herri bereko eta ikastetxe bereko 6. mailako ikasgelen arteko konparazioa

Goazen, azkenik, 6. mailako gelen erkaketa egitera. Aurrekoetan 2004-2005 ikasturteko gela-argazkiak bagenituen eskura. 6. mailakorik ez daukagu, berriz. 6. mailakoen arteko konparaketa egiteko duela bi urte egindakoa bakarrik daukagu eskura. Beraz, hori baliatuko dugu 6. mailakoen konparaketa egiteko.

2008-2009ko gela-argazkia. 6. maila

LH6-A (LH 6) ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH6-A (LH 6)

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.71	5.00	-	5.00	5.00	5.00	5.00	4.00	5.00	5.00	4.43	2.57	-	-	5.00	5.00
	Jasotzea	4.79	5.00	4.57	5.00	5.00	4.00	5.00	4.00	5.00	5.00	4.43	2.57	4.29	3.87	5.00	5.00
IRAKURTzea	Egitea								D				2.57				
	Jasotzea								D				2.57		3.17		5.00
IDAZTEA	Egitea								D				2.57				
	Jasotzea								D				2.57				

2010-2011ko gela-argazkia. 6. maila

LH6--- (LH 5-6) ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: LH6--- (LH 5-6)

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.80	5.00	-	4.50	4.88	2.50	5.00	5.00	5.00	5.00	4.25	2.57	-	-	4.25	5.00
	Jasotzea	4.75	5.00	4.12	4.62	4.75	3.25	5.00	5.00	4.88	5.00	4.25	2.57	2.93	2.36	4.25	5.00
IRAKURTzea	Egitea								D				2.57				
	Jasotzea								D				2.57		2.83		5.00
IDAZTEA	Egitea								D				2.57				
	Jasotzea								D				2.57				

Hemengo joerak ere, ahulago izan arren (kontuan hartu bi urte bakarrik pasa direla) aurrekoen antzeko dira.

Familian ez dago ia aldaketarik, gurasoak sema-alabekin eta horiek beraien artean ari direnean. Gurasoen artekoan, aldiz, berriro ere, behera egiten du puntuazioak.

Auzoak zertxobait behera egiten du, kaleko lagunekin eta ezagunekin ari direnean. Oso nabarmen behera ezezagunekin ari direnean. Horrek ere zerbait adieraziko du seguruenik herriko biztanleen edo bisitarien konposizio berriaz.

Eskolan ez da aldaketa aipagarriarik ager. Euskarazko jardunaren gotorleku sendo da.

Komunikazio-alorrean, aurrekoetan esandakoaren haritik, beheranzko joera garbia dago puntuazioetan. Urdinduz doa jardun-gune hori.

Kirolean zertxobait behera doa eta Elizan bere hartan mantentzen da.

Zer ondorio atera genezake, hiru gela-argazki horiek konparatu ondoren nagusitasun-moldaeraren bilakaeraz? Esan beharrik ez dago, urte gehiagoko gela-argazkiak beharko genituzkeela ondorioak garbiago ateratzeko. Aurrera begira egin beharreko lana da hori, noski. Daukaguna daukagu oraingoz eta horretan oinarrituta atera beharko ditugu ondorioak. Joera batzuk garbi samar ikus daitezke:

Familia eta auzoa gotorleku sendo dira oraindik, baina beheranzko joera, oso apala bada ere, ageri da oro har. Gurasoen arteko mintzajardunean, aldiz, zerbait sakonagoa gertatzen ari dela dirudi. Beheranzko joera hori orokorra da eta alde nabarmenagoz adierazten da.

Eskola gotorleku sendo da. Ez dago aldaketa azpimarragarriarik.

Komunikazio alorra da garbienik euskararen nagusitasun-moldaera galtzen doana. Nabarmen egin da atzera kontsumo kulturalaren esparruan. Hori garbiago ikusiko dugu gero, ikasle horien kontsumo kulturala aztertzen dugunean.

Kirolean eta Elizan ez dago aldaketa esanguratsurik.

Azter dezagun jarraian, ikasle handixegoen gela-argizkietan ematen den bilakaera. Horretarako HR1 herrian 2004-2005 eta 2010-2011 ikasturteetan maila berean egindako gela-argazkiak izango ditugu eskura. Has gaitezen DBH 2. mailakoekin. 2004-2005 ikasturteko bakarra daukagu. 2010-2011 ikasturtean maila bereko bi geletakoa. Beraz, horiek hartuko ditugu konparaziorako.

HR1 herriko gela-argazkiak

Herri bereko eta ikastetxe bereko DBHko 2. mailako ikasgelen arteko konparazioa

2004-2005eko gela-argazkia. DBH 2. maila

Ikastetxearen ezaugarriak					Gelaren ezaugarriak										Erreferentzia zenbakia					
kodea:-					Adin-tartea: BH										30 5 + " D " + DBH2					
Ikastetxea: '					Gelaren eredu: D															
Udalerrria:					Ikasmaila: DBH2															
					Taldea:															
ALDAKUNTZA-ITURRIA					JARDUN_GUNEA + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola		6 eliza		
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1			
HITZ EGITEA	Egitea	4.42	4.78	-	5.00	4.96	4.48	5.00	4.88	5.00	5.00	4.84	3.67	-	-	4.88	4.71			
	Jasotzea	4.45	4.87	4.12	4.96	4.84	4.24	5.00	4.92	5.00	4.64	4.84	3.67	3.66	2.96	4.88	4.71			
IRAKURTZEA	Egitea								D				3.67							
	Jasotzea								D				3.67		3.80		4.71			
IDAZTEA	Egitea								D				3.67							
	Jasotzea								D				3.67							

2010-2011ko gela-argazkiak. DBH 2. maila

DBH2-A ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: DBH2-A
Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEA + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.25	4.67	-	4.83	4.50	3.94	4.78	4.06	4.89	4.72	4.22	3.17	-	-	4.50	4.80
	Jasotzea	4.25	4.61	3.94	4.44	4.33	3.61	4.83	4.28	4.89	4.61	4.22	3.17	3.67	2.85	4.50	4.80
IRAKURTzea	Egitea								D				3.17				
	Jasotzea								D				3.17		3.67		4.80
IDAZTEA	Egitea								D				3.17				
	Jasotzea								D				3.17				

DBH2-B ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: DBH2-B

Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	3.89	4.15	-	4.55	4.36	4.00	4.59	4.05	4.68	4.82	3.82	3.05	-	-	4.23	4.60
	Jasotzea	3.86	4.21	3.45	4.45	4.24	3.36	4.00	4.05	4.36	4.71	3.82	3.05	2.73	2.33	4.23	4.60
IRAKURTzea	Egitea								D				3.05				
	Jasotzea								D				3.05		2.57		4.60
IDAZTEA	Egitea								D				3.05				
	Jasotzea								D				3.05				

Lehen gainbegiradan berdea da nagusi, euskarazko nagusitasun-moldaera indartsu agertzen da, bai duela 6 urte, bai aurtengoetan. Komunikazio alorra da zertxobait urdintzen hasi den jardun-gunea. Edozein modutan goazen zehazkiago aztertzea jardun-gune ezberdinak.

Familia jardun-gunearen gelaxka guztietan puntuazio txikiagoak dira 2010-2011 ikasturteko bi gela-argazkietan. Gurasoak beraien arteko mintzajardunekoa behera doa. Hori da, beste behin, azpimarragarriena.

Auzoan, gelaxka guztietan puntuazioak behera egiten du 6 urtetik hona.

Eskolan gauza bera gertatzen da. Beheranzko joera dago, nahiz eta oso apala den.

Komunikazio alorra da beherakada handiena jasaten duena.

Kirolean ere behera egiten du puntuazioak

Elizari dagokionez, kasu batean gora egiten du, bestean behera.

Ikus ditzagun, azkenik, DBH 4. mailakoen duela 6 urteko eta 2010-2011ko gela-argazkiak. Jarraian jarri ditugu bi taldeenak.

Herri bereko eta ikastetxe bereko DBHko 4. mailako ikasgelen arteko konparazioa

2004-2005eko gela-argazkiak. DBH 4. Maila

Ikastetxearen ezaugarriak		Gelaren ezaugarriak															
kodea:		Adin-tartea: BH															
Ikastetxea:		Gelaren eredua: D															
Udalerrria:		Ikasmaita: DBH4															
		Taldea:															
		Erreferentzia zenbakia															
		30															
		5 + " D " + DBH4															
ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.38	5.00	-	5.00	4.92	4.62	5.00	4.77	5.00	5.00	4.46	3.15	-	-	5.00	4.85
	Jasotzea	4.38	5.00	4.08	5.00	4.92	4.50	5.00	4.92	5.00	4.75	4.46	3.15	3.96	2.74	5.00	4.85
IRAKURTzea	Egitea								D				3.15				
	Jasotzea								D				3.15		3.69		4.85
IDAZTEA	Egitea								D				3.15				
	Jasotzea								D				3.15				

Ikastetxearen ezaugarriak				Gelaren ezaugarriak										Erreferentzia zenbakia			
kodea:				Adin-tartea: BH										30 5 + " D " + DBH4			
Ikastetxea:				Gelaren eredu: D													
Udalerrria:				Ikasmaila: DBH4													
				Taldea: B													
ALDAKUNTZA-ITURRIA				JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK													
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	3.96	4.42	-	4.77	4.62	4.38	4.92	4.85	4.92	4.92	4.33	3.09	-	-	4.31	5.00
	Jasotzea	3.88	4.33	3.31	4.69	4.54	3.77	4.92	4.85	4.92	4.92	4.33	3.09	3.97	2.92	4.31	5.00
IRAKURTZEA	Egitea								D				3.09				
	Jasotzea								D				3.09		3.69		5.00
IDAZTEA	Egitea								D				3.09				
	Jasotzea								D				3.09				

2010-2011ko gela-argazkiak. DBH 4. maila

DBH4-A ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: DBH4-A
Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.23	4.53	-	4.73	4.73	4.00	5.00	5.00	5.00	5.00	4.20	4.20	-	-	4.62	4.64
	Jasotzea	4.20	4.40	4.07	4.73	4.60	3.47	4.93	4.93	5.00	4.93	4.20	4.20	3.26	2.73	4.62	4.64
IRAKURTZEA	Egitea								D				4.20				
	Jasotzea								D				4.20		3.40		4.64
IDAZTEA	Egitea								D				4.20				
	Jasotzea								D				4.20				

DBH4-B ikasgelaren gela-argazkia

Ikasgela: DBH4-B
Ikastetxea:

ALDAKUNTZA-ITURRIA		JARDUN_GUNEAK + ROL-HARREMANAK															
ADIERAZPENA	HEDABIDEA	1 familia			2 auzoa			3 eskola				4 komunikazioa				5 kirola	6 eliza
		1.1	1.2	1.3	2.1	2.2	2.3	3.1	3.2	3.3	3.4	4.1	4.2	4.3	4.4	5.1	6.1
HITZ EGITEA	Egitea	4.57	4.73	-	4.87	4.73	4.40	4.93	4.60	5.00	4.93	4.33	2.87	-	-	4.60	4.55
	Jasotzea	4.57	4.60	4.47	4.80	4.73	4.27	5.00	4.33	5.00	4.73	4.33	2.87	3.71	2.60	4.60	4.55
IRAKURTZEA	Egitea								D				2.87				
	Jasotzea								D				2.87		3.07		4.55
IDAZTEA	Egitea								D				2.87				
	Jasotzea								D				2.87				

Gela horietako bilakaera ez da aurrekoetan ikusi dugun bezain definitua. Aurrekoetan oso joera bateratua agertzen zen, 4. mailakoetan joera horiek ez dira hain nabarmenak edo kasu batzuetan kontrakoa adieraz dezakete. Hala ere, puntuazioetan ez dago jauzi nabarmenik. A taldea A taldearekin konparatuz gero, beheranzko joera hori

berretsi daiteke. Bkoen taldeetan, aldiz, gelaxka batzuetan puntuazioak igo egiten dira 6 urtetik hona. Puntuazio altuetan mugitzen dira bai duela 6 urteko gela-argazkiak, bai 2010-2011 ikasturtekoak. Euskarazko nagusitan-moldaera indartsu azaltzen da etxean, auzoan, eskolan, kirolean eta elizan. Ez hainbeste komunikazioaren alorrean. Hor , aurrekoetan bezala, nagusitasun-moldaera hori gaztelaniara makurtzen ari da piskanaka-piskanaka.

Laburtuz, eta gela-argazkien bilakaeraren atal honi amaiera emateko, zera esan genezake: oro har, euskararen aldeko nagusitasun-moldaerak indartsu jarraitzen du aztertutako gela horietan. Familian, auzoan, eskolan, kirolean eta elizan euskaraz bizi dira ikasle horiek nagusiki. Bai duela 6 urte, eta bai gaur egun.

Bilakaerari dagokionez, joera batzuk ikus daitezke. Hala ere, gela-argazki gehiago beharko genituzke denboran, datozteen urteetan joera horiek une jakin batekoak diren ala zerbait gehiago adierazten duten jakiteko. Hala ere, eta ditugun elementu mugatuekin, azter ditzagun ikusten ditugun joera horiek:

Familian, oro har, beheraka egiten du puntuazioak. Egia da oso apal egiten duela behera, baina ia kasu guztietan egiten du behera 6 urteko tartean. Gurasoen arteko mintzajardunak aipamen berezia behar du. Orain arte aztertutako gela-argazki guztietan tarte dago gurasoak seme-alabekin ari direnean eta beraien artean ari direnean. Puntuazioa baxuagoa da beraien artean ari direnean. Bilakaerak, gainera, berretsi besterik ez du egiten. Aurrerago ere aipatu dugu fenomeno horrek duen garrantzia. Elementu asko eta eragin asko biltzen dituen jokaera da hori.

Auzoan ere beheranzko joera ikusten da. Apala, egia da, baina beheranzkoa. Ezezagunekin jardutean nabarmentzen da, batik bat, joera hori.

Eskolan puntuazio altuak ikusten dira. Hala ere, hemen ere beherantz egiten dute puntuazioek.

Komunikazio-alorrean ikusten da garbienik nagusitasun-moldaeraren aldaketa hori. Duela 6 urte gelaxka berdeak ziren batzuk urdindu egin dira. Euskara nagusi azaltzen zen leku batzuetan gaztelaniak hartu du indarra eta, kasu askotan, lekua.

Kirolean eta Elizan ez dago nabarmendu daitekeen jauzirik. Edozein modutan ere, hor ere behera egiten dute puntuazioek.

Kultura-kontsumoa.

Gela-argazkietan zerbait nabarmentzen bada, kultura-kontsumoaren aparteko joera da. Hori da, hain zuzen, ia kasu guztietan, batzuetan nabarmenago besteetan baino, urdin agertzen den atala. Hau da, erdaren erabilera nagusitzen den atala.

Kezka horri jarraituz ikastetxe horietako 4., 5. eta 6. mailako eta DBHko 2. eta 4. mailako ikasleei galdeketa pasatu genien, beraien kultura-kontsumoari buruzko datuak jasotzeko ahaleginetan. (ikus galdeketa 2. eranskinean). Guztira, 194 ikasleren erantzunak dauzkagu jasota.

Azken urteetako eskolatze-prozesua euskaraz burutzen bada ere, honako hipotesia genuen azterkizun: arnasguneetako ikasleek, eskolaz aparte, bere kabuz, zer produktu kultural kontsumitu hautatzen dutenean, gaztelaniak leku nabarmena hartzen duela hor, eta azken urteetan ingelesak ere sarbidea egina duela. Hipotesi horren baieztapena eman digute, neurri batean, gela-azgazkiek. Hala ere, zehatzago aztertzeko eta beraien kulturazko elikagaia, beraien erreferentziak zein diren jakiteko, aparteko galdetegi prestatu genuen. Galdetegi horretako erantzunak izango ditugu aztergai atal honetan. Erantzun batzuk kuantitatiboak dira, grafikoetara ekarri ditugunak. Beste batzuk, aldiz, kualitatiboak, beraien aukeren zergatiak edo gustuak ikertu nahian. Horrela, bada, has gaitezen erantzun horiek aztertzen. Esan behar da, hemen aztertzen ditugunak 14 gelatako 194 ikasleren datuak bateratuz ateratako grafikoak direla. Gelaz gelako azterketa egin daiteke, baina gure xederako gela guztien batez bestekoa hartzea nahikoa iruditu zaigu. Errepresentatiboa dela uste dugu eta, gainera, aldeak badauden arren, ez dira esanguratsuak. Hemen ere, aldeak alde, norabideak eta joerak bat datoz kasu guztietan. Herriz herriko edota gela bakoitzeko azterketa zehatzago egin nahi izanez gero, grafikoak eta erantzun kualitatiboen bilketa-lana egina dago.




Ikus ditzagun orain galdetegi horietatik jasotako emaitzak eta horietatik atera daitezkeen ondorioak.

Ohartxo bat grafikoak aztertzen hasi aurretik: kultura-kontsumoko grafikoetan, jarraian agertuko direnetan, %ak gaztelaniaz emanak daude. Hau da % ikur horiek zenbakiaren aurrean joan ordez, zenbakiaren ondoren azaltzen dira. Grafikoak egiteko erabilitako programak horrela eman dizkit eta ez naiz aldatzeko gai izan, ezin izan dut asmatu eta bere horretan uztea erabaki dut.

Kultura-kontsumo orokorra. Grafikoak

1.- TELEBISTA.

- Galdera: zenbat denbora pasatzen duzu egunean, batez beste, telebista ikusten?







Ikasleak egunean zenbat ordu pasatzen duen euskal/erdal telebista ikusten jakin nahi genuen lehen galdera horretan. Tauletan garbi adierazita dago, euskarazkoak ez diren beste kateetan pasatzen dituztela ikasleek ordu gehienak, telebista ikusten ari direnean. Alde handi samarrez gainera. Joera hori orokorra da, kasu guztietan ematen da. Herri guztietan eta gela guztietan, aldeak badauden arren.

Jarraian, gehien ikusten duten bi programa izendatzeko eskatu genien. Programaren izena eta telebista katea.

Banan-banan, gelaz gela, beraiek aipatutako programak zerrendatu egin ditugu. Programaren izena eta katea jarritz. Hona ez dugu zerrenda osoa ekarriko. Bakarrik horietatik ateratako ondorioak baizik. Zerrenda osoa ikusi nahi duenak jo beza 4. eranskinera. Han aurkituko du gelaz gela ikasleek aipatu dituzten programak eta kateak, beraiek idatzi bezala, zuzenketarik egin gabe.

Zerrenda hartu eta euskarazko programen eta kateen eta gaztelaniazkoen arteko banaketa egin dugu, portzentajeak ateraz. Hona hemen grafikoak, lehena guztien bildumarena eta besteak herriz herrikoak:



Garbi dago grafiko horiek berretsi egiten dutela aurreko grafikoetan ikusi dena. Hau da, ikasle horiek ia kasu gehienetan, 4tik 3tan, gaztelaniazko kateak kontsumitzen dituztela. Badaude alde txiki batzuk herri batetik bestera. Horiek, kasualki, herri horietako euskaldunen dentsitatearekin eta ama-hizkuntza euskara dutenen portzentajeekin korrelazioan doaz, oro har. Hau da, datuetan euskarazko dentsitate

txikiena duen herriak ematen du telebistako grafiko horietan euskarazko portzentajerik txikiena. Bigarren portzentaje txikiena duenak grafiko horietan bigarren portzentajerik txikiena. Aldiz, 3. eta 4. kasuan ez da hori gertatzen. Agian euskaldunen dentsitatea parekoagoa eta puntu batetik gorakoa delako. Baina beude korrelazio horiek hausnarketarako. Ez baitira hemen bakarrik agertzen, gela-argazkietan eta beste hainbatetan ere ikusten delako datuen arteko nolabaiteko erlazioa.

Euskaraz gutxi ikusten dute gure ikasleek telebista. Ikusten duten horietan, zer da ikusten dutena?

Oso dira bakanak gela bakoitzean aipatzen dituzten programak. Lehen Hezkuntzako artean ETB1eko *Doraemon* da ikusiena. 13 ikaslek aipatzen dute (194 ikasleetatik). Beste programa batzuk batek, bik edo horrela aipatzen dituzte. Horietako batzuk: ETB1eko *Finlandia*, *Hirukiak*, *Mihiluze* (3), *Gaur egun* (2), *Pelota* (2) eta beste solteren bat. ETB3ko *Marraskiak* (3), *Espioiak*; ETB-SAT eko *Lazkao Txiki* eta *Hamaika Telebistako Fernando*. Lehen Hezkuntzako artean horiek dira funtsean agertzen direnak. DBHko ikasleen artean *Goenkale* da gehien izendatua (18 ikaslek). Jarraian, *Mihiluze* (4), *Finlandia* (4), *Gaur egun* (1), *Anitzele* (1), *Pelota* (1) eta *Bernak* (1). Horiek dira DBHko ikasle guztien artean euskaraz ikusten edo gehien ikusten dituzten programak.

Eta gaztelaniaz zer ikusten dute?

Euskarazko programak laburtu ahal izan ditugu. Gaztelaniazkoekin ia ezinezkoa da hori. Zerrenda luzea da eta programen aniztasuna handia. Badira programak eta telebista kateak ezagutu ere egiten ez nituenak. Horregatik, eranskinean agertzen den zerrendan, beraiek idatzi bezala, akats eta guzti, jarri ditut. Beraz, programa ikusien zerrenda aztertu nahi duenak jo beza 4. eranskinera.

Esan bezala, kate asko agertzen dira eta programak ere asko dira. Kate digitalen eragina garbi ikusten da (*Disney chanel*, *Clan*, *Neox*, *Nitro*, *Sexta*, *Cuatro*, *MTV* eta horrelako kateak behin eta berriz, gela guztietan dira aipatuak).

Programa batzuk aipatzearren: *Hannah montana* (*Disney chanel*), *Bob esponja* (*Clan*), *El principe de Bel Air* (*Neox*), *Icarly* (*Clan*), *American's best dance crow* (*MTV*), *Los Simpson* (*Neox*), *Alerta cobra* (*cuatro*)...

Hizkuntza bakoitzean telebista ikusten pasatzen duten denbora eta zein programa ikusten dituzten eta ikusienak zeintzuk diren kontuan hartuz, garbi dago ikasle horien erreferentziak non dauden eta nondik elikatzen diren. Gogoratu, gela-argazkietan komunikazio-alorra zela urdinez agertzen zena batik bat, gaztelaniaren nagusitasun-moldaera, hain zuzen. Datu horiek guztiek emaitza hura berretsi besterik ez dute egiten.

Gaztelaniaz ikusten dituzten programak euskaraz baleude, ikusiko al lituzketen galdetzen zaienean, eta zergatik, honakoak dira aipatzen dituztenak:

Gehienek baietz erantzuten dute. % 76,56ak baiezkua dio. Aipatzen dituzten arrazoiaren artean, besteak beste, eta nagusiki, hauek daude: euskara gustatzen zaielako, hobeto ulertuko luketelako, gure hizkuntza delako...

Ezetz dioten % 23,44ak aipatzen dituen arrazoiak honela laburbil genitzake: erdaraz hobeto ulertzen delako, euskaraz grazia guztia galtzen dutelako, gaztelaniaz ikustea gehiago gustatzen zaielako, gaztelaniaz ikusten ohitu delako, ez delako berdina, euskaraz arraro geratzen delako...

Erantzun guztien zerrenda 5. eranskinean ikus daiteke. Hemen ere, beraiek esandakoa transkribatu besterik ez dut egin.


Azkenik, telebistaren atal honetan ETB1ari buruzko iritzia eskatzen zitzaien. Hau da, zer moduzko programazioa iruditzen zaien eta ea zerbait faltan botatzen duten. Era guztietako iritzia ematen dituzte. Ez da iritzi bat besteetatik gailentzen. Batzuetan ona, nahiko ona omen da ETB1, nahiz eta horietako zenbaitek jarraian adierazten duen ez duela ikusten. Programarik gustukoenei dagokienez, txikienek marrazki bizidunak aipatzen dituzte. Handixeagoek eta DBHkoek *Goenkale*, *Mihiluze* eta *Finlandia*. Zerbait faltan botatzen duten galdetuta, txikienek *marrazki bizidunak* aipatzen dituzte. Handixeagoek *Wazemank*.

Asko dira baita ere programazioa gustuko ez dutenak. Txarra, eskasa, kaxkarra eta antzeko hitzak erabiltzen dituzte. Ez dute gustuko eta ez dute ikusten.

ETB1ko programazioa, oro har ezagutzen dute. Baina ez dute ikusten edo gutxi ikusten dute. Aurrekoetan esan bezala, beste kateei lotuago daude, nahiz eta noizbehinka euskarazko programak ikusten dituzten. Erantzun guztien bilduma 6. eranskinean ikus daiteke.

2.- BIDEOAK, FILMAK.


- Galdera: zenbat bideo zinta edo pelikula ikusten dituzu, batez beste, astean ?



Gehienek 2 eta 4 ordu artean ikusten du astean. Hala ere, nahiko portzentaje adierazgarria da bat ere ikusten ez dutenena: % 34.

Zein hizkuntzatan ikusten dituzten galdetzen zaienean, eta zergatik, honakoak ikus daitezke.



- Grafikoan ikus daitekeenez, gehienek (% 83ak), gaztelaniaz ikusten dituzte filmak. Oso portzentaje txikia da euskaraz edo bietara berdintsu ikusten dituela esaten duena.




Zergatik galdetzen zaienean, honako erantzunak ematen dituzte: euskaraz ez daude, gaztelaniaz aukera askoz ere handiago dago, gaztelaniazkoak politagoak dira, hobeak eta ulergarriagoak dira...Filmak euskaraz ikusten dituztenek, bestalde, honako hau diote: ulertzen errazagoa egiten zaie, euskara gure hizkuntza da. Badago euskaraz bere arrebategatik ikusten duenik ere. Zerrenda osoa ikusteko 7. eranskinera jo.

3.- EGUNKARIAK

- Galdera: egunkaririk irakurtzen al duzu ?







Ikasleen ia heren batek ez du sekula egunkaririk irakurtzen. % 21ak egunero irakurtzen du. Gehienek, % 57, astean behin hurbiltzen dira egunkaria irakurtzera. Irakurtzen duten horietako gehienek etxean irakurtzen dute. Eskolan % 5ak. Liburutegian irakurtzen dutenak ozta-ozta iristen dira % 1era. Espero izan arren horrelako datuak, ez du horregatik harritu gabe uzten dauzkaten aukerak izan eta gero (etxea, eskola, liburutegia...) eta irakurketa sustatzeko egiten diren kanpainak egin eta gero, zein tasa baxutan mugitzen garen egunkarien irakurketari dagokionez.

Eta irakurtzen duten horien artean, zein egunkari, zein hizkuntzatan, irakurtzen dute gure euskal arnasguneetako gazteek? Nagusitasun handiz, % 66, *Diario Vasco* irakurtzen dute arnasgunetako ikasleek. Hori da, askogatik, ikasle horien etxe gehienetan sartzten den egunkaria. Izan ere, gehiengoak etxean irakurtzen baitu egunkaria (% 82). Euskara hutsean argitaratzen den egunkariak, *Berriak*, leku txikia du arnasgune horietako etxeetan eta irakurle apurra du (% 13a). Eta hori, bai eskoletan, bai liburutegian egunkari hori ere aurki dezaketeenean. Horiez gain, *Tolosaldeko Hitzak* badu irakurle multzotxo bat, baina hori ere ez da % 15 ingurutik pasatzen.

4.- IRRATIA

- Galdera: irratarik entzuten al duzu ?





Irratia bada, gure gaztetxoentzat, zinez erabiltzen duten bitarteko bat. Ia gaztetxo horien erdiak egunero entzuten du irratia (% 48) eta beste % 35ak astean behin gutxienez. % 17 da irratarik inoiz ez duela entzuten esaten duena. Euskarazko irratia nagusitzen da, batik bat *Euskadi Gaztea* (% 60) eta jarraian *Euskadi Irratia* (% 26). Beste irrati batzuk ere aipatzen dituzte tarteka-marteka...

Irratia kasu gehienetan musika entzuteko erabiltzen dute. Irratitik gehien gustatzen zaiena musika da. Musika entzuteko erabiltzen dute nagusiki irratia. *Euskadi Gaztea* da gehien entzuten dutena. Zein hizkuntzatan entzuten dute musika? *Euskadi gazteak* jartzen duen musikatik zenbatekoa da euskaraz? Zenbatekoa beste hizkuntzatan? Eskola Hiztun Bila XV. jardunaldian Aitor Oiarbidek aurkeztutako ikerketa baten emaitzak honakoak dira: euskaraz % 14, gaztelaniaz % 19, ingelesez % 65 eta frantsesez % 1. (ikus Eskola Hiztun Bila XV. jardunaldiko txostenak). *Euskadi gaztea* da aipatuena. Hala ere, batzuk aipatzen dituzte “*los 40 principales*” eta besteren bat. Kate horietan, noski, euskarazko musika ez dago. Faltan zer botatzen duten galdetzen zaienean, ez dutela ezer handirik faltan botatzen adierazten dute.

5.- CD-ak

- Galdera: zenbat denboraz entzuten dituzu egunean, batez beste, diskoak /CDak






CDen erabilera hedatua dago. Hala ere, alde nabarmenak daude batzuetatik besteetara. Gehiengoak (% 69) 30 minutu baino gutxiago erabiltzen du egunean. Aldiz, % 3ak hiru ordu baino gehiago entzuten duela aitortzen du. % 28ak 1-2 ordu arteko entzunaldiak egiten dituela dio.


Hizkuntzari dagokionez, oso dira datu adierazgarriak. Hiru hizkuntzen artean (euskara, gaztelania eta ingelesa) nahiko modu parekatuan banatzen dute dagoen denbora. Praktikoki bakoitzak hiru zatietako bat hartzen du.

Zergatik egiten duen aukera hori galdetuta, honakoak dira laburtuta aipatzen dituzten arrazoiak:

Gustua da arrazoi nagusia, nahiz eta badagoen “*gure hizkuntza delako*” aipatzen duenik edo gaztelaniaz gehiago ulertzen duela esaten duenik. Oro har, politak direlako, beraien abeslari gustukoenak hizkuntza horretan kantatzen duelako, erritmo gehiago dutelako edo antzekoak. Hizkuntza batekoa izan edo bestekoa izan ez da mugatzailea. Hiruretan mugitzen dira asko modu erosoan. Hala ere bada lehentasun ordena bat ezartzen duenik: “*Ingelesa, gaztelania eta euskara; orden horretan*” edo aplikazio praktikoa ere eranstean dionik : “*Ingelesez gehiago gustatzen zaizkit; gainera, hala ingelesa gehiago ikasten dut*”. Erantzun guztien bilduma 8. eranskinean duzue.

6.- INTERNET







Interneten erabilera zabaldua dago arnasgune horietako ikasleen artean. Guztiek dute harremana internetekin. Gehienek etxean dute, % 91ak, eta bestela eskolan erabil dezakete eta erabiltzen dute. Maiztasun handiz dira erabiltzaile gainera. % 41ek adierazten du egunero erabiltzen duela. Hor kontuan izan behar da 4. mailako ikasle multzo bat badagoela eta pentsa genezakeela horiek gutxiago erabiliko dutela. Egunero erabiltzen dutenei, astean bizpahiru aldiz erabiltzen dutenak batuz % 77ra iritsiko ginateke.

Gehienek etxean eta eskolan, bietan erabiltzen dute. Zertarako erabiltzen duten internet galdetuta, web orriak ikusteko esaten dute gehienek (% 43), gero txateatzeko (% 37) edo posta erabiltzeko (% 20). Hala ere, badira xede bietarako edo hiruretarako erabiltzen dutela adierazten dutenak. Beraz, nahiko modu zabalean hartu behar dira portzentaje horiek.

Zein hizkuntzatan dabilta sarean? Gaztelania da nagusi. Gaztelaniaz gehiago mugitzen dira sarean euskaraz baino. Ez dago alde nabarmenik, baina gaztelaniaren nagusitasun-moldaera gailentzen da.



Zergatik darabilten hizkuntza bat edo beste zehazten dutenean, beraien eguneroko bizimoldea ikus daiteke. Euskaraz dabiltzanean aipatzen dituztenak honakoak dira: ikasteko, lagunekin txateatzeko (beraien lagunak ere euskaraz egiten dutelako), gure hizkuntza delako, ulergarriena zaielako... Gaztelaniaz ari direnean berriz: gauza gehiago dagoelako hizkuntza horretan, gehiago ulertzen duelako, Europako lagunak dituelako eta haiekin txateatzeko, berarekin konektatzen direnak gaztelaniaz bakarrik dakitelako, ohitura, errazagoa egiten zaiolako edo besterik gabe horrela gustatzen zaiolako. Erantzun guztien bilduma 9. eranskinean dago

7.- LIBURUEN IRAKURKETA



Nahiko modu parekatuan irakurtzen dituzte bi hizkuntzatan liburuak. Badago portzentaje bat liburu bat ere ez duela irakurtzen dioena. Hala ere, gehienek hilean bizpahiru liburu edo gehiago irakurtzen dituzte. Gainera bai euskaraz, bai gaztelaniaz. Ez dago alde adierazgarririk batetik bestera, nahiz eta euskarazko liburuen irakurketa portzentualki handixeagoa den. Galderan esaten zitzaion eskolako lanekin zerikusirik ez duen liburu irakurketaz galdetzen geniola. Beraz, hori horrela baldin bada nahiko irakurketa indize txukunak lirateke horiek. Edozein modutan, zalantzak sortzen ditu irakurketa protzentaje hain altuak. Hala ere, beraien erantzunak bere horretan jaso ditugu eta horietan oinarrituta atera zaizkigu datu horiek.

8.- ALDIZKARIAK



Erdiak baino gehiagok aldizkariak irakurtzen ditu. Batik bat etxean irakurtzen ditu. Hala ere, gehiengo bat, % 72a, ez dago inongo aldizkaritara harpidetuta.

Zein aldizkari dira ikasle horiek irakurtzen dituztenak?

Merezi du hona ekartzea aipatutako guztiak. Bakoitzaren ondoan, zenbatek aipatu duen agertzen da parentesi artean. Hauek dira:

Errota beltza (13), Aiurri (10), Bravo (10), Galtzaundi (8), Futbolista (7), Aldin eta aidanean (4), Betizu (4), Patito feo (3), Marca (3), Don balón (3), Como tu (3), Hola (3), Super pop (3), Mantangorri (3), Perros y compañía (2), Muy interesante (2), Sport (2), Tu (2), Moto verde (2), Argia (2), Semanal (2), Pala, pico, pata, Hi etxean, Hannah-Montana, Irria, Disneykoa, Teens stars, Enduro, As, Junior, NBA, Pop music, Top music, Girls, Pronto, Motoen aldizkariak, Nintendo acción, Hitza, Offraad, Jara y sedal, Todo rally, Futbola eta kotxeak, Zazpina, Venca.



Ikusten denez, eskualdeko, edo eskolako aldizkariak dira irakurrienak. Gero, beste mota batekoak. Eskualdeko aldizkariak kenduz gero, beste guztiak gaztelaniaz argitaratzen direnak dira. *Argia* izan daiteke salbuespen bakarra, baina 194 ikasletatik 2k aipatzen dute hori irakurtzen dutela. Oro har, euskarazko aldizkarien irakurketa oso apala da. Halere gaztelaniaz argitaratutako aldizkariak badute bere lekua ikasle horien irakurketetan.

Harpidetza dagokionean, *Betizu* da harpidetza gehien duena. Gero, *Beterri* eskualdeko aldizkariak jarraitzen dio. Besteak, urrun geratzen dira. Harpidetzen portzentajea, lehen ikusi dugun bezala, % 28an kokatzen da. Hauek dira aldizkari bakoitzaren harpidetzak:

Betizu (31), Aiurri (15), Botinews (3), Galtzaundi (2), Hitza (2), Irria, Muy interesante, Errota beltza eta badago ikasle bat honakoa aitortzen duena: “nire ama Argia eta Galtzaundiko harpide da “; ez dakiguna da, hori horrela, berak irakurtzen dituen ala ez.

9.- ERAKUSKETAK- EMANALDIAK

- Galdera: Erakusketetara (margoak, eskulturak...) edo emanaldietara (antzerkia, bertso-saioak...) joaten al zara?



Emanaldi kulturaletara joateko maiztasunari buruz galdetuta, inoiz ez direla joaten edo hilean behin baino gutxiagotan joaten direla dio gehiengo nabarmenak, % 77k. Hilean behin joaten dela esaten duena batuz % 93an jarriko ginateke. Beraz, gure ikasle horien artean ez dago erakusketak edota kultura emanaldietara joateko ohitura edo joera handiegirik. Joaten diren kasuetan zein hizkuntzetan diren galdetuta, gehiengo batek euskaraz direla dio. Hala ere, eta ingurune horretan dagoen eskaintza gehienbat euskaraz dela jakinik, nahiko adierazgarria egiten da heren batek ia, gaztelaniaz ikusten edo entzuten dituela esatea.

HERRIKO BESTE ATALETAN. DATU JASOTZEA ETA BEHAKETA.

Atal honetako datuak jasotzeko 3. eranskinean agertzen den galdetegia erabili dugu. Herri horietako irakasle batzuen laguntza izan dut horretarako. Herriz herri jaso badira ere, guztien laburbilduma ekarri dugu hona.

Udalerria:

1.- *Udalerriak ba al du EBPN edo beste normalkuntza planik ?*

2 kasutan udalerriak indarrean du normalkuntza plana. Beste batean jartzekotan dira.

- *Euskara teknikaririk ba al dago ?*

4 kasutan ez dago euskara teknikaririk udaletxean.

2.- Udaletxean:

- *Udal batzak zein hizkuntzatan?*

Oro har euskaraz burutzen dira. Kasuren batean, gaztelaniara jo beharrean aurkitu izan dira, baina oro har euskaraz burutzen dira batzar eta bilerak. Hori aztertutako lau herrietan, nahiz eta batzuetan euskararen erabilera sendoagoa sumatzen den. Kasuren batean aipatzen da ia-ia ehuneko ehunean euskaraz burutzen direla; baina kanpoko norbait etortzen delarik, gairen bat tarteko dela eta kanpoko horrek euskaraz ez dakienean egiten da gaztelaniaz. Baina ohiko herriko batzarrek euskaraz.

- *Herritarrekiko komunikazioak: bandoak, herriko jai egitaraua, udaleko zerga ordainketak etab.*

- Euskaraz hein handi batean. (3 kasutan horrela azaltzen dute).

- Beste kasu batean, zehatzago aipatuz, elebitan egiten direla esaten da.

o *Harrera:* euskaraz

o *Tramite administratiboak:* elebitan, nahiz eta zenbait kasutan euskaraz bideratzen diren.

o Udaleko “obra teknikariak” ez daki euskaraz baina ez du herritarrekin harreman zuzenik.

o Herriko brigadako denek (kale-garbitzaile, kaleko eta eskolako konponketak...) euskaraz hitz egiten dute.

o Eskolarekin harremana %100 euskaraz da: idatziak, FAXak, brigadakoentzako lan-zerrendak, fakturak...

3.- Irakaskuntza.

Arnasgunearen indargarri bilakatzen da irakaskuntza aztertutako lau kasuetan. Irakaskuntza arautua euskaraz antolatua dago.

- *Hautzaindegirik ba al dago ? Zein hizkuntzatan.*

Hautzaindegi zerbitzua, lau kasuetan, erabat euskaraz izaten da.

- *Eskola*

Eskola guztiek D ereduan jarduten dute.

Irakasle guztiak EGAdunak edo HE2 dunak dira.

Irakasle asko bertakoak edota ingurukoak (Tolosaldekoak) dira. Horiez gain badaude Donostialdeatik, Azpeititik edo beste herri batzuetatik datozenak. Irakasle batzuk hitanoa menperatzen eta erabiltzen dute beraien artean edota ikasleekin.

- *Gau eskola:*

Kasu batean aipatzen da martxan dagoela gau eskola 6 ikaslerekin. Beste kasu batean, joan zen ikasturtean eskolako normalkuntza planaren bidez, mintzalagun programa martxan jarri zela. Beste bi kasuetan ez dago gau eskola dei geniezaiokeen modukorik. Hala ere, zenbait kasutan, eskolaren bidez, gurasoei helarazten zaie euskara ikasteko egon daitezkeen aukeren berri eta, taldea sortuz gero, martxan jarri izan dira ikastaroak. Hala ere, azpimarratzekoa da eragozpenik izan ohi dela taldeak sortzeko.

4.- Udal Liburutegia:

Hiru kasutan Udal liburutegia badago .

Hornikuntzari dagokionean, euskarazko fondoa nahiko osatua dela uste da, batik bat haur eta gaztetxoentzat daudenetan.

Bazkideei dagokienez, herritar guztiek izanik erabiltzeko aukera, mailegutzan hartutako liburuak edota liburuak ez diren beste materialak zenbateraino mailegatzen diren ikustea komeni da.

Oro har, eta jasotako datuak kontuan izanik, esan genezake haur eta gaztetxoek kasuan gehiago irakurtzen dela euskaraz. 12 urteren bueltan jarriz gero mugarriren bat, esan genezake, adinean gora joan ahala, beheraka doala euskaraz irakurtzeko ohitura. Zehatz-mehatz ezin dugu proportziorik eman, baina joera hori berresten dute jasotako datuek.

Beste kontu bat da liburuak ez diren materialak (DVDak, etab.). Kasu horietan gaztelaniazkoak gehiago mailegatzen dira. Horretan zerikusia izan dezake, kasu askotan, euskarazko eskaintzaren urritasunak. Kasu batean aipatzen den bezala: gaztelaniazko nobela gehiago irakurtzen dira euskarazkoak baino (helduak). Azkenaldi honetan euskaraz irakurtzera gehiago animatzen ari da jendea. Honetan irakurketa taldeak ere eragin du. Irakurketa taldean landutako liburuetatik ale bana liburutegian uzten dute, eta mailegutzan har daitezke. Liburu horiek DBHko ikasleei ere ondo datozkie, askotan ikastetxean agindu edota gomendatutakoak izaten baitira.

5.- Komunikabideak

- *Herriko/eskualdeko aldizkariak.*

Herri batean badago, herri mailan, urtean behin ateratzen den aldizkaria (*Aidanean*) eta hori etxe guztietan banatzen da. Inoiz antzeko egitasmoak egon izan dira beste herri batzuetan ere, baina gorabeherak izan dira eta ez dira finkatzera iritsi. Beste kasuetan ez dago aldizkaririk, maiztasun batez ateratzen denik. Eskolek badute ohitura aldizkaria ateratzeko urtean behin edo, eta horiek banatzen dira ikasleen bidez etxe guztietara (*Errota Beltza* eta *Gure Kabitik* kasu). Eskolako aldizkari horietan ikasleen lanak dira, oro har, edukiaren funtsa.

Eskualdean bi aldizkari argitaratzen dira: *Galtzaundi* (Tolosalde osoan banatzen dena) eta *Aiurri* (*Beterri-Aiztondon* jasotzen dena).

Aldizkari horien irakurle kopuruak ezin dira zehatz-mehatz jakin, zeren bi bide erabiltzen dira beroriek eskuratzeko. Batetik, harpidetza sistema dago eta etxean jaso daitezke. Bestetik, aldizkariak leku jakinetan (dendetan, etab.) uzten dira, nahi duenak

har dezan. Hala ere, *Galtzaundiko* harpidetzen kopuruak ideia bat eman diezaguke bere errotzeari buruz.. Hauek dira:

HR1.- 4 harpidetza. Uzten diren aldizkariak: 155

HR2.- 7 harpidetza. Uzten diren aldizkariak: 200

HR3.- 0 harpidetza. *Aiurri* jasotzen da herri horretan. Ez da *Galtzaundi* banatzen.

HR4.- 4 harpidetza. Uzten diren aleak: 100

- Irratia. Eskualdean irrati bat badago, Txolarre irratia. Horrez gain, zenbait eskolak ere badute beraien emisioa. Ez ditugu jaso entzuleen kopuruen datuak.

- Eskualdean badago, halaber, telebista kate bat: 28 kanala. Ez ditugu jaso entzuleen kopuruen datuak.

- Egunkariei dagokienez, gero aztertuko ditugun nazio eta estatu mailako egunkariez gain, eskualdeko egunkaria ere (*Hitza*) aipatu beharrekoa da, duen zabalkundearen garrantzia kontuan izanik. *Hitzaren* harpidetzak gehiago dira herri guztietan, *Galtzaundi* aldizkariarekin alderatuz. Kontuan izan behar da, bestalde, *Berriako* harpideek *Hitza* ere jasotzen dutela. Beraz, horiek haiei gehitu beharko litzaizkieke harpideen kopurua jakiteko garaian. Honakoak dira harpide kopuruak:

HR1.- *Hitzaren* 125 harpide. Horiei 39 *Berriako* harpide gehitu beharko genizkioke, horiek ere *Berriarekin* batera *Hitza* jasotzen dutelako. Guztira *Hitza* jasotzen dutenak: 164

HR2.- *Hitzaren* 58 harpide. Gehi 26 *Berriakoak*. Guztira *Hitza* jasotzen dutenak: 84

HR3.- *Hitzaren* 22 harpide. Gehi 16 *Berriakoak*. Guztira *Hitza* jasotzen dutenak: 38

HR4.- *Hitzaren* 38 harpide. Gehi 17 *Berriakoak*. Guztira *Hitza* jasotzen dutenak: 55

Kopuru horiek noraino diren esanguratsuak edo ez jakiteko, beste hainbat daturekin konparatu beharko genituzke. Adibidez, herri bakoitzeko euskaldun alfabetatuen kopuruarekin konpara genezake. Konparazio hori, hala ere, oso kontuz hartzekoa litzateke, zeren alfabetatuen datuak 2006koak dira, 2 urtetik gorako biztanleak harturik, eta *Hitzaren* harpidetza datuak 2012koak dira. Hala ere, joera edo proportzioak ikusteko baliagarria izan daiteke konparazio hori. Hauek lirateke, herriz herri, konparazio horretako datuak:

HR1.- 1099 euskaldun alfabetatu. *Hitzaren* 164 harpide. Beraz, alfabetatuen % 14.92

HR2.- 752 euskaldun alfabetatu. *Hitzaren* 84 harpide. Alfabetatuen % 11.17

HR3.- 926 euskaldun alfabetatu. *Hitzaren* 38 harpide. Alfabetatuen % 4.10

HR4.- 740 euskaldun alfabetatu. *Hitzaren* 55 harpide. Alfabetatuen % 7.43

- **BERRIA** Euskal herriko egunkari euskaldun bakarra da. Zein errotze-maila du arnasguneetan? Zenbat harpide ditu aztergai ditugun herri horietan? Zenbatek irakurtzen ote ditu euskaraz eguneroko berriak, iritzi artikulatuak.... ? Ikus ditzagun herri horietako **BERRIA**ko harpide kopuruak eta konpara ditzagun bertako alfabetatu kopuruarekin.

HR1.- 39 biztanle **BERRIA**ko harpidedun. 1099 euskaldun alfabetatu. Beraz: alfabetatuen % 3.55


HR2.- 26 harpidedun. 752 alfabetatu. Beraz: alfabetatuen % 3.46

HR3.- 16 harpidedun. 926 alfabetatu. Beraz: alfabetatuen % 1.73

HR4.- 17 harpidedun. 740 alfabetatu. Beraz: alfabetatuen % 2.30

Zein egunkari irakurtzen da herri horietan? Zein egunkari erosten da astean zehar? Zein asteburuetan?

Ikasleei zein egunkari irakurtzen duten galdetu zitzaienean honelako datuak jaso genituen:



Ikus ditzagun orain beste bide batetik (banatzaileetatik eta dendetan bildutako datuak) jasotako informazioan arabera zer egunkari diren herri horietan saltzen/irakurtzen direnak. Datu hauek aldakortasun bat izan dezakete. Hala ere joerak ikusteko baliagarriak direla uste dugu.

Herria	Berria	Diario Vasco	Gara	Noticias de Gipuzkoa	Beste batzuk
HR1	Astegunean: % 9,64 Igandean: % 7,62	% 63,60 % 65,31	% 10,96 % 10,88	% 5,26 % 4,66	% 10,54 % 11,53
HR2	% 11,98	% 71,89	% 12,44	% 3,69	Ez da daturik jaso
HR3	% 2	% 80	% 10	% 8	Ez da daturik jaso
HR4	% 12,59	% 74,07	% 10,37	% 2,96	Ez da daturik jaso

Besteak atalean.... *Deia*, *El Pais*, *El Mundo*, *Gaceta Negocios*, *Mundo Deportivo*, *Marca*, *Sport*, *As*, *Expansión País Vasco* etab. aipatzen dira.

Alde batzuk badaude, txikiak badira ere, astegunetik asteburura. Asteburuetan zertxobait gehiago saltzen dira egunkariak. Datuak jaso dituen kide batek esaten duen moduan: Badirudi, *Berria* eta *Gara* mantentzen direla berdin xamar, eta *Marca*, *Mundo Deportivo*, *Sport*, eta *El Pais* saltzen dela “pixka bat” *Diario Vascoren* kaltetan

Ikasleengandik jasotako datuak eta irakasleek jasotakoak konparatuz, alde txiki batzuk ikus daitezke. Hala ere, joerak bat datoz, eta asko hurbiltzen dira datuetan ere.

Datu horien argitara, garbi samar dago arnasguneetan ere gaztelaniaz argitaratzen diren egunkariak direla salduenak/irakurrienak. Nabarmen gainera. *Diario Vasco* da, askogatik, egunkari hedatuena. Arnasguneetan ere bera da gehien kontsumitzen dena.

Euskaraz argitaratzen den egunkaria (*Berria*) aski neurri apalean saltzen /irakurtzen da. Harpidetzak oso dira txikiak. Konparatu besterik ez dago biztanleen eta alfabetatuen zein portzentajek hartzen duen egunkaria euskaraz irakurtzeko erabakia. Horrek guztiak, noski, zer pentsatua ematen du arnasguneen kontsumo kulturalari dagokionez. Gune euskaldunenetan ere, albisteak, iritziak, erreportaiak.... gaztelaniaz jasotzen dira. Horrek ezinbestean eragina izan behar du gai jakinetako terminologiaren finkapenean, espresio eratuen erabilpenean, hiztegiaren zabalkunde edo murriztean etab.

6.- Lan-mundua

Lan-mundua ez dugu zehatz-mehatz aztertu. Batetik, ez delako erraza datuak jasotzea hizkuntza-erabilerari dagokionez. Oso egoera anitzak eta aldakorak ematen dira hor eta erabilera portzentajetan sartu beharko genuke. Hala ere, jasotako datuen arabera bai azter ditzakegula ematen ari diren aldaketa batzuk, joera batzuk, hizkuntzaren erabilerari dagokionez enpresa horietan.

Aztertutako lau herri horietan, enpresa bakar bat bakarrik aurkeztu zen *Lanhit*z deialdira 2010an eta 2011n. *Lanhit*zeko datuen arabera, enpresa bakarra legoke lau herrietan euskara plana martxan duena. Beste bideren bat erabili ote den ala ez, euskara planik badaukaten edo ez, ez daukagu informazio zehatzik. Hala ere, ez dirudi herri horietako enpresetan euskara plan zehatzik daukatenik. EMUN, ELHUYAR eta datuek jasotzen aritu diren kideen arabera lau herrietan ez dago euskara planik duen enpresarik. Kasu batean aipatzen da: *Momentu honetan ez dago “euskara planik”-edo duen enpresarik. Orain lauwpabost urte, pare bat lantegitan hasi omen zen lanean (EBPNrekin) baina “urrialdia” iristean arrazoi bategatik edo besteagatik geratu egin omen ziren.*

Enpresa gehienen dokumentazioa, paisaia, etab., gaztelaniaz dago. Enpresaren kudeaketa hein handi batean gaztelaniaz egiten da.

Langileen arteko erabilerari dagokionez, egoera anitzak daude, egoera nahasiak ematen dira. Enpresa handi, ertainetan langile guztiak ez dira euskaldunak eta horrek asko baldintzatzen du beraien arteko euskarazko erabilera, nahiz eta langileen arteko euskararen erabilera-portzentajea handiagoa izan beste eskualdetako enpresa askotan baino. Hor zerikusi handia du langile horietako asko herrikoak edo ingurukoak izateak. Beraz, hizkuntzaren erabilera asko baldintzatua dago langileen ezaugarriekin. Hor kontuan hartu behar da bestalde langile horiek herrian bizi diren ala ez, edota lanera bakarrik joaten diren herrira. Hizkuntzaren jabetze prozesuak badu hor zeresanik.

Enpresa txikiagoei dagokienez, joera berri batzuk ere sumatzen ari dira. Azken urtetan zenbait lantegitara etorkinak inkorporatu dira (okindegietara, zerrategietara...) eta orain arte hein handi batean euskaraz jarduten zutenak, orain elebitan jarduten hasi behar izan dute. Edozein modutan, era askotako errealitateak ageri dira euskararen erabilerari dagokionez.

Azkenik, langile autonomoen errealitatea legoke. Herri mailan eta inguruetan igeltsero, arotz lanak etab. egiten dituztenak sortzen dira hor. Horietariko asko euskaldunak dira. Beraien bezeroekiko eguneroko jarduna euskaraz burutzen da. Beste gauza bat da fakturazioa edota kudeaketa dokumentuei dagokiona. Horietako askok gaztelaniaz ditu paper kontuak.

Bukatzeko esan dezagun arnasguneetako enpresetan, lan esparruan, gertatzen ari diren aldaketak zehatzago aztertzea merezi duela eta egin beharreko lana dela. Hala ere, lantxo honen baitan ezinezkoa da. Atal honetan joerak deskribatzera mugatu beharrean gaude.

7.- Merkataritza

Merkataritzaren esparruan herri horietako jatetxeak, tabernak, dendak etab. izan ditugu aztergai. Horietan harrerako hizkuntza eta erabilera izan dugu aztergai batetik; dokumentazioa, paisaia (menuaren hizkuntza) etab. bestetik. Esan beharrik ez dago azterketa zehatzago eta sakonagoa beharko litzatekeela zehaztasunez hitz egiteko. Hala nola, erabileraren behaketa jarraitua, tiketen hizkuntza, oharren hizkuntza, eskura jartzen diren egunkari, aldizkarien hizkuntza etab. Horrek guztiak ikuspegi zabalagoa eta zehatzagoa emango liguke. UEMAk egina du herri batzuetan, merkataritza kanpainaren baitan, horrelako analisia. Herri bateko datuak handik hartuak dira. Hala ere, datu batzuetara mugatuko gara hemen: herri horietako merkataritzako errealitatea deskriba dezakete datuok; joera batzuk iradoki ditzakete.

Aldeak daude herri batzuetatik besteetara. Aztergai izan ditugun bi herritan euskara erabiltzeko ez dago zailtasunik bertako merkataritza esparruan. Merkatarari denak euskaraz dakitenak dira. Beste bi herritan, biztanle gehien dituztenetan, aldiz, erabileraren portzentajea altua bada ere, badago denda bakanen bat edo jatetxeren bat edo beste gaztelaniaz diharduena.

Horietako batean, harrera eta erabilera euskaraz da % 93,10ean. Bestean, aldiz, % 60ean euskaraz dela kontsidera genezake, eta % 30ean elebitan. % 10ean gaztelaniaz egin behar da, merkataria edo bertako langileak ez dakielako euskaraz. Datu horiek ez dira zehatz-mehatz hartu behar, errore tarte izan dezakete. Hala ere, jaso ditugun datuetatik atera ditugu. Bestalde, elebitan diogunean bi hizkuntzen arteko nahaste edo etengabeko kode aldaketaz arituko ginateke. Zenbait kasutan hori nabarmena da.

Faktorei bagagozkie, eta batik bat ostalaritzan ikusitakoaren arabera, kasu gehienetan gaztelaniaz daude. Ikusitako kasuen % 80 edo gehiago daude gaztelaniaz. Badira elebitan dauden kasu batzuk, eta bakan batzuk dira euskaraz soilik daudenak. Tiketak, kasu gehienetan, gaztelaniaz daude.

Paisaiari dagokionez, gaztelaniaren presentziak leku handia du. Batik bat kate bateko denda denean. Hornitzaileak sortua denean, horietan eskaintzak, produktuen ezaugarriak deskribatzen dituzten oharra, panelak, etab., gehienetan gaztelaniaz dira. Beste kasu batzuetan, bertakoek jarritako oharra, deiak, etab., direnean, euskaraz edo elebitan azaltzen dira. Merkatarari berak jarriak direnean, erdia baino gehiago euskaraz edo elebitan egoten da. Hor ere, herri batetik bestera aldeak daude.

Denda, jatetxe, harategi, kafetegi edo dena delako saltokiaren izena, ia kasu guztietan, euskarazkoa da. Deigarria da joera hori. Joera hori, bestalde, arnasguneetatik kanpo ere, aski zabalduta dago. Pertenentzia edota desio baten adierazgarri ote?

Menuaren hizkuntzari dagokionean, kasu askotan ez dago idatzirik. Ahoz esaten da dagoena. Idatzita agertzen den kasuetan, gehienetan elebitan dago. Badira kasu bakan batzuk euskaraz daudenak edota gaztelaniaz bakarrik idatzitakoak.

Datu horien argitan zera ikus genezake: euskararen erabilera handia dela herri horietako saltokietan. Saltzaileak, oro har, gai dira eta egiten dute euskaraz. Hala ere, gaztelania badu sarbidea eta erabilera. Kasu batzuetan, gutxienetan, saltzaileak ez dakielako euskaraz. Beste kontu bat da mintzajardunean kode aldaketaren fenomenoak. Horrek hedapen handia du. Datuak biltzen lagundu zidan irakasle batek, herri horretan bertan jaio eta bertan bizi denak, oso modu grafikoa kontatzen zidan erosketak egitera joaten zen betiko dendan, zer-nolako aldaketa gertatzen ari zen azken urtetan bere begien aurrean. Betidanik beraien artean euskaraz aritu izan diren bizilagunak, euskara/gaztelania tartekatzen edota gaztelaniaz hitz egiten sumatzen dituela. Nahikoa omen da kidetakoren bat gaztelaniaz zertxobait esaten hastea, beste guztiak ere

hizkuntzen arteko dantza horretan murgiltzeko. Hizpide dituzten gaiek ere, ba omen dute hor zerikusirik. Telebistan ikusitakoaz, azken aldizkarian irakurritakoaz, eta era horretako gaiez ari direnean, askotan gaztelaniaz jasotako eduki horiek gaztelaniaz kanporatzen omen dituzte. *Zer jan, hura...* Gure kontsumo kulturalak, gure mundu erreferentzialak etab. izango dute, seguruenik, hedatzen doan fenomeno horretan zeresanik.

Paisaia eta jestio dokumentuetan gaztelaniaren hedapena askoz handiagoa da. Aspalditik datorren inertzia izan daiteke horren arrazoietako bat.

Lan-munduari buruz esan dugunaren haritik, merkataritzaren hizkuntza-egoerak azterketa sakonagoa beharko luke, aldagai gehiago hartuz eta jarraipen zehatzagoa eginez.

8.- Finantza-etxeak

Aztertu diren kasuetan finantza-etxeek, konkretuki *Kutxak*, euskaraz hitz egiteko inolako eragozpenik ez dute. Harrera eta hitzezko erabilera euskaraz da. Batetik kartelak etab. herrialde guztirako egiten direnez, elebitan edota euskara hutsean egoten dira. Herriko zenbait ekimenen babesle denean, sortzen den propaganda (emanalditxoak, festa kartelak, *Kutxa Fundazioa*ko ekitaldiak...) euskara hutsez izaten dira ia beti haurrentzako direnean, eta elebitan helduentzako edo denentzako direnean.

9.- Garraioa

Herri horietako garraio zerbitzuak TSS edota Lurralde Bus dira. Autobus-gidariei dagokionez, jasotako datuen arabera badaude euskaraz ez dakiten gidariak. Batik bat TSSkoen kasuan. Ehuneko nahiko altuan gidari erdaldunak omen dira. Taxi zerbitzua ehuneko handian, ia osoki, euskalduna da.

Esparru honetan ere ez legoke gaizki datu zehatzak jasotzea, nahiz eta hizkuntzaren erabilerari dagokionez, ez duen lan munduak edota merkataritzak duen eragina.

10. Osasun-zerbitzua.

Osasun-zerbitzua ez da guztiz euskalduna.

Aztertutako lau herrietan 5 medikutatik 3 euskaraz moldatzeko gai dira. Beste bi kasuetan hizkuntza gaitasunez juxtu omen dabilta. Ikasten ari diren medikuak dira eta, hainbatean moldatzen badira ere, batzuetan oztopo txiki batzuk sortzen omen dira.

Medikuaz gain, beste osasun-zerbitzuei dagokionez, jasotako datuen arabera, kasu batean bertako zerbitzuak (pediatra, erizaina...) euskaraz atenditzeko gai dira. Beste kasu batean bertako erizaina gaztelaniaz aritzen da. Beste bi herritan, gauza bera gertatzen da. Batean erizaina euskalduna da, bestean gaztelaniaz aritzen da. Beraz, lautatik bi kasutan erizain-zerbitzua gaztelaniaz ematen da.

Botika, berriz, 2 kasutan ez da gai bere zerbitzua euskaraz eskaintzeko. Beste kasu batean, ikasten ari da botikaria: *"ulertzen du, baina berak hitz egiteko garaian gaztelaniara lerratzen da, horrek bezeroengan duen eragin ezagunarekin"*.

11 Eliza

Aztertutako lau kasuetan katekesia euskaraz bideratzen da. Elizkizunean dagokienean, mezak, etab., euskaraz egiten dira ia beti. Horietako herri batean, astean behin, meza elebitan egiten da.

12. Aisialdiko taldeak

Herri horietan badaude hainbat elkarte eta talde. Elkarte gastronomikoak, kultura- taldeak (kasu batzuetan), dantza taldea, mendi elkarteak, etab.

Oro har, eta jasotako datuak kontuan izanik, ia talde-elkarte guztietan euskararen erabilera oso handia da. Kasu batzuetan euskara hutsean jarduten dute. Beste batzuetan elebitan, kideen hizkuntza-ezaugarriak horrela eskatuta. Edozein modutan erabilera nagusia euskarazkoa da.

Dokumentazioari dagokionez, euskara baldin bada ere gehien erabiltzen dena, badaude kasuak elebitan dihardutenak.

Esparru honek ere zehaztasun handiagoa beharko luke, elkarte elkarte aztertuz hizkuntza erabilera eta dokumentazioaren egoera. Ez da lantxo honen xedea zehaztasun horietara jaistea, beraz aurrera begira egin daitezkeen analisia zehatzagoetarako utziko dugu. Edozein modutan, joera nagusia garbi ikusten da jasotako datuetan. Hau da, euskara hizkuntza erabilia da elkarte horien eguneroko jardunean. Nagusiki euskara erabiltzen da, nahiz eta gaztelaniak ere baduen bere txokotxo. Dena den, kontuan hartu behar da aztergai izan ditugun herri batetik bestera alde txiki batzuk aurki genitzakeela. Datu demolinguistikoekin korrelazioa dutenak, hein handi batean.

Herriko beste esparruetako datuen atal honi amaiera emateko, esan dezagun aztergai izan ditugun herrietan eguneroko jardun arrunta, oraindik ere, euskaraz burutzen dela hein handian. Administrazioa, zerbitzuak, merkataritza, etab., euskaraz bizi dira tamaina ohargarrian. Hala ere, hainbat hutsune ikusten dira eskaintzari dagokionez: nabarmenena osasun-zerbitzua da. Bestalde, biztanleen erabilera xeheago aztertu beharra dago. Hor ere, kode-aldaketa eta antzeko fenomenoak indartzen ari dira eta gaztelaniak bere sarbidea erraz aurkitzen du. Azkenik esan, deigarri egiten direla kontsumo kulturalaren datuak. Eskasa da , arnasgune horietan, euskal prentsaren inpaktua. Urria da euskaraz irakurtzen dutenen ehunekoa. Gaurko bizimoldea kontuan hartuz, horrek izan dezake eraginik hizkuntza beraren lanketan eta aberaste edo pobretze prozesuan, hala nola komunitate linguistiko eta kultural horren erreferenteen munduan.

ARNASGUNE HORIETAKO PAISAIA LINGUISTIKOA.

Azken atal honetan herri horietako paisaia linguistikoa zertxobait, oso gainetik, aztertzen ahaleginduko gara. Horretarako, herri horietan ibili eta han eta hemen argazkiak ateratzea izan da egin duguna. Argazki ugari atera ditugu. Lehen begiradan atera daitezkeen ondorio batzuk eskuratzea: hori izan dugu xede. Azaleko paisaia aztertuko dugu, beraz: udalerriko seinaleak, merkataritzako errotuluak, lantegien izendapenak, partikularren oharrak etab. Ez gara sartu, noski, bakoitzaren baitan, barnean, hizkuntza paisaia hori nolakoa den aztertzeraz. Are gutxiago sartu gara, bere kudeaketarako dokumentuen hizkuntza nolakoa den aztertzeraz. Soilik aurkezpeneko, azaleko, hizkuntza erabilera izan dugu aztergai. Herrian zehar txangoa egin eta ikus daitekeena hona ekartzera mugatu gara, hain zuzen. Ikusitakoaz ohartxo batzuk egitera. Ondoriotxo batzuk aipatzera. Edozein modutan, herri bakoitzean ateratako argazki guztien bilduma 10. eranskinean aurki daiteke.

Iruzkinek egiteko garaian ezin ditugu denak zaku berean sartu. Badaude aldeak herri batetik bestera eta baita sektore batetik bestera ere herri berean. Ikus ditzagun labur labur, atalez atal, horietako alderdi batzuk.

A) SEINALE OFIZIALAK.

- Hiru eratakoak aurkitzen dira. Foru Aldundiak edota antzeko erakundeek, -herri mailatik haratagokoek- jarritakoak. Oro har, horiek guztiak elebitan daude



- Udalak jarritakoak, aldiz, gehienak euskara hutsean daude. Garbi ikusten da hori lau herrietan. Bide-seinaleak, parkeetako kartelak, kaleen izenak, baserri eta auzoetarako seinaleak, etab., ia guztiak euskaraz daude.





Ildo beretik euskaraz daude herri mailan udalak jarritako argibideak edota herriko ekimenen berri ematen duten kartelak.



Azkenik, enpresa jakin batzuek herriko zenbait gunetan jarritakoak leudeke. Horiek, guztiak gaztelaniaz daude:



B) MERKATARITZAKO ERROTULAZIOA

Denden, jatetxeen, saltokien eta antzekoen errotulazioa, oro har, euskaraz dago. Euskaraz gehiago dago, nahiz eta gaztelaniaz edota elebitan ere aurki daitekeen bat edo beste.



Gaztelaniaz edo elebitan ere aurki daitezke:



C) PARTIKULARRAK.

- Elkarteen izenak euskaraz daude ikusitako kasu guztietan:



- Etxeen izenak ere euskaraz daude jarriak. Joera hori orokorra da:



Herriko elkarteen eta etxeen izenak euskaraz egotea adierazgarria da. Joera hori ez da gainera arnasguneetan bakarrik ikusten. Hedatuago dago. Gipuzkoako eta, hein batean bederen, Euskal Herriko herrietan elkarteen eta etxeen izenak, oro har, euskaraz jarrita daude, nahiz eta gero bertako hizkuntza erabilera bestelakoa izan. Zer adierazten digu horrek? Euskaldun izan nahi bat? Zer du sinbologiatik? Zer ohituratik? Zer tradizioz? Zer harreman du herri hortako toponimiarekin, aurrekoengandik jasotako ondaretik? Edo denetik du zerbait? Etxeak garrantzi berezia izan du (eta du?) euskaldunen artean eta bere izendapena euskaraz jartzeak erro sakonak izan ditzake. Badago hor antropologiako lantxo bat osatzeko adina ezpal.

- Balkoietan, garajeetan eta abarretan, jarritako karteiei eta oharrei bagagozkie, ez dago nagusitasun nabarmenik. Herri batzuetan euskaraz gehiago daude eta beste batean gaztelaniazkoak ugari antzean dira. Herri bakoitzean jasotakoak eranskinean ikus daitezke zehatzago. Hona nahastuak ekarriko ditugu batzuk:





D) LAN MUNDUA. INDUSTRIAGUNEAK

Eremu hori da herri horietan euskararen presentzia urriena duena. Industriaguneko errotulazioa etab. Udalak kudeatua denez, euskaraz agertzen da, baina enpresetako errotulazioa edota garajeetako oharrak, etab., gaztelaniaz daude kasu gehienetan.



Enpresen izenak sarritan euskaldunak dira, baina errotulazioa edota enpresa horietako furgonetak, ateko oharrak eta horrelakoak, nagusiki, gaztelaniaz daude. Sarrera-irteeretako oharrak, ez aparkatzeko seinaleak, etab., gaztelaniaz daude halaber ia kasu guztietan. Industriaguneak dituzten herrietan hori are nabarmenago ikus daiteke.



Beste kasu batzuetan elebitan agertzen zaizkigu:



Eta badira azkenik, oso bakanak baldin badira ere, errotulazioa, eta kasu batzuetan furgonetetako idazkiak ere, euskaraz bakarrik dituztenak:



Idatzizko/errotulaziozko jardunari dagokionean, laburbilduz zera esan genezake: 1) aztergai izan ditugun arnasguneetan joera berdintsuak ikus genitzake. 2) Udalek, herriko elkarteek etab. kudeatutako idazkietan euskara nagusitzen da. Merkataritzako errotulazioa ere euskarara gehiago lerratzen da. Partikularrek jarritako karteletan etab. joera asko ikus ditzakegu. Herri batetik bestera aldeak badaude. Azkenik, lan-munduan, industriaguneetan, gaztelania nagusitzen da nahiko nabarmen. Edozein modutan, lehen esan bezala, atal hau dela eta, ateratako argazki guztien bilduma, herriz herri antolatuta, 10. eranskinean ikus dezakegu. Esan azkenik, atal honetan hizkuntza paisaiaren oso azaleko irakurketa egin dugula. Honekin batera egokia litzateke, barneko hizkuntza paisaia eta erabiltzen den dokumentazioaren hizkuntza erabilera aztertzea, baina horrek beste lan oso bat eskatuko luke. Bego beraz, oraingoz, honetan.

ONDORIO OROKORRAK

Honaino hainbat datu estatistiko, ikasleen gela-argazki, beraien kontsumo kulturala zein den etab., ikusi eta aztertu dugu. Bidean, zenbait ondorio ere aipatu dugu. Ondorioak iradokitzen edota aipatzen joan gara. Orain unea da guztien laburbilduma eginez, honako hau argitzeko: aztertu ditugun herri horietan noraino betetzen ari da M. Zalbidek arnasguneei buruz esandakoa?

Mintzaldaketa gertatzen den kasuetan zein dislokazio motak eragiten duen ikusi dugu gorago; orain, horietako zein dislokazio ikusten diren gure kasuetan aztertuko dugu. Halaber, arnasguneei buruz jardutean, oraingo egoera deskribatzean, hainbat ezaugarri aipatu izan ditu M. Zalbidek. Aztergai izan ditugun herrietan, ezaugarri horiek noraino eragiten ari diren arakatuko dugu orain.

Aztertutako lau herrietan, joera eta norabide batzuk garbi ikusten dira. Guztietan ageri dira, gainera. Batzuetan era bortitzagoan besteetan baino, baina guztietan euskarazko nagusitasun-moldaerak beheranzko norabidea du. Mintzaldaketaren lehen aztarna izan daitekeen gertakari sendo baten aurrean geundeke, oraingo joera eta norabidea datozen urteetan berretsiz gero. Norbaitek esan dezake, oso ikuspegi ezkorra dela, eta herri horiek oso euskaldunak direla, eta ez dagoela alarmarako arrazoirik. Egia da herri horiek eta antzekoak euskaraz bizi direla, gaur egun, hein handi batean. Datuek ere hori diote. Gipuzkoan ditugun arnasgune sendoenak dira horiek. Hala ere, badakigu jakin, mintzaldaketa ez dela egun batetik bestera hezurramitzen, ez dela urte gutxiko aldaketa. Aitzitik, urteen joanean, ia oharkabean gauzatzen diren aldaketaren ondorioz, gertatzen den fenomeno da hori. Norabide baten, ibilbide baten azken urratsa, lehen atalean ikusi dugun bezala. Zein norabidetan doaz, hizkuntzaren nagusitasun-moldaerari dagokionez, gure arnasguneak?

Aztergai izan ditugun lau herrietan norabide eta joera batzuk oso argiak dira. Aztertutako datu guztiek joera eta norabide bera berretsi besterik ez dute egiten.

Euskararen nagusitasun-moldaerak, oraindik indartsu den arren, behera egin du herri guztietan. Euskaldunen dentsitatea jaitsi egin da, erdaldunena igo. Herri horietan, euskaldunak oraindik nagusi dira demolinguistikoki, baina nagusitasun hori asko ahuldu da urteen joanean, eta, bereziki, neurtutako azken 6-10 urtetan. Ama-hizkuntza euskara dutenen kopuruak ere behera egin du nabarmen. Aldiz, ama-hizkuntza gaztelania, biak edota besteren bat dutenena igo egin da. Etxeko erabileran, bereziki, norabide hori bera ikusten da. Hau da, etxean euskaraz egiten dutenen kopuruak behera egin du, nabarmen egin ere, azken hamarkadan. Aldiz, gaztelaniak etxean sarbide erosoan izan du eta haren erabilera nabarmen igo da portzentualki. Joera horiek, gainera, eta hori garrantzizkoa da azpimarratzea, orokorrak dira. Orain arte aztertu ditugun kasu guztietan gertatzen dira, salbuespenik gabe. Hemen hizpide izan ditugun herriez gain, Tolosaldeko beste arnasguneetan ere gauza bera gertatzen ari da. Herri horietako datu demolinguistikoak ikusi besterik ez dago horretaz ohartzeko. Herri batzuetan, lehen esan bezala, erasan hori bortitzagoa da besteetan baino, gero ikusiko ditugun arrazoiengatik. Maldan beherako pendiza pikoagoa da kasu batzuetan, baina denetan da aldapa beherako irudia grafikoetan. Beheranzko joera hori aspalditik bazetorren ere, urte luzeetan aski egoera egonkorrean mantendu izan dira gauzak. Zenbait kasutan, eskola euskaraz abiatzearen ondorioz, besteak beste, eusteaz gain, zertxobait gora ere egin du urte batzuetan. Baina azken hamarkadan, eta bereziki 2001etik 2006ra, nabarmenki aldatu dira gauzak. Ordura arte urtetan eta urtetan nahiko modu egonkorrean euskaldun dentsitate ia erabatekoz mantendu izan diren herri askotxo behera etorri dira, bai euskaldunen dentsitate horretan, bai etxeko erabileran. Azpimarratzekoa da, duen garrantziagatik (kontuan izan hizkuntza baten egoera erabilerak markatzen duela eta ez hainbeste

ezagutzak), etxean gaztelania edo biak erabiltzen dituztenak batuz (hasierako 12 herrietan), % 37,63an gaudela 2006an. Sakonago aztertu ditugun 4 herrietako batez bestekoa, berriz, % 38,55da 2006an. Aldiz, 5 urte lehenago, 2001ean, bien horien batura % 19,60an zen. Bada zerbait, bost urteko aldean portzentualki % 18,95 igotzea etxean gaztelaniaz edo bietara jarduten duten biztanleen ehunekoa. Horrek sekulako eragina du luzarora hizkuntzen ukipenezko egoera horretan. Euskara hutsezko jarduna galduz doa etxe-giroan, eta ele bikoa zabaldu egin da haren ordainean. Etxe-giroa erdaldunduz doa. Elebidunduz edo mintzaldatuz.

Zerk eragiten du aldaketa hori?

Esana digu Mikel Zalbidek mintzaldaketak badituela motibo sozial jakinak. Bakoitzaren ezaugarriak ere hizpide izan ditugu lehen atalean. Ikus ditzagun, beraz, horietako zein antzeman ditzakegun aztergai ditugun kasuetan.

Hizkuntza erabiltzeko debekua genuen lehen arrazoietakoa bat hizkuntzaren atzerapenean edo mintzaldaketa gertatzen den kasuetan. Noraino du horrek gure kasuan eragina? Egia da, azken 30 urte ingurura arte, debekuz betea egon dela euskararen erabilera. Ezaguna da gure hizkuntzak pairatu duen jazarpena eta ukazioa. Mespretxua eta gutxiestea ere bai. Torrealdaik, besteak beste, nahiko dokumentatua du hori *El Libro negro del euskara* liburuan (Torrealdaik, 1998). Xamarrek ere antzera, bere *Orekan. Herrien eta Hizkuntzen ekologiak* (Xamar, 2001:112-113) liburuan, hainbat egoeratan hitzunek jasotako irri, umiliazio, mespretxuen eragina aski grafikoki ilustratu izan ditu. Noraino du horrek guztiak eragina gaurko hitzunen mintzamoldean? Horrek esplikatu al lezake gaurko gazteen mintzajardunaren bilakaera? Zerikusirik izango du seguruenik, zeharka, horrek guztiak. Gutxiestea, debekua, etab., jasotako guraso horiek, transmitituko diote seme-alabei hori guztia beraien hizkuntzarekiko balorazioetan, prestigio kontuetan, etab., baina ez dut uste horrek baldintzatzen duenik gaurko erabilera-moldearen arrazoiak. Gazte horiek ez dute garai hori bizi izan. Aitzitik, euskarazko ereduak heziak izan dira, euskararen aldeko kanpainak, diskurtsoak, gizarte-sariak...euskararen erabilera bultzateko motiboak lirateke. Azken 30 urteetan euskarak prestigioa irabazi du, ez dago debeku espresurik behintzat, zailtasunak eta trabak badaude, baina horien eragina txikiagoa eta oro har ahula da arnasguneetan. Debekuarena ez da, gaur-gaurkoz mintzaldaketaren arrazoia. Nola esplikatu bestela, debekua eta mespretxua indarrean zeudenean, urte luzeetan, euskarak bere horretan iraun izana arnasgune horietan, diglosia sendoz, eta, gaur egun, debekurik ez daukanean, eskola euskaraz jaso daitekeenean, komunikabideak euskaraz kontsumi ditzakegunean, etab., orduantxe gertatzea diglosiaren apurketa eta mintzaldaketaren zantzuak hedatzen hastea?

Dislokazio fisikorik ere ez dago arnasgune horietan. Aztergai ditugun herri horietan ez da gertatu ez txikiziorik, ez lurrikararik, ez antzeko ezer biztanleriaren suntsitzea ekar lezakeenik. Dislokazio fisiko bortitzik ez da gertatu. Edozein modutan, azken mende erditik aurrera, biztanleen beheraketa hasi zen. Batetik, gazte euskaldunen emigrazioa gertatu zen. Baserritik kalera jaitsi ziren modu ohargarrian (Tolosara, Donostiara...). Bestetik, jaiotze-tasaren jaitsiera. Horrek guztiak eragin nabarmena izan du herri horien bilakaeran. Fenomeno hori garbi azaltzen du M. Zalbidek *“Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: baliospen-saioa”* liburuan. (Zalbide, 2010:134-137)

Dislokazio demografikoa bai. Horrek eragiten du herri horietako hizkuntza-moldaeraren bilakaeran. Esan dugu dislokazio demografikoak hiru iturri nagusi dituela: emigrazioa, immigrazioa eta jaiotze-tasaren ahultzea. Hirurek eragin dute aztergai ditugun kasuetan, indar ezberdinez herriaren arabera, baina guztietan joera bertsuekin. Datu demolinguistikoei begiratzuz gero, berezko hazkundearen datuak begiratu besterik ez dago hirurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera hazkunde hori negatiboa dela ikusteko. Hau da, bikote gutxi sortu zen arnasguneetan eta (ezkondu ondoren) bertan finkatu. Urtetan ikusi den joera izan da. Horregatik, herri horietako asko biztanleak galduz joan zen, urteen joanean.

Emigrazioaren ondorioz, herri horiek txikituz, biztanleak galduz joan ziren. Bertako gazteak, lanbidea zela edo beste arrazoi batzuegatik, eskualdeko herri handiagoetara edo beste leku batzuetara joan izan dira bizitzera.

Azken urteetan, 1996tik aurrera bereziki, egoera horri buelta eman nahian, herri horietan etxebizitzak eraikitzeari ekin zitzaion, lehen unean bertako seme-alabek bertan jarrai zezaten bizitzen, beste herrietara joan behar izan gabe. Gerora, urbanizazio horrek, besteak beste, immigrazioa ekarri du herri horietara. Dislokazio demografikoaren hirugarren iturria, hain zuzen. Dislokazio demografikoaren eragina begi-bistakoa da aztergai ditugun herri horietan. Biztanleak irabazi ahala, euskaldunen dentsitatea galduz joan da. Batek gora egiten duenean, besteak behera egiten du. Biztanleen grafikoak eta grafiko demolinguistikokoak konparatu besterik ez dago horretaz jabetzeko. Hori argiago ikusten da lau herriak banan-banan hartuz gero. Bi kasutan, biztanleriak nabarmen egiten du gora, urte jakin batzuetan, eta horrek sekulako eragina du euskaldunen dentsitatean eta hizkuntzaren etxeko erabileran. Beste bi kasutan, berriz, biztanleria nahiko egonkor dago, ez dago hazkunde bortitzik edota jaitsi ere egiten da. Kasu horietan, euskaldunen dentsitateak behera egiten badu ere, jaitsiera ez da aurreko kasuetan den bezain bortitza. Oso korrelazio nabarmena dagoela ikusten da, aldaketa demografikoen, euskaldunen dentsitatean eta etxeko erabileraren artean. Nahiz eta kasu guztietan behera egiten duen erabileraren horrek, beste aldagai batzuk ere parte hartzen dute hor, geroxeago ikusiko dugunez.

Dislokazio demografiko horretan, urbanizazioak zerikusi zuzena izan du. Herri horietan hazkundera 1996tik aurrera eta, zehazkiago, 2001etik aurrera gertatzen da. Hain zuzen, etxebizitzaren gorakada gertatzen den garai bertsuan. Hamar urteko tartean (1996tik 2006ra) aztergai ditugun herri horietan 443 etxebizitza gehiago dago EUSTATEko datuen arabera. Alegian 107, Amezketan 51, Asteasun 202 eta Berastegin 83. Bada zerbait, 950 edota 1700 inguru arteko biztanleria duten herriak izateko. Urbanizazio horrek, ezinbestean izan behar du eragina herriko demografian eta bizimoldean. Oso da adierazgarria aldagai horien guztien urteetako bilakaeraren grafikoak ikustea. Hau da, biztanleena, etxebizitzarena, euskaldunen dentsitatearena, ama-hizkuntzarena eta etxean erabiltzen den hizkuntzarena. Lehenengo bi grafikoetan, biztanleenetan eta etxebizitzenetan alegia, goraka doazen hein berean, beste hiruretakoenetan, hau da, euskaldunen dentsitatearenean, ama-hizkuntza euskara dutenenean eta etxean euskara erabiltzen dutenenean beheraka doaz. Korrelazio zuzena dago. Ez hori bakarrik: zenbat eta pikoagoa izan gorakada hori, orduan eta pikoagoa da beherakada ere. Gorakada mantendua edo orekatua, ozta-oztakoa denean, beherakada ere gehiago hurbiltzen da ezaugarri horietara.

Bi kasutan, etxebizitzaren gorakadak ez du espero zitekeen gorakadarik ekarri biztanlerian. Horrek badu arrazoi bat, herri horietako biztanle batek eman zidana. Hau da: etxe berri horiek bertako baserritarrek erosi zituzten, kale-etxeak dira. Inbertsio modura-edo hartuak. Hori horrela izanik, garbi dago etxe horietara ez datorrela biztanle berririk eta horrek ez dakarrela jende-hazkunderik. Euskaldunen dentsitatean ere

nabarmetzen da hori, herri horietan egonkorrago azaltzen da dentsitate hori; beherakada ez da hain bortitza. Kasu gehienetan, urbanizazio berri horrek immigrazioa areagotu du. Hori garbi ikusten da azken urteetako herri horietako berezko hazkundera eta migrazio-saldoak aztertuz gero. Berezko hazkunderak zertxobait gora egin du azken urteetan. Hala ere, azken hamarkadako migrazio-saldo positiboak erakusten du garbierik herri horietako bilakaera. Bestalde, bada beste datu esanguratsu bat hori guztia berresten duena. Hau da, biztanleriaren jaiolekua. Herri horietako biztanleria jaiolekuaren arabera aztertuz gero, EAEkoak ez direnak (beste probintzietan edota atzerrian jaiotakoak) nabarmen igotzen dira 2001etik aurrera.

Datu horiek guztiak kontuan izanik, zera ondoriozta genezake: urbanizazio berriak herri horietako urteetako bizimoldea zeharo aldatu duela. Egonkor samarra zuen bizi-giroa, astindu eta norabide berrietan jarri duela. Joera berriak sartu dituela, jende berriarekin batera. Batetik, kaletartu egin dira. Bestetik, erdararen sarbidea pauso sendoz ahalbideratu dute.

Urbanizazio berri horrek dislokazio soziokulturala ekarri du berekin, arnasgune horietara. Ondo gogoan dut, duela gutxi Orendainen pasieran nenbilela, 85 urteko aitona batekin hitz-aspertuan jarri eta nola hemen hizpide ditugun aldaketa soziokultural horiek, zein modu grafikoan adierazi zizkidan. Orendainen, beste arnasgune askotan bezala, azken urteetan hainbat etxe berri egin dira. Txalet moduko etxebizitzak beren itxitura txukun eta zainduarekin. Etxe horietan zein jarri ziren bizitzen galdetu nion, Orendaingo seme-alabak edo kanpokoak. Herrian lehen guztiak euskaldunak zirela esan zidan. Orain etxe berriak egin zituztela eta kanpotik ere etorriak zirela bizitzera. Batzuk erdaldunak zirela bazekiela, inoiz ingurutik pasatzean entzunak zituelako, baina ez dutela harreman-sarerik, ez dutela bizitza herrian egiten. Lanera kanpora ateratzen direla goizetik eta ilunabarrean bueltatzen direla etxera. Lotara etortzen direla, ez dutela herrian bizitzarik egiten. Ez omen dute harremanik herrian. Ba omen daki bai, batzuk herriko soziedadean apuntatu direla (erdaldunak badira zein eragin izango ote du horrek herriko soziedadean?), baina...lehen sikiera elizak biltzen zituela. Meza ondoren, denak biltzen zirela kontu kontari, asteko gertaerak errepasatu, biztanle berriak ezagutu etab. , baina orain elizaren hori ere jaitsi omen da eta... Agure agurgarri horrek ez du seguruenik arnasguneei buruzko teoriarik ezagutuko, baina argi eta garbi jabetzen da, bere arnasgunetxoan zer aldaketa soziolingusitiko eta soziokultural gertatzen ari diren. Luze jardun genuen hitz-aspertuan, ordubete edo, lehengo ohituraz, bizimoduaz, lanbidez, egungo krisiaz etab. Krisiaz aritu zenean gogoratzen dut nola esan zidan gaur egunekoa ez dela krisia. Benetako krisia bere gazte-garaikoa zela. “ *Gurea bai zela krisia. Orduan ez zegoen ezer eta lana sueto, baina bestela ezer ez.* ” Inguruan dituen gazteei zera esaten diela esan zidan: “ *zuek ez duzue lana nahi, Lana bazegok. Zuek nahi duzuen lantoki bat duk, soldata ona duen lanpostu bat.* ” Hontaz eta hartaz luze aritu ginen. Agurtzean, esan zidan gustura egon zela euskaldun batekin horrelako kontuez hizketan eta berriro handik pasatuz gero, kasu egiteko, jarraituko genuela eta. Herritik ateratzean, buelta eman eta herriko sarreran, belazean, kartel handi bat ikus daiteke, beste 12 etxebizitza berri eraiki behar dituztela adieraziz.

Antzeko egoera deskriba genezake arnasgune gehienetan. Urbanizazio berri horrek hizkuntzen jardura-moldaeran eragindako aldaketaz gain, edota hizkuntzari lotuta, aldaketa soziokultural sakona ekarri du. Etnokultura oso baten aldaketa, hain zuzen. Urteetan hizkuntzarekin batera, hizkuntza horren legamiaz kultura oso bat eratu eta transmititu da belaunez belaun, jarraikortasuna emanaz eta, era berean, eguneratuz

eta birsortuz. Transmisio horrek, indarra galdu du, eten egin da, mehartu gutxienik. Familiak eta ingurumen hurbilak lehen baino babes-indar ahulagoa du transmisio horretan. Auzo-giroa, halaber, suntsituz joan da. Herri horietako askotan ez dago kale girorik. Hutsak daude. Harreman-sareak eten egin dira, ahuldu. Etxe berrietako itxiturak, zuhaixka zainduz hesituak, kaletartze-prozesua areagotzeaz gain, bakoitzak berean ixteko joeraren irudia islatzen du. Hizkuntzaren eta berari datxekion etnokulturaren transmisioan etenak nabariak dira, mehartzea begi-bistakoa da. Kulturalki autorregulatzeko indar gutxiago daukate egun arnasgune horiek. Sormen kulturalerako beharrezkoak diren adabakiak, sareak, trakestuagoak daude.

Bizimolde berriak ekarritako etenak ditugu dislokazio sozialaren beste ataletako bat. Gizarte berrian, bere ordain-sari sisteman, inoiz baino beharrezkoagoa egiten da gaztelaniaren eta beste hizkuntzen, batik bat ingelesaren, ezagutza eta erabilera. Gizartean aurrera egingo bada, euskara ez diren beste hizkuntza horiekiko kontaktua eta harremana inoiz baino beharrezkoagoa egiten da. Hainbat harreman-saretan ezinbestekoa gertatzen da euskara ez den beste hizkuntza batean jardun beharra eta, apurka-apurka, horiek egiten dira nagusi. Ez bakarrik harreman-sare horretan, baizik eta gizartean oro har duen indarra kontuan izanik, oharkabea, beste harreman-sareetara hedatzen joaten da.

Dislokazio kulturala.

Aurreko lerroetan aipatu dugu, etnokultura oso baten gainbehera gertatzen ari dela gure arnasguneetan. Mendeetan jaso, birsortu eta emari izan den hizkuntza eta kultura oso baten transmisioan begi-bistakoa dira etenak. Euskara eta bere kultura “humus” jakin batean erne izan dira, bizimolde askotarikoan baina sustrai sakonekoan eta enbor berekoan. Hizkuntzak eta bertako kulturak kanpotik zetozen berrikuntzak digeritu eta bere egiteko gai ziren, indarra zuten. Egokitzen jakin izan du. Era berean, berera hurbiltzen zirenak euskalduntzeko eta bere kulturaren txertatzeko indarra zuen. Zenbat herri txikitik ez ote da gertatu, edonondik etorritakoak ere bertara bizitzera, denbora tarte nahiko laburrean bertako euskalkia ikasi eta herriko etnokulturaren txertatzea. Gaurko arnasguneek ba al dute biztanle berriak bereganatzeko adinako indarririk? Edota, aipatu ditugun aldaketa demografikoek (jende andana kolpean etortzea dislokazio demografiko bortitza sortuz, eta ez apurka-apurka txertatze hori errazago egiteko), sozialek (indibidualizazio prozesuak, harreman-sareen mehartzea etab. interakzio sozialak gutxituz eta, ondorioz, herriko bizimoldean txertatzeko aukerak murriztuz), geroxeago aztertuko ditugun aldaketa kulturek, eta abarrek, ez ote dute urritu erdal giroko etorkinak euskal girora egokitzeko eta hor txertatzeko indar hori? Hizkuntza-komunitatea zenbat eta trinkoagoa izan, orduan eta erakarpen-indar handiagoa izango du. Noraino ez da gertatzen etorri berriek ezartzea beraiek dakarten hizkuntza eta bizimodu hiritartua arnasgune horietan? Noraino egokitzen da etorkin hori arnasgunean aurkitutakora, edota besteak egokitu beharrean izaten dira hizkuntza eta bizimolde berrira? Batzuk elebakarrak dira (badakitu zein hizkuntzatan), beste guztiak elebidunak. Norantz bideratuko ote da egokitze-prozesu hori?

Dislokazio kulturala bete-betean gertatzen ari da gure arnasguneetan. Zein da herri horietako gizajendearen, gazteen eta haurren kultura-kontsumoaren hizkuntza? Zein iturritatik edaten ari dira? Zein dira kulturalki elementu sozializatzaileak? Noraino dago indarrean herri horiek gaurdaino oratuz joan den kulturaren transmisioa? Neurri batean erantzun diegu galdera horiei edo gutxienik iradoki ditugu haien erantzunak.

Ikusi dugu aztergai ditugun gela-argazki guztietan, komunikazio alorra dela modu bortitzen jasaten ari dena mintzaldaketa. Ikusi dugu, halaber, ikasle multzoari egindako kultura-kontsumoari buruzko galdeketa, zein diren beraien lehentasunak, zer hizkuntza nagusitzen den kontsumo horretan, zer eduki etnokultural digeritzen dituzten, zein diren beraien kultura elikatzeke iturriak etab. Badakigu jakin, edozein kulturaren geroan, giltzarri dela hedabideen egitekoa eta haien zeregina. Euskarazko ekoizpenen kontsumo ahul horren zergatiak aztertzea ezinbestekoa izango da. Norbaitek esan dezake eskaintzaren murriztean eta kalitate eskasean dagoela euskarazko ekoizpenei bizkar ematearen arrazoi nagusia. Partez, agian, arrazoi izan dezake. Baina badira hori, guztiz behintzat, horrela ez dela esateko zantzuak. Euskarazko hedabideen kalitateari buruzko ikerketa egin berri du Maria Gonzalez kazetari eta ikertzaileak. Begira zer dioten Gonzalezek euskarazko hedabideak hobeak al diren erdarazkoak baino galdetzen zaionean:

“Hobeak dira euskarazkoak, eta hori frogatu nahi nuen. Horretarako, hedabide bakoitza bere herrialdean erdaraz gehien zabaltzen den komunikabidearekin konparatu nuen “...”XXI.mendearen dagoen oinarri ustela da euskarazko albisteak kalitate txarragokoak direla. Uste ustel horri aurre egin diot “ (Berrian, 2011-06-24)

Hori horrela bada ere, dauzkagun ohiturek eta inertziek erdarazko hedabideak kontsumitzera eramaten gaituzte. Emankizun berbera euskaraz edo erdaraz ikusteko aukera bera izanik ere, erdararako joerak irabazten du. Horixe da Koldo Aldalur kazetariak ikustarazten diguna:

“ (Txapeldunen Ligako) Finala batera eta antzeko baliabideekin eskaini zuten TVE1ek eta ETBko lehen kateak. Euskal Autonomi Erkidegoan audientzia-datuak honakoak izan ziren: gaztelaniazko emanaldiak % 54 sharea, euskarazkoak % 4,9koa Raitinga, emanaldia zenbatek ikusi zuten alegia, 30.000 bat lagunek “gure hizkuntzan“. Gaztelaniaz zenbatek ikusi zuten zeuek atera kontuak, niri lotsaren lotsaz matrailak gorritzen zaizkit eta ! “ (Argia, 2011-07-24)

Badago bai zer aztertua eta zer bideratua “gure hizkuntzan “ elikatu nahi baditugu gure kultura beharrak.

Globalizazioa, modernizazioa, gizarte molde berriaren ezaugarriak bete-betean, hirietara bezainbat, sartu dira gure arnasguneetara. Alde horretatik ez dago ez ghettorik, ez “Gipuzkoa profunda” rik, ez bakarturik dagoen giza multzorik. Lurralde-antolamenduaren bilakaerak, bide-sareen berritzeak, eta abarrek hiriaren luzakin, hiriaren auzo erresidentzial, atsedentleku, bilakatu ditu, bere ondorio guztiekin, herrixka horiek. Mundura konektaturik daude (gogoratu ikertu ditugun lau herrietako ikasleen etxeetan % 91k duela Internetarako lotura), beste asko baino gehiago gainera. Galdeketa egin genuen garai berean, 2011ko maiatzean, EUSTATen arabera, informazioaren gizarteari buruzko inkestan, EAEko % 57k zuen Internet, seme-alabak dituzten kasuetan % 81,2k; Gipuzkoan % 58,2k orokorrean.

Arnasgune horietako ikasleek gaztelaniaz ikusten dute, hein handienez, telebista. Bideoak, filmak etab. % 83k gaztelaniaz ikusten ditu. Egunkari irakurrienak gaztelaniaz daude. Irratia musika entzuteko erabiltzen dute batik bat (*Euskadi Gaztea*). Musika-CDak, DVDak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez entzuten dituzte. Interneten dabilzanetan, gaztelania gehiago erabiltzen dute. Liburuak bi hizkuntzetan modu nahiko parekatuan irakurtzen dituzte. Aldizkariei dagokienez, *Betizu* aldizkariak gain

gertukoak, eskualdekoak, dituzte gustukoen, baina kontsumitzen dituzte gaztelaniazko beste aldizkari batzuk ere. Erakusketa eta emanaldietako hizkuntza euskara da kasu gehienetan. Oro har, beraien kontsumo kulturalaren hizkuntza gaztelania da nagusiki. Ikasle horien erreferentzia kulturalak, euskara ez diren beste hizkuntzetan oratutakoak dira. Gaztelaniaren kultura eta kultura anglosaxoian nagusiki. Euskarazko kulturaren emaritik bezainbat edo gehiago elikatzen ari dira beste kultura horietako iturrietatik. Fenomemo berri horiek areagotzera datoz bertako etnokulturaren transmisioan hizpide izan ditugun eten-urratze eta ahulguneak. Dislokazio kultural hori gaztelaniaren eta, hein batean, ingelesaren, indargarri bilakatzen ari da, euskaraz oratzen den kulturaren bizkarretik. Nolatan egingo da euskal komunitate horretan autorregulazio kulturalik, gure kontsumo kulturala, gure mundu erreferentziala, beste hizkuntzetan egiten den kulturetan, batik bat horietan, elikatzen bada? Noiz arte iraun dezake euskaldun izaera horrek, sortzez eta inguruan jasoak, elikatu ezean? Gogora datorkit, honen harira, Xabier Lete poeta handiak, *Argiari* eskainitako elkarrizketa bateko pasarteak:

“euskalduna naiz sortzez eta nire inguruan dena euskaraz izan da. Alde horretatik euskaltasunaren sustraiak hor ditut. Gero, nire euskaltasun hori urteetan landu egin dut, irakurketarekin, solasarekin... badut ezagutza esateko ni euskalduna naizela.” (Argia. Xabier Leteren omenezko ekitaldirako argitalpen berezia.2010:7).

Gero, nire euskaltasun hori urteetan landu egin dut, irakurketarekin, solasarekin... Horixe da, hain zuzen, hizkuntza batean eratutako kulturak autorregulatzeko, indartzeko, etengabe berritzeko eta hurrengo belaunaldiei oparitzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa duen legamia. Jasotakoa landu ezean, mundu erreferentzial propioa landu ezean, ahultzen eta ihartzen joango da, beste ezpal bateko kimuak ordezkatzeko duelarik azkenean.

Aztertu ditugun lau herrietan, modu indartsuagoan edo apalagoan, Mikel Zalbidek aipatutako dislokazioak zein isla duten ikusi dugu. Datu demolinguistikoeak, gela-argazkiek, kultura-kontsumoaren galdeketen ondorioek, eta abarrek arnasgune horietan dislokazio horiek bete-betean ari direla gertatzen adierazten digute. Hizkuntzazko nagusitasun-moldaerak, horietan ikusten diren joerak, garbi adierazten digute arnasgune horietan gertatzen ari diren aldaketak eta aldaketa horien norabidea. Aldaketa horiek uste baino sustrai sakonagoak dituzte. Erro-errotik aldatzen ari dira orain artean nahiko egonkor egon diren bizimoldeak. Diglosiarik ezean, euskara eta bere etnokultura urtzen joan daitezke hizkuntza indartsuagoen kultura globalizatueta. Kultura-kontsumoaren datuek adierazten dute garbienik aldaketa horren norabidea.

Honaino gure lantxo honen xedea. Arnasgune jakin batzuk hartu eta horietan arakatzea dislokazio guztiak noraino ari diren lanean eta zein eragin izaten ari diren. Ondorioztatu dugu norabide jakin batean ematen ari direla aldaketak, hau da, arnasgune izaera hori ahulduz eta kamustuz doala. Kasu batzuetan abiada biziagoz, besteetan baino. Hala ere, guztietan joera eta norabide bera ematen ari dela.

Lan hau ia bukatuta zegoenean argitaratu dira V. inkesta soziolinguistikoko emaitzak eta Hizkuntzen Kale-Erabilaren VI. neurketaren emaitzak. Biak ala biak 2011n eginak. Datuen irakurketa atalean aipagai izan ditugu emaitza horietatik atera dituzten ondorioak. Gure datuekin konparazioa egin dugu, eta datu horiek ez diren jaisten arren herriz herriko datuetara, eta aldagai asko ere ez diren berdinak, orain arte aipagai izan ditugun joerak ez direla ezezten iruditzen zaigu. Gure datuak oso herri

zehatzen bilakaera aztertzen dute. Inkesta soziolinguistikoak eta Kale-Erabileraren neurketak, aldiz, ez dira jaisten herri zehatz horietara. Gune soziolinguistikoka ematen dituzte beraien datuak. Guri dagokigunez, 4. gune soziolinguistikoko datuak hartu ditugu bilakaera hori konparatzeko, jakinik ere 4. gune soziolinguistiko horretan aldeak daudela herri batetik bestera eta guk aztergai izan ditugun herriak 4. gune soziolinguistiko horretako herri euskaldunenetakoak direla. Nahiz eta datuak ez diren guztiz konparagarriak, esandako arrazoiengatik, zenbait ondorio pareka ditzakegu. Ondorio horiek bat datoz, oro har, lan honetan atera ditugun ondorioekin, arnasguneetan ikusitako joerekin. Ikus ditzagun:

V. Inkesta soziolinguistikoko ondorio nagusietako bat hau da:

*“Euskararen erabilerak gora egin du apurk-apurka EAEko hiru lurraldeetan eta lehenengo, bigarren eta hirugarren gune soziolinguistikoetan. **Laugarrenean, aldiz, behera egin du euskara erabiltzen dutenen portzentajeak. Beherakada horren atzean azken urteotan hirigune erdaldunagotik gune euskaldunetara bizitzera joan direnen hizkuntza-ezaugarriak daude**”* (azpimarra nirea). (Eusko Jaurlaritza, 2012:5)

Horixe da hain zuen, behin eta berriz, aztergai izan ditugun herri horietako datuek esaten digutena. Horrekin batera, badago beste joera bat guk ondorioztatu duguna eta V. Inkesta horretan berresten dena. Hau da, eremu formalean eusten zaio erabilerari, baina etxe-giroan beheraka doa erabilerari hori. Herriko elkarteetan, aisialdiko taldeetan...herri-giroan eustsi egiten zaio euskarari, baina etxean beherantz doa erabilerari hori. Horixe ondorioztatzen dute V. inkestako emaitzek. Hau diote ateratako ondorio nagusietan:

“euskararen erabileraren hazkundera handiagoa izan da eremu formalean eta apalagoa etxean, seme-alabekiko erabileran izan ezik, honek gora egiten jarraitzen du”. Bestetik,” horren ondorioz, gero eta txikiagoa da etxean euskara erabiltzen duten elebidunen proportzioa (% 51). Salbuespena, hemen ere, seme-alabekiko erabileran dago (% 86)”. (Eusko Jaurlaritza, 2012:5-6)

Datu horiek gune soziolinguistiko guztietakoei badagozkie ere, 4. gune soziolinguistikoko datuak aztertuz gero, ondorio bera ateratzen da. Eremu formaletan gehiago erabiltzen da euskara etxe-giroan baino. Bikotekideen arteko erabilerari beti euskaraz % 57an baldin badago 4. gune soziolinguistiko horretan, seme-alabekin % 70an dago. Hori bera da aztergai izan ditugun gela-argazkietan ikusi den joera.

Zer adierazten du horrek guztiak? Garbi samar ondoriozta genezake etxe-giroa erdaldunduz doala arnasguneetan. Deskonpartimentazioaren eragina oso nabaria da ingurumen horretan. Aldiz, herri-giroak, herriko interakzio-sare zabalagoek, hobeto eutsi diote ordura arte jaun eta jabe izandako euskal giroari. Diagnosi horrek, berretsiz gero, ondorio praktikoak ateratzera eraman behar gintuzke.

Zer agertzen da, bestalde, Hizkuntzen kale-erabileraren VI. Neurketaren (2011) emaitzetan? Zer ondorio atera dituzte? Lehen esan dugun eran, argitaratu diren emaitzak orokorrekiak dira gure arnasgune horietako datuekin konparatzeko eta ondorioak ateratzeko. Hala ere, 4. gune soziolinguistikoaz ari denean, honako erreferentzia egiten du ondorioetan: *“Azkenik, biztanle gehienek (% 75 eta % 100 artean) euskaraz dakiten zonaldeetan, entzundako hitzunen % 66 inguru euskaraz ari ziren. Hiru puntuko igoera izan du erabilerak 1993tik hona”* (Kale-erabileraren VI. Neurketa. 2012)

Kasu honetan ere, oso zaila da datuen konparazioa egitea. 4. gune soziolinguistikoaren parametroak ere ez datozelako bat. Hau da, V. inkesta

soziolinguistikoak 4. gunea % 80tik % 100erako tarte horretan jartzen duelako. Hizkuntzen kale-erabileraren neurketak, aldiz, % 75 eta % 100 artean. Bestalde, zenbat eta herria txikiagoa izan kale neurketaren errore-tartea handiagoa da. Horrez gain, bakoitzaren baitan erabilera-plano diferenteak dituzte aztergai. Edozein modutan, eta ondorioei atxikiz, arnasguneetan euskararen kaleko erabilerak bere buruari eusten diola esan genezake. Ez dago hazkunde nabarmenik, baina gainbehera argirik ere ez. Hala ere, erabilera indize horiek zehatzago aztertu eta parekatu beharko genituzke. Herriz herriko datuak parekatu eta aztertu beharko genituzke, bereziki. Datu eta ondorio horiek, bai V. Inkestarenak eta bai Kale-Neurketarenak, orokorregiak ditugu konparazio zehatzak egiteko. Bestalde, datu demolinguistikoez eta soziolinguistikoez gain, beste hainbat datu eta aldagai hartu ditugu gurean, aztergai izan ditugun herri konkretu horietan. Horrek guztiak eman gaitu atera ditugun ondorioak ateratzera. Bestalde, badirudi bai Inkestaren datuek eta bai Kale-Neurketarenak berretsi egiten dituztela atera uste izan ditugun ondorio argienak. Erreferentzi horiek ez dute, behintzat, lan honetan aipatu dugun joera nagusia indargabetzen. Aldiz, badirudi berretsi egiten dutela. Dena den, herri zehatz horien jarraipena egitea geratzen da joera horien norabidea garbiago ikusteko.

ZER EGIN ARNASGUNEETAN? ERRONKAK

Hona iritsita ezinbesteko galdera sortzen da berehala: zer egin behar da arnasgune horiek arnasgune izaten jarrai dezaten edota norabidea aldatuz indartzen joan daitezen? Zer bide jorratu behar dira herri horietan euskara bizi-bizi mantentzeko eta belaunez belaun hizkuntzarekin batera eta hori ernetzen dueneko “humus” edo “habitat” kulturalarekin batera transmititu dadin?

Galderak errazagoak dira erantzunak baino. Hala ere, eta nahiz eta azken atal hau ez aurreikusi gure lantxo honen xedeetan, gutxienik norabide batzuk iradokitzen ahaleginduko gara, laburki bada ere.

- Ezer baino lehen, gertatzen ari denaren kontzientzia hartzea. Nekez emango diogu gaixotasunari sendabiderik, osasun betea dugula aitortzen badugu. Gertatzen ari diren aldaketak ikusteko gai ez bagara, nekez has gintezke diagnosi zehatzagoak egin eta neurriko sendabideak arakatzen.

- Euskararen aholku batzordeak argitara emandako *“Itun berritu baterantz. XXI.mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak”* liburuan lehentasunezko ildoak zehaztean, hainbat eginbide aipatzen dira , guk aurrerago eta orain ere hizpide ditugunak. Besteak beste:

- *Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnasgune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko.*
- *Familia-transmisioa bermatzea...*
- *Euskarazko kultura kontsumoa indartzea...*
- *Hizkuntzaren teknologiak...sarerako euskarazko edukiak sortzea...*
(Euskararen Aholku Batzordea, 2009:50-51)

- Arnasguneen bi ezaugarri nagusiak adi zaintzea eta, ahal den neurrian, horiek indartzea funtsezkoa da horretarako. Hau da, kontzentrazio demografikoa batetik eta hizkuntzaren transmisio naturala, bestetik. Dislokazio demografikoei eragiten dituzten aldaketak kontuan izanik, urbanizazio berriak planteatzerakoan oso kontuan hartzea horren eragina, hori modu orekatuan eta egituratuan egiteko eta hazteko eta herria biziberritzeko helburuekin batera hizkuntza irizpideak ere kontuan hartzea, eta horiek ondo kudeatzeko bideak arakatzea..

Transmisio naturalaren garrantziaz ohartaraztea. Modu eraginkorra eta merkeena berau delako hizkuntza indarberritzeko xedeak aurrera eramateko. Etxearen babesa eta eredu izaera indartzea. Ezinbestekoa da gogoratzea, ikusi dugunez, gurasoek beraien artean dihardutenean nola jaisten den puntuazio hori, gurasoek duten eredu izaeraren erantzukizuna. Beraien arteko hizkuntzaren erabilera zaindu eta lantzea. Horren eraginaz jabetzea.

Transmisio natural horretan auzo-bizitzak sekulako garrantzia du etxearekin batera. Auzotarren harreman-sareak indartu egin beharko dira, euskal interakzioz beteaz. Udaletik eskaintzen diren zerbitzuak euskaraz izan daitezen ziurtatuz, antolatzen diren ekimenetan hizkuntza-irizpideak garbi edukiz, ekimen horiek babestuz eta indartuz ,etab. Fishmanek dioen bezala, familia-giroan, auzo mailan eta gizarte-bizitzako elkar-giroan indar egin beharra dago, hizkuntza biziberritu nahi bada.

Eskola litzateke hirugarren zutabe nagusia. Etxean eta auzoan jaso duten hizkuntza bizi hori hizkuntza idatziaren mundura, erregistro formalen lanketara, hizkuntza jasoaren baliabideetara eta kultura letratuaren esparrura bideratzen lagunduko diena. Eskola, lehen ez bezala, arnasgune horien indargarri da orain, edo indargarri izan beharko luke. Ikus ditzagun jarraian, herri horietako eskolen hainbat ezaugarri:

- Oro har, HH eta LMHko eskolak dira. Gerora, herri handiagoetara, eskualdeko institutueta, doaz ikasle horiek.

- Haur kopuru nahiko urria dute kasu batzuetan. Adin aniztasuna dute ezaugarri.

- Oro har, jatorriz ikasle euskaldunak dira, nahiz eta azken urteetan immigrazioaren eraginez, euskara ezagutzen ez duten ikasleak ere hurbiltzen hasi diren.

- Irakaskuntza euskaraz bideratzen da. D eredua.

- Eskolatzen diren haur gehienek euskaraz mintzatzeko, beraien erregistroan, ez dute eragozpen handiegirik. Euskara informala, sen handikoa, jariotasuna, ahozkotasun landua eta freskotasuna badituzte. Hizkera ez-formalaren jabe dira, oro har, ikasle horiek.

- Zenbaitetan autopertzepzioarekin arazoak agertu ohi dira eta, ondorioz, zenbait jarrera berezi: txaubinismoa, gutxiagotasun konplexua, autogorrotoa eta antzekoak.

- Eskola horiek harreman estua edukitzen dute bertako gurasoekin, herriko eragileekin etab. Horrek asko erraz dezake egitasmo komunak bideratzea.

Zer da eskolak egin dezakeena dagokigun auzi horretan?

Ezer baino lehen esan, asko dela jada eskola horiek egiten dutena, ikasle horien alfabetizazioa eta jakintza akademikoa ematearekin. Eskolak ezin ditzake etxearen eta auzoaren hutsuneak guztiz estali. Aspaldi erakutsi zigun Fishmanek (1990) “*eskolaren mugak hizkuntzak biziberritzeko saioan*” zein ziren. Ezin eska dakioke eman ezin duenik. Hala ere, eskuartean dugun auzi honetaz dihardugularik, eskolaren egitekoa funtsezkoa da hizkuntzaren indarberritze ahalegin horretan. Besteak beste honako arrazoiengatik:

- Herri horiek, eskola horiek, hiztun komunitate zabalago baten parte dira. Komunitate horren ardatza, erdigunea. Hizkuntzak dituen arnasguneetako bat. Asko dute zaintzeko, zabaltzeko eta emateko. Hori posibilitatzeko bideak eskain ditzake. (“*Bat inon loturik deno, ez gara libre izango*”...)

- Azken hamarkadatan, eskola euskaraz izanagatik, gertatu diren aldaketek ez dute indartu arnasgune izaera hori. Aitzitik, trinkotasun hori ahultzea ekarri dute. Hizkuntzaren errepertorioan eta transmisioaren trinkotasunean galerak ari dira gertatzen. Halaber, etnokulturaren transmisioan, lanketan eta birsorkuntzan arrakalak begi-bistakoak dira.

- Eskolak badu bere egitekoa horren guztiaren aurrean. Erakunde garrantzitsua da. Eskola eragile izan daiteke gurasoengan, herriko eragileengan... Herriko egitasmoekiko lotura (EBPN, UEMA...) eta lankidetzak gauza ditzake. Herriko/eskualdeko ekimenekiko osagarritasuna eta koordinazioa bidera dezake.

- Irakasleen prestakuntza ahalbidera dezake: hizkuntza bera, hausnarketa (soziolinguistikoa, glotodidaktika...)

- Egoeraren diagnosia jarraitua egiteko tresnak eta bitartekoak eskaintzen ditu (Branka, mintzagrama, gela-argazkia...). Behatoki ezin hobea delako dauden joera eta norabideak aztertzeko.

- Esperientzia trukea eta egitasmo osoaren berri izateko aukera eskaintzen duelako.

- Kontsumo kulturala. Diagnosia egin eta sustatze lana bidera dezake.

- Eredu izaera duelako. Beste lekuetakoekin trukeak etab.

- Eskolako eragile ezberdinengan hausnarketa bidera dezake. Autopertzepzioa, usteak, aurriritziak... landu eta hausnar daitezke.

Aipatutakoak kontuan izanik, zein egiteko posible emango genizkioke eskolari, auzi horri dagokionean? Lan-ildo batzuen zertzeladak iradoki ditzakegu. Besteak beste honakoak :

- “Arnasgune” izatearen kontzientzia lantzea. Dituen inplikazioak, gorabeherak, joeren bilakaera ulertu eta asumitu etab.

- “Arnasgune” izaera hori sendotu eta trinkotzea. Hizkuntza eta bere etnokulturaren transmisioa ziurtatzeko eta sakontzeko bideak urratzea herriko beste eragileekin batera.

- Arnasgune horien bilakaeraren jarraipena egiteko bideak jartzea. Ikertzea, ikerketa gune bilakatzea.

- Euskal eleaniztunak garatzea. Hiztun jantziak, osoak. Alegia, tokiko euskara estandarri menderatzen dutenak eta edozein diziplinatan ari direla ere, euskaraz trebe aritzeko gauza direnak, euskal literatura eta kultura ezagutzeaz gain, gozatzen dakitenak. (hizkuntza jada menderatzen baitute?). Euskara jaso, landua izango duten ikasleak lortzea.

- Erabilera ziurtatu eta sendotzea. Beste eragileengan horren garrantziaz hausnarketa sustatzea.

- Eragile izatea herriko beste eragileekin koordinatuz eta elkarlana bideratuz. Herriko hizkera zaintze lanean, euskal hedabideen sustapenean eta zabalkundean, herriko kultura transmisiorako bideak eraikiz etab.

- “Naturalki” jaso duten hori baloratzen ikastea. Sakontzea eta aberastea. Haur eta gazte horiek duten potentzial hori “zabaltzea”, “trukatzea”. Beste ingurukoekin harreman sareak eraikitzea.

- “Konplexuak” gainditu, autopertzepzio errealista landu eta identitate euskalduna eta talde sentimendua indartzea.

- Hizkuntza funtzioak edota euskararen gizarte ikuspegia lantzea, ikertzea eta ulertaraztea. Azterketa eta hausnarketa soziolinguistiko oinarritzkoak. Hitzun kontzienteagoak izaten laguntzea.

- Hizkuntza kalitatea zaindu eta areagotzea. Hizkuntza-errepertorioa eta erregistro ezberdinak ezagutu eta erabiltzeko neurriak hartzea.

- Hizkuntza eta bere etnokulturaren transmisioa ziurtatzeko eta indartzeko ekimenak bideratzea. Fito Rodriguezek dioen bezala:

”hizkuntza bat kode hutsa baino gehiago baita eta gainera, aurrez ikusi dugun bezala, hizkuntzen bizirautearen oinarritzko elementua identifikazio sozio-kulturala da.”

(Rodriguez,1998:105)

Egiteko hori ez dagokio eskolari bakarrik, baina eskolari ere bai.

- Beste eskolekiko trukea ahalbideratzea. Euskalduntzen ari direnek izan dezaten aukera euskaraz bizi diren herrietako errealitateak ezagutuz, beraien ezagutza eta erabilera areagotzeko.

Hiru zutabe nagusi horiez gain badira hainbat alor horiekin lotura dutenak, baina berariaz kontuan hartu eta sustatu beharrekoak.

Hizpide izan dugu euskarazko ekoizpen kulturalak sortu eta haietaz baliatzeak duen garrantzia, horien bidez elikatzen delako gure autorregulazio soziokulturalerako ahalmena. Mundu erreferentzial propioa landu beharko da. Horretan, eskaintza handitu eta kalitatez hornitzeaz gain, bere kontsumoa eta erabilera sustatu beharko dira. Ahozko ekoizpenak, idatzikoak, ikusentzunezkoak, baliabide digitalak etab. zaindu beharko dira eta horien promozio lana egin. Emozio bertsuak, sentipen bertsuak, erreferentzia mundu bertsuak, partekatuz eraikitzen delako sormen kulturalerako gaitasuna eta gozamenerako ahalmena. Emozio eta bizipen partekatu horiek baitira hitzun komunitatearen harreman-sareak ehuntzen dituenak. Hor lantzen dira gerora behin eta berriz erreproduzitzeko beharrezkoak diren sentipenak.

Kirolean, aisialdian, euskarazko jardueren eskaintza ezinbestekoa da. Eskolak egiten duenaren osagarri eta indargarri izan behar du eskaintza horrek. Hor pasatzen ditu gazteak ordu asko eta asko eta hor eratzen ditu bere harreman-sareak. Horiek euskaraz eratzea eta euskaraz indartzea sekulako eragin biderkatzailea du. Hor markatzen dira sarritan harreman-sare horien hizkuntza erabilera ohiturak eta joerak. Hori berariaz zaintzea oso da garrantzitsua.

Jardun-gune guztiak dute bere garrantzia. Ikusi dugu guztietan eragin beharko dela, osagarritasuna bilatuz. Batean egiten denak ez dezan besteak indargabetu. Lehentasunak ezarri eta horiek egikaritzu.

Amaitzeko esan, asmo genuen xedea; hau da, arnagune jakin batzuk behatzearena eta horietan zein dislokazio ematen den arakatzearena bete dugula. Ikusi ditugu zein joera eta norabide ari diren nagusitzen kasu horietan. Lehen atalean deskribatu direnak berrestea, baieztatzea, besterik ez dugu egin, guk jasotako datuekin. Egungo egoeraren deskribapen xume horrek jarraipena beharko luke. Batetik, joera horien zergatiak sakonago aztertzeke; bestetik, joera horiek denboran zein norabide hartzen duten aztertzeke. Joera horien bilakaeraren jarraipena egiteko. Horretarako, eskura ditugun eta erabili ditugun bitartekoak, lagungarri izan ditzakegu. Hemendik bospasei urtetara berriro ikus ditzakegu herri horietako datu demolinguistikoak, maila bereko geletan gela-argazkiak egin, kultura-kontsumoari erreparatu eta herri horietako beste hainbat aldagai kontuan hartu. Horiek guztiek herri horien, arnagune horien, bilakaera jarraitzea ahalbideratuko liguke. Gaurkoz, egungo deskribapenarekin geratuko gara. Beraz, bego eginkizun.

ERANSKINAK

1.ERANSKINA

ULIBARRI programa. Prestakuntza-saioarako datu-bilketa

IRAKASLEAK BETETZEKO

Ikastetxearen izena: _____		Kodea: _____			
Herria: _____	Berritzegunea: <table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"><tr><td style="width: 20px; height: 20px;"></td><td style="width: 20px; height: 20px;"></td><td style="width: 20px; height: 20px;"></td></tr></table>				
Ikastetxeak dituen irakastereduak (A,B,D):					
Ikasgelaren ezaugarriak:					
Maila: _____	Eredua: _____	Ikasle kopurua _____			

IKASLEAK BETETZEKO

Ikaslearen zenbakia: _____

Elebiduna zarenez, galdera batzuk egingo dizkizut. Norekin euskaraz egiten duzun, norekin erdaraz eta norekin bietara: horixe jakin nahi nuke. Nahi baduzu erantzun, eta nahi ez baduzu ez. Saiatu, hori bai, egia esaten. Erantzuteko, dagokion koadrotxoan **X** markatu. Zer erantzun ez dakizunean, utzi zuriz.

Nola hitz egiten diezu pertsona hauei? (ZUK HAIEI)						
		1. Beti erdaraz	2. Erdaraz gehiago, euskaraz baino	3. Bietara berdin	4. Euskaraz gehiago, erdaraz baino	5. Beti euskaraz
1	aitari					
2	amari					
3	anai-arrebei					
4	gelako lagunei, gelan					
5	jolasorduan eskolako lagunei					
6	kaleko lagunei					
7	Irakasleei, gelan					
8	Irakasleei, gelatik kanpora					
9	Bizi zaren auzoko ezagunei					
10	Kalean edo dendan, ezagutzen ez duzun pertsona bati					

Nola hitz egiten dizute pertsonok?		(HAIEK ZURI)				
		1. Beti erdaraz	2. Erdaraz gehiago, euskaraz baino	3. Bietara berdin	4. Euskaraz gehiago, erdaraz baino	5. Beti euskaraz
1	aitak					
2	amak					
3	anai-arrebek					
4	gelako lagunek, gelan					
5	jolastorduan, eskolako lagunei					
6	kaleko lagunek					
7	Irakasleek, gelan					
8	Irakasleek, gelatik kanpora					
9	Bizi zaren auzoko ezagunek					
10	Kalean edo dendan, ezagutzen ez duzun pertsona batek					

Euskaraz, erdaraz edo bietara egiten duzu honako hau?						
		1. Beti erdaraz	2. Erdaraz gehiago, euskaraz baino	3. Bietara berdin	4. Euskaraz gehiago, erdaraz baino	5. Beti euskaraz
1	Telebista ikusi					
2	Bideoak eta filmak ikusi					
3	Elizan					
4	Egunkariak irakurri					
5	Irratia entzun					
6	Diskoak/CDak entzun					
7	Dendan					
8	Kirolean					
9	Interneten					
10	Telefonoz					

Azken galderak, zure aita-amei buruz:

a) Zer moduz dakite euskaraz?						
		1. Batere ez	2. Pixka bat	3. Moldatzen da	4. Ondo samar	5. Oso ondo
1	aitak					
2	amak					
b) Beraien artean nola hitz egiten dute etxean?						
	1. Beti erdaraz	2. Erdaraz gehiago, euskaraz baino	3. Bietara, berdin	4. Euskaraz gehiago, erdaraz baino	5. Beti euskaraz	
3						

2.ERANSKINA

KULTURA- KONTSUMOA. Galdetegia.

Galdera hauen bidez zuen kultura kontsumoa zein den jakin nahi dugu, eta zein hizkuntzetan ematen den. Beraz, zintzotasunez erantzuten ahalegindu. Erantzuteko, dagokion koadrotxoan X markatu. Zer jarri ez dakizunean utzi bere horretan. Edozein ohar lagungarri aipatu nahi baduzu, jarri lasai. Mila esker arretagatik.

Ikastetxea:

Herria:

Ikasmaila:

Eredua:

TELEBISTA:

1.- Zenbat denbora pasatzen duzu egunean, batez beste, telebista ikusten.

- ETB1. Euskarazkoa.

a) 30 minutu baino gutxiago. ☐

b) 1 ordutik 2 ordura. ☐

c) 3 ordu baino gehiago. ☐

- Beste telebista kateak.

d) 30 minutu baino gutxiago. ☐

e) 1 ordutik 2 ordura. ☐

f) 3 ordu baino gehiago. ☐

- Izendatu gehien ikusten dituzun bi programa. Programaren izena eta telebista katea.

-.....

-

- Gazteleraz ikusten dituzun programak euskaraz baleude , euskaraz ikusiko al zenituzke ?

a) Bai, ☐. Zergatik ?.....

b) Ez, ☐. Zergatik ?.....

- Zer moduzko programazioa dauka, zure ustez , ETB1ek. Eman zure iritzia. Gustukoa duzun ala ez, zer da gehien gustatzen zaizuna, zer botatzen duzu faltan ?

.....
.....

BIDEOAK ETA FILMAK:

- Zenbat bideo zinta edo pelikula ikusten dituzu, batez beste, astean ?

a) Bat ere ez ☐

b) 2 –4 ☐ Horietatik zenbat euskaraz:.....

c) 4 baino gehiago ☐ Horietatik zenbat euskaraz:.....

- Zein hizkuntzatan ikusten dituzu, gehienetan , bideo edo filmak? Zergatik ?

.....

EGUNKARIAK

- Egunkaririk irakurtzen al duzu.

a) Inoiz ez ☐

b) Astean behin ☐

c) Egunero ☐

- Zein egunkari irakurtzen duzu:

Berria ☐ Diario Vasco ☐ Gara ☐ Deia ☐

El correo ☐ Noticias de Gipuzkoa ☐ Besteren bat ☐

- Non irakurtzen duzu :

b) Etxean ☐ Eskolan ☐ Liburutegian ☐ Beste nonbait ☐

Irratia

- Irratirik entzuten al duzu.

a) Inoiz ez ☐

b) Astean behin ☐

c) Egunero ☐

- Zein irradi entzuten duzu:

a) Euskadi irratia ☐ Euskadi gaztea ☐ Besteren bat ☐ .Zein ?.....

- Irratitik zer da gehien gustatzen zaizuna ?.....

- Zer botatzen duzu faltan ?.....

DISKOAK /CDak

- Zenbat denboraz entzuten dituzu egunean, batez beste, diskoak/CDak

a) 30 minutu baino gutxiago. ☐

b) 1 ordutik 2 ordura. ☐

c) 3 ordu baino gehiago. ☐

- Zein hizkuntzatan entzuten dituzu nagusiki:

Euskaraz ☐ Gazteleraz ☐ Ingeleraz ☐

Zergatik egiten duzu aukera hori?.....

INTERNET

- Ba al duzu etxean Internetik ? Bai ☐ Ez ☐

- Noiz sartzen zara Interneten:

Inoiz ez ☐ Egunero ☐ Astean 2 edo 3 aldiz ☐ Gutxiagotan ☐

- Non erabiltzen duzu Internet:

Etxean ☐ Eskolan ☐ Bietan ☐

- Zertarako erabiltzen duzu, batik bat, Internet:

Posta elektronikoa ☐ Txatak,... ☐ Web orriak ikusteko ☐

- Zein hizkuntzatan erabiltzen duzu gehienetan:

Euskaraz ☐ Gazteleraz ☐ Ingeleraz ☐ . Zergatik?.....
.....

LIBURUAK ETA ALDIZKARIAK:

- Eskolako lanekin zerikusirik ez daukan zenbat liburu irakurtzen duzu hilean:

Euskaraz:

Bat ere ez ☐ 1-3 ☐ 3 baino gehiago ☐

Gazteleraz edo beste hizkuntzaren batean:

Bat ere ez ☐ 1-3 ☐ 3 baino gehiago ☐

- Aldizkaririk irakurtzen al duzu ? Bai ☐ Ez ☐ Zein?
Non:

Etxean ☐ Eskolan ☐ Udal Liburutegian ☐

- Aldizkariren baten harpidedun al zara ? Bai ☐ Ez ☐ Zein?

ERAKUSKETAK/ EMANALDIAK

- Erakusketetara (margoak, eskulturak...) edo emanaldietara (antzerkia, bertso-saioak...) joaten al zara:

Inoiz ez ☐ Astean behin edo bitan ☐ Hilean behin ☐ Gutxiagotan ☐

- Zein hizkuntzatan izaten dira gehienetan:

Euskaraz ☐ Gazteleraz ☐ Ingeleraz ☐ .

3.ERANSKINA

Herriko beste ataletan. Datu jasoketa eta behaketa.

Udalerria:

- 1.- Udalerriak abian ba al du EBPB edo beste normalkuntza planik ? Bai Ez
